

URTEKO TXOSTENA

2007



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

20



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

NAFARROAKO
FORU KOMUNITATEKO
ARARTEKOA

URTEKO TXOSTENA
2007

Izenburua: 2007ko urteko txostena

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2008ko, Maiatza

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:

%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



00 _ aurkibidea

2007

00 _ aurkibidea



2007

01. AURKEZPENA	13
02. SARRERA	21
03. I. KAPITULUA KEXEI BURUZKO ESTATISTIKA OROKORRA	25
03.1. Datu orokorrak	25
03.2. Bideratzeko onartutako kexak	29
03.3. Onartu gabeko kexak	31
03.4. Bertze parlamentu batzuen ordezkariari helarazitako kexak	34
03.5. Kexen banaketa, gaiaren arabera	34
03.6. Kexen bidez gaitzetsitako administrazio publikoak	37
04. II. KAPITULUA KEXEN EBALUAZIOA	47
04.1. Aitzinsolasa	47
04.2. Aurkeztutako kexak, gaiaren arabera	48
04.2.1. Nekazaritza, merkataritza, turismoa eta industria	48
04.2.2. Gizarte ongizatea	50
04.2.3. Kultura, kirola eta elebitasuna	55
04.2.4. Hezkuntza	56
04.2.5. Funtzio publikoa	59
04.2.6. Ogasuna	63
04.2.7. Zirkulazioa eta barne arazoak	66
04.2.8. Justizia	69
04.2.9. Ingurumena	72
04.2.10. Herri lanak eta zerbitzu publikoak	75
04.2.11. Osasuna	78
04.2.12. Enplegua, gizarte segurantza eta atzeritarrak	80
04.2.13. Hirigintza eta etxebizitza	83
04.2.14. Eskubideak sustatzea, administrazio publikoekin harremanetan jartzen diren herritarren eskubideak bermatzea	92
04.2.15. Bestelakoak	95
05. III. KAPITULUA EBAZPENAK	99
05.1. Ebaluazio orokorra	99
05.2. Onartutako ebazpenak	104
05.2.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioak onartu zituen ebazpenak	104
05.2.2. Toki erakundeek onartu zituzten ebazpenak	116
05.2.3. Bertze administrazio eta erakunde publiko batzuek onartu zituzten ebazpenak	125
05.3. Onartu gabeko ebazpenak	125
05.3.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioak onartu ez zituen ebazpenak	125
05.3.2. Toki erakundeek onartu ez zituzten ebazpenak	128
05.4. 2007ko abenduaren 31n erantzuteke zeuden ebazpenak	131
05.4.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioa	131
05.4.2. Toki administrazioa	136

05.5. Arartekoak 2006ko abenduaren 31 baino lehen eman eta administrazioak ordurako erantzun ez zituen ebazpenak	142
05.5.1. Onartutako ebazpenak	142
05.5.2. Onartu gabeko ebazpenak	146

06. IV. KAPITULUA ERAKUNDEAREN GOMENDIO ETA IRADOKIZUN NAGUSIAK	151
06.1. Sarrera	151
06.2. Gomendioak eta iradokizunak, gaiaren arabera	152
06.2.1. Gizarte-ongizatea	152
06.2.2. Osasuna	155
06.2.3. Ingurumena	157
06.2.4. Funtzio publikoa	160
06.2.5. Etxebizitza	164
06.2.6. Hirigintza	166
06.2.7. Zerbitzu publikoak eta ondare-erantzukizuna	167
06.2.8. Herri-lanak	168
06.2.9. Barne-departamentua	169
06.2.10. Hezkuntza	170
06.2.11. Administrazio publikoekiko harremanetan herritarren eskubideak bermatzea	170
06.2.12. Ogasuna	171
06.2.13. Industria	172
06.2.14. Elebitasuna	172
06.2.15. Nekazaritza	173
06.2.16. Kultura	174
06.2.17. Kirola	174

07. V. KAPITULUA OFIZIOZKO IKERKETAK	177
07.1. 2007 urtean gauzatutako ofiziozko jarduerak	177
07.2. Nafarroako haur eta nerabeen egoerari buruzko informazioa	183

08. VI. KAPITULUA: NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOAREKIN EGINDAKO ELKARLANA. ERAKUNDE ETA ENTITATE EZ-LAGUNTZAILEAK	189
08.1. Nafarroako administrazio publikoek arartekoari laguntzeko duten betebeharra	189
08.2. Laguntzeko betebeharraren betetze-maila 2007an	191
08.2.1. Ikerketa-fasean arartekoaren eskakizunei erantzun ez dieten administrazioak eta oztopotzat hartzen direnak	193
08.2.2. Gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorazpenei erantzun ez dieten administrazioak edo arrazoia egoki justifikatu gabe baztertu dituztenak	194
08.3. Administrazio publiko nagusien onarpen-maila	199

09. VII. KAPITULUA TXOSTEN BEREZIAK	203
09.1. Sarrera	203
09.2. "adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik" txosten berezia"	204
010. VIII. KAPITULUA ARARTEKOAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN DUEN HARREMAN ZUZENA	219
010.1. Informazio-bulegoa	219
010.2. Gizarte zibilarekin izandako harremana	223
011. IX. KAPITULUA KALITATEA EBALUATZEA ETA HOBETZEA	227
011.1. Herritarren arretako hobekuntzak. Herritarrentzako zerbitzuen gutuna	227
011.2. Herritarrek erakundearen baliagarritasunari eta eraginkortasunari buruz duten iritzia.	228
011.3. Kexak izapidetzeko batez besteko epeak	235
012. ERANSKINA	239
012.1. Erakundearen 2007ko aurrekontuaren likidazioa	239
012.2. Nafarroako arartekoaren erakundeko lan-talde organikoa eta langileak	249

01 _ aurkezpena

2007

01 _ aurkezpena



2007



Francisco Javier Enériz Olaechea

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

Aurten ere, erakundearen urteko txostena aurkeztuko dugu. Txosten hau 2007ko ekitaldiari dagokio eta formatu desberdina du. Sinplifikatua eta zehatzagoa da edukietan, edo hala izan zedin saiatu gara behintzat, eta arinagoa da kontsultatzeko edo irakurtzeko orduan. Batere hutsik egin gabe, jakina, Arartekoar buruzko Foru Legean txosten arruntetarako eskatzen diren edukiei dagokienez.

13

Gertaera nabarmen bat izan da 2007an: 2000. urtean sortu zenetik lehen aldiz, Ararteko erakundearen titularra aldatu da Martxoan, izenpetzen duen honek ordezkatu zuen Maria Jesus Aranda Lasheras. Ordezkapen hori egitean, Arartekoaren funtzionamendua ez da inolaz ere oztopatu, txostenean zehazten diren datuek adierazten duten moduan, eta hori pozgarria da.

Hain zuzen ere, 2006 urtean, herritarrek 440 kexa aurkeztu zituzten. 2007an kopurua oso antzekoa izan da, nahiz eta gorakada txiki bat izan den (447 kexa, hots, % 1,6 gehiago). Horrela, azken urte hori izan da kexa gehien jaso dituen urtea, Arartekoa sortu zenetik. 2001ean, alegia, Arartekoaren lehen urtean, 300 kexa inguru aurkeztu ziren. Kopuru horretatik ia 450 kexa jasotzera pasa da urte honetan, Hots, zazpi jarduera-urtetan % 50eko gorakada izan da.

Horrela, egiaztatzen da Arartekoa gutxika finkatzen ari dela Nafarroako herritarren artean: Izan ere, batetik, arazoaren

aurrean Arartekoak izandako jardueraren balorazio global hobea egin dute herritarrek 2007an, 2006an egin zutena baino; eta, bestetik, 10 erabiltzaitetik 8k adierazten dute gomendatuko lioketela beste norbaiti Arartekora jotzea.

Hirugarren urtez jarraian, herritarren kexa gehienak hirigintza eta etxebizitzari buruzkoak izan dira eta, hain zuzen, aurreko bi ekitaldietan baino ehuneko handiagoa izan da gai horietan. Ondoren, zirkulazioari eta barne-arazoei loturiko kexak daude, eta horien ehunekoa pixka bat handitu da. Gai horiei dagokien blokea Arartekoak jorratu beharreko ohikoenetakoa da oraindik. Funtzio publikoari buruzko kexek gora egin dute, aurreko urteekin konparatuta, eta ongizateari edo gizarte-gaiei loturiko kexek, berriz, aurreko urteetako ildo berean jarraitu dute. Bestalde, osasunari, ogasunari, obra eta zerbitzu publikoei, elebitasunari eta antzeko gaiei loturiko kexen kopuruak behera egin du, eta antzeko kopuruak izan dira aipatu gizarte-ongizateari, ingurumenari, hezkuntzari, justiziarri edo nekazaritzari loturiko kexetan.

Aurkeztutako kexen % 13 Espainiako Arartekoari zegozkion (ia guztiak), edo autonomia-erkidegoren batekoari. Kasu horietan, gure erakundea lehen kontaktua da herritarrentzako Espainiako Arartekoarengana jotzeko. Hain zuzen, herritarrei laguntza, aholkua eta orientazioa eskaintzen zaie kexak aurkezteko orduan eta, gainera, beren idatzia dagokion helbidera helarazten da denbora-tarte laburrean. Ondoren, kexak jarraitzen dituen urratsen informazio guztia jasotzen dute. Botere publikoen arteko lankidetzak bikainaren adibidea da. Izan ere, Nafarroako Arartekoak laguntzaile gisa jarduten du herritarrekin eta Espainiako Arartekoarekin.

Datu horiek ditugu joan den urtean aurkeztutako kexei dagokienez. Arartekoaren jarduerari dagokionez, 656 kexa kudeatu ditugu (2006an 595). Horietatik, 586 ebatzi ditugu (aurreko urtean, 420; hau da, aurten % 40 gehiago ebatzi dira), eta 70 kexa ebatzteke utzi

dira (2006an baino % 29 gutxiago; alegia, ebazteke dauden kexen kopurua erdia baino gutxiago izan da).

2007an kexa gehiago onartu dira 2006an baino. Alegia, % 37tik % 49ra igaro da. Jakina, gorakada horrek nabarmen hobetzen du herritarrek Arartekoari buruz duten iritzia, herritarrek ikusten baitute beren kexa gehienek arreta jasotzen dutela erakunde publiko batean eta, gainera, denbora-tarte laburrean. Hain zuzen, hori ez da hala izaten administrazio-jarduera batzuetan, gerta baitaiteke burokrasia gehiegi egotea, izapideak motelak izatea, sentiberatasun gabe erantzutea edo, besterik gabe, ez erantzutea.

Kexak ebaztean egiaztatu ahal izan dugu bi kexatik batean, behintzat, kontuan hartzeko arrazoiak zeudela eta, hortaz, arrazoiak zeudela zegokion administraziora jotzeko eta gomendioa, iradokizuna edo lege-betebeharren gogorazpena helarazteko nahiz gatazka ebazten laguntzeko.

15

Halaber, nabarmentzekoa da Nafarroako administrazio publikoek onarpen maila altua izan dutela Arartekoak egindako gomendioen eta bitartekotzaren gainean. Guztira, partikularren kexak zirela eta gauzatutako jardueren % 85 onartu dituzte xede-administrazioek. Ehuneko altu hori joan den urtekoaren antzekoa da. Zalantzarik gabe, datu hori garrantzitsua da, egiaztatzen baitu Nafarroako Arartekoaren erabakiak, hein handi batean, onartu egiten dituztela agintariek nahiz administrazioen zerbitzura dauden langileek. Alegia, egiaztatzen da Arartekoa eraginkorra dela eta egiazki bermatzen duela herritarrek ordenamendu juridikoan onartutako eskubideak baliatzea. Hala eta guztiz ere, gure erabakien are onarpen maila handiagoa lortu nahi dugu.

Halaber, nabarmentzekoa da administrazio publikoek lankidetzara eta leiala izan dutela Arartekoaren ikerketa-funtzioari dagokionez. Gero eta gutxiagotan gertatzen da administrazioek gure informazio-eskaerei ez erantzutea. Halaber, ikusten da

erantzuten dutenek denbora-tarte laburragoan erantzuten dutela, eta pentsa daiteke etorkizunean ez dela gertatuko Nafarroako Arartekoari kasurik ez egitea. Nire ustez, aurten sartutako berrikuntzak lagundu du horretan; alegia, orain kexa zuzenean ebatz daiteke herritarrek helarazten dituzten jazoerak kontuan hartuta, baldin eta administrazioak ez badio erantzuten bigarren informazio- edo dokumentazio-eskaerari.

Arartekoaren funtzioa ez da soilik herritarren kexak jasotzea. Halaber, beharrezkotzat jotzen duenean, ofiziozko jarduerak has ditzake, eta berariaz agintariengana zuzendu daiteke interes publikoko gaietara dagokienez. Hain zuzen, kasu hori hamasei aldiz gertatu da, eta orotariko gaiak jorratu eta hainbat eratako iradokizunak egin ditugu (horietako askok arau- edo plangintza-izaera zuten).

Sektore publikoak herritarrekiko harremanetan duen funtzionamendua hobetzeko, botere publikoei proposamenak helarazi dizkiegu eta lankidetzan jardun dugu. Ildo berean, gauzatzeke geratu ziren bi txosten bereziak amaitu ditugu (aipatu adindunen eskubideei buruzkoa eta Nafarroako administrazio publikoek adin txikikoak babesteari buruzkoa; biak ere Parlamentuaren aurrean aurkeztuta daude), eta beste hiru ere hasi eta amaitu ditugu. Horietako bat hirigintza-antolamendua onartzen deneko administrazio-isiltasunari buruzkoa da; beste bat, osasun-langileen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa; eta hirugarrena, berriz, zerga-sistema foralari buruzkoa.

Horrez gain, txosten berezi bat hasi dugu kontzejuen eskumenei buruz, eta une honetan txosten hori taxutzen ari gara.

Bai kexen bitartez eta bai ofiziozko jardueren nahiz txosten berezien bitartez, Nafarroako Arartekoaren funtzio eragilea sustatu nahi izan dugu. Alegia, Arartekoaren funtzioa ez da soilik herritarren kexak jasotzea eta ebaztea (nahiz eta hori funtzio

nagusia izan); zerbitzu publikoak nahiz Nafarroako administrazio publikoen jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea ere bada. Hartara, guztira 244 gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorazpen aurkeztu dira Nafarroako administrazio guztien aurrean.

Nafarroako Arartekoaren hirugarren funtzio garrantzitsua herritarrek beren eskubideak erabiltzeari dagokionez egindako kontsultei erantzutea da. Funtzio horri esker, beren eskubideak ezagutzen ez dituzten, eskubideak nola erabili ez dakiten edo eskubide horiek gauzatzeko nora jo behar duten ez dakiten milaka herritarrei laguntzen zaie. 2007an 990 kontsulta jaso ziren. Horietatik, 745 kontsulta herritarrei aholkua emanez ebatzi ziren, eta, 245 kontsultaren kasuan, keza bat aurkeztu zen Nafarroako administrazioaren baten jardueraren aurka. Informazio-bulegoak landutako esparru horretan jasotzen du Arartekoak, hain zuzen, gizarte-onarpen handiena. Inkestatutako ia herritar gehienek, kontsulta egin eta gero, Arartekoa baliagarritzat edo oso baliagarritzat jotzen dute (inkestatutako bi pertsonatik batek oso baliagarritzat jotzen du).

17

Zifra horiek berek erakusten dute nolako lana egin den, baina aipatutakoari gehitu behar zaizkio elkarte, pertsona edo hedabideei egindako elkarrizketak, hitzaldiak, jardunaldiak, idatziak, erakunde-ekitaldietan nahiz bestelako ekitaldi ugaritan izandako presentzia, bai eta Arartekoaren barne-egituraketarako emandako ebazpenak ere. Azken horien artean daude herritarrentzako zerbitzu-sorta onartzea ahalbidetu duen ebazpena, Arartekoari laguntzen ez dioten administrazio eta erakundeen erregistro berritzailea sortzea ahalbidetu duen ebazpena, edo datu pertsonalak babestea ahalbidetzen duena.

Beraz, adierazi den moduan, jarduera handiko urtea izan da, eta Arartekoak lanean jarraitu du herritarren eskubideak bermatzeko funtzio garrantzitsua betetz, emaitza bikainekin. Datuen arabera, herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dute Arartekoa, eta

Arartekoa gero eta eraginkorragoa da, hots, ebazpenak zuzentzen zaizkien administrazioek hein handi batean onartzen dituzte ebazpen horiek.

Amaitzeko, hainbati eskerrak eman beharrean nago. Lehenik, Nafarroako Parlamentuari (bai aurreko osaketari eta bai oraingo osaketari), aurten ni aukeratzean adierazitako konfiantzagatik eta lehen urte honetan zuzenean jaso dudan laguntza eta adore guztiagatik. Konfiantza hori asko estimatzen dut, herritarren eskubideak aldezteko goi-ordezkaria naizelako eta hala sentitzen naizelako. Bigarrenik, Nafarroan egoitza duten administrazio publikoetako agintari eta langileei. Izan ere, batetik, hainbatetan latza edo tematsua izan daitekeen Arartekoaren ikuskaritza-funtzioa ulertu dute eta, bestetik, gurekin lankidetzan jardun dute eta lagundu egin gaituzte, gero eta salbuespen gutxiagorekin. Hirugarrenik, Gorte Nagusietako Arartekoari eta autonomia-erkidegoetan berme-funtzio bera dutenei, gure erakundearekin lankidetzat handia izan dutelako eta beti arreta adeitsua eskaini dutelako. Eta, azkenik, bereziki eskerrak eman nahi dizkiet erakundeetan lan egiten duten pertsona guztiei, beren ardura eta ahaleginarengatik eta, batez ere, sortu eta mantendu duten lan-giro bikainarengatik. Lan-giro horri esker herritarrei zerbitzu publiko hobea eskaintzen ahal zaie, eta hori da, hain zuzen, gure funtzioa. Guztioi, mila esker.

Iruñea, 2008ko martxoaren 31

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

02_ sarrera

2007

02_ sarrera



2007

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36. artikuluan ezartzen da Arartekoak urtero emango diola Nafarroako Parlamentuari egindako kudeaketen berri, batzar-garai arruntean aurkeztuko den txostenaren bitartez.

Bestalde, Foru Lege horretako 37.1 artikuluan zehazten da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren urteko txostenak azaldu behar duela zenbat kexa aurkeztu zaizkion eta zer motatakoak, eta zehaztu behar duela zenbat kexa baztertu diren eta zergatik. Halaber, ikertu diren gaiak eta ikerketaren ondorioak azaldu behar ditu, administrazioak onartutako ohartarazpenak, iradokizunak, gogorarazpenak eta gomendioak zehaztuz.

Azken batean, azterketa globala egin nahi da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak herritarren eskubideak aldezte eta babeste aldera gauzatutako jarduera eta ikerketei buruz. Azterketa hori oso erabilgarria izan daiteke Nafarroako Parlamentuak eta Administrazio Publikoak beharrezko neurriak ezar ditzaten, Espainiako Konstituzioan nahiz Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoan jasota dauden herritarren eskubideak egoki baliatzea eragozten duten oztopoak desagerrarazteko.

Txostena bederatzi kapitulutan egituratua dago. Lehen kapituluan, aurkeztutako kexen kopurua eta mota adierazten dira, bai eta gaien araberako sailkapena, ikerketa prozesuetan parte hartzen duten administrazioak eta prozeduren izapidetze-egoera eta ondorioak ere. Bigarren, hirugarren eta laugarren kapituluetan informazio hori osatu egiten da; alegia, aurkeztutako kexa, gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorarazpenak oinarri hartuta, herritarrek planteatzen dituzten funtsezko arazoak eta arartekoaren jarduera-ildoak azaltzen eta aztertzen dira.

Bestalde, seigarren kapituluan 2007. urtean gauzatutako ikerketa-prozesuetan administrazio publikoek izandako onarpen-eta lankidetzeta-maila aztertzen da.

Bosgarren kapituluan, ofizioz gauzatutako jarduera eta ikerketak jasotzen dira. Horiek osatzen dute arartekoaren jarduera arrunta.

2007. urtean zehar prestatutako txosten bereziak zazpigarren kapituluan azaltzen dira. Azkenik, aurrekoak bezain garrantzitsuak diren zortzigarren eta bederatzigarren kapituluetan, urtez urte herritarren eskaera maila handieneko lan-esparru gisa finkatzen ari den informazio-bulegoaren jarduera azaltzen da, bai eta herritarrek Arartekoari buruz egiten duten balorazioa ere.

Dokumentu hau taxutzea ez da izapide bat, besterik gabe. Aitzitik, balio digu herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan pairatzen dituzten arazoek ikuspegi globala azaltzeko, bai eta zerbitzu publikoen gabezia eta urritasunei nahiz zerbitzu publikoekiko harremanetan sortzen diren gatazkei buruzko ikuspegi globala azaltzeko ere. Halaber, aukera paregabea da erakundeak erronka berriak onar ditzan eskubide subjektibo publikoen babesean aurrera egiteko, bai eta botere publikoei gauza bera egin dezaten planteatzeko ere.

Hain zuzen ere, eta erakunde honen helburu nagusia herritarren kezak izapidetzea eta ebaztea denez, txostenean alderdi hori ageri da nagusiki. Dena den, azaldu bezala, ez dira alde batera uzten bestelako gai garrantzitsu batzuk ere, hala nola ofizioz gauzatutako ikerketak, administrazio publikoek Arartekoaren proposamenei eskainitako laguntza eta onarpena, eta erabiltzaileek duten pertzepzioa edo balorazioa.

Alde horretatik, bereziki atsegina da administrazio publikoek onarpen-maila handia erakutsi izana gauzatutako ikerketa-prozeduretatik ondorioztatutako proposamenei dagokionez, proposamenei ia % 85 onartu baitziren 2007an. Halaber, atsegina da jakitea herritarrek gero eta konfiantza handiagoa dutela erakunde honen gainean, eta horrek pertsonen eskubideak aldezteko lanean jarraitzea bultzatzen gaitu.

03 _ kexei buruzko estatistika orokorra

2007

03 _ kexei buruzko estatistika orokorra



2007

I KAPITULUA

KEXEI BURUZKO ESTATISTIKA OROKORRA

03.1. DATU OROKORRAK

Kapitulu honen bidez kexen analisi estatistikoa egingen dugu baina, aurrez, zehaztu beharra dago datuen azterketa Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak kexen inguruan ematen duen definizioan oinarritzen dela. Zehatz-mehatz, 4/2000 Foru Legearekin bat, herritarrek aurkezten dituzten erreklamazioak hartu behar dira kexatzat.

Ñabardura esanguratsua da hori. Izan ere, arartekoaren ohiko jarduna, herritarren kexak aztertzeaz gain, bere kabuz esku hartu eta ikertzea ere bada. Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako administrazio publikoen eskaerari jarraiki bertzeak bertze. Hain zuzen ere, kexen esparruaz kanpoko esku-hartzea txosteneko V. kapituluaren landuko dugu.

25


Honako hauek dira kexei beraiei buruzko daturik nabarmengarrienak:

1. Herritarrek 2007an **aurkeztutako kexen kopurua** 447koa izan zen. Hau da, % 1,6ko hazkundera izan zen 2006aren aldean, 440 kexa aurkeztu baitzituzten orduan. Alde horretatik, kontuan izan beharra dago 2006. urtearen ezaugarri nagusietako bat kexen kopuruaren hazkunde handia izan zela, aurreko urteetako batez bertzeakoaren aldean. Horregatik, aipatzekoa da goranzko joera, iraun ez ezik, areagotu ere egin zela 2007an.

Hazkundera eragin duten arrazoietako bat izan da erakundera herritarren eta administrazio publikoen artean

gero eta gehiago sendotzea; hainbertzeraino sendotu da, administrazioek gero eta gehiago betetzen dituzte arartekoak egiten dituen gomendioak, iradokizunak eta gogorazpenak.


Kudeatutako kexak 2007-2006



2007an helarazi zizkieten kexak barne, arartekoak 2.700 kexa baino gehiago hartu ditu guztira sortu zenetik, azken zazpi urteetan. Erakundearen baliagarritasunaren eta herritarrei zerbitzu publikoa ematen dien adierazgarri da hori.

2. Arartekoak 2007an **kudeatutako kexen kopurua** 656koa izan zen guztira. Izan ere, orduan aurkeztutako kexez gain, aurreko urteetan hartutako bertze 209 kexa bideratu zituen. Abenduaren 31rako, 585 espediente ebatzi zituen; alegia, kudeatutakoen % 89,2. Gainerako % 10,8a (hau da, 71 kexa), berriz, ebatzteke zeuden ekitaldia amaitzeko egunean.

Ebatzita eta ebazteke zeuden kexak 2007-2006




Hartara, 2006an baino 165 espediente gehiago ebatzi genituen 2007an. Hori dela-eta, erran daiteke erakundeak espedienteak ebazteko zalutasuna eta eragingarritasuna ia % 40 hazi zela.

27

- Herritarrek **kexak aurkezteko gehien erabili zuten bidea** erakundera bertara jotzea izan zen, eta kexen % 55 zuzenean aurkeztu zituzten, Nafarroako arartekoaren bulegoan. Bigarrenik, kexa idatziak posta arrunt bidez edo bertze nolabait bidali zizkiguten gehienbat; hain zuzen, kexen % 21 heldu zitzaizkigun horrela. Hirugarrenik, kexen % 20 posta elektronikoen bidez edo arartekoaren webgunea erabiliz igorri zizkiguten. Azkenik, kexa guztien % 4 fax bidez hartu genituen.

Ikusten denez, bulegora bertara joatea da oraindik ere gehien erabiltzen den bidea. Izan ere, dena delako gaiari buruz interesa duten pertsonak bertatik bertara lortzen dute informazioa horrela eta, gainera, aholkulariek eta teknikariek kexa idazten laguntzen dituzte.

kexak aurkezteko modua



4. Aurkeztutako 447 kexetan 397 banakoek aurkeztu zituzten, eta 50, aldiz, talderen batek. Banaketa aurreko urtekoaren oso antzekoa izan zen: 2007an, kexen % 88,82 banakoek helarazi zituzten, eta % 11,18, taldeek; 2006an, berriz, banakoek % 89,65 helarazi zituzten, eta taldeek, % 10,35.

5. Aurreko urtean ez bezala, 2007an kexa idatzi gehiago aurkeztu zituzten gizonaek emakumezkoek baino. Zehazki, banakoek aurkeztu zituzten kexen % 55 gizonaek aurkeztu zituzten, eta % 45, emakumezkoek.


6. 2007an behera egin zuten euskaraz eta euskaraz zein gaztelaniaz helarazi zizkiguten kexen kopuruak. Bi kexa bakarrik aurkeztu zituzten euskaraz, eta bi bi hizkuntzetan; 2006an, berriz, hamar aurkeztu zituzten euskaraz, eta hiru bi hizkuntzetan. Edonola ere, arartekoaren bulegoan bada langile bat euskaraz komunikatu nahi duten edo kexa euskaraz aurkeztu nahi duten herritarrak hizkuntza bera erabiliz laguntzeko.

03.2. BIDERATZEKO ONARTUTAKO KEXAK

2007an 481 kexa onartu genituen bideratzeko; hots, arartekoak 481 kexaren gaiari buruz eman zuen iritzia, aldekoa edo kontrakoa; kopuru hori kudeatu genituen kexen (656 kexaren) % 73 da.

Gainerako kexak (110), berriz, ez genituen onartu edo Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari edo bertze autonomia erkidego batzuetako arartekoei helarazi genizkien, herritarrek planteatutako gaia haien eskumenekoa zela eta; hain zuzen ere, 65 kexa igorri genizkion bertze arartekoren bati.

Onartutako/onartu gabeko kexak




- Bideratzeko onartutakoak
- Bideratzeko onartu gabeko kexak
- Bertze ordezkari batzuei igorritakoak

Bideratzeko onartutako kexak aztertu eta analizatu ostean, 234ren egileei eman genien arrazoia. Hau da, arartekoak ebatzi zituen espedienteen ia % 49ren egileei eman genien arrazoia, eta erakundeak 160 kexari buruz emandako ebazpena onartu zuen ikuskatutako administrazio publikoak.

Aitzitik, 171 espediente (bideratzeko onartutako guztien % 35,6) bideratu eta erreklamazioa ezetsi genuen, eta bortz


(onartutakoen % 1) bideratu eta amaitutzat eman genituen, erreklamazioen egileek atzera egin zutelako edo gaia bertze espedienteren baten esparruan landutakoa zelako.

Bideratzeko onartutako keexak (481)



- Erreklamazialeak arrazoiz aukeztutakoak
- Bideratu eta onartu gabeko erreklamazioak
- Atzera egindakoak eta errepikatutakoak
- Ebazteke zeudenak

Erreklamazialeak arrazoiz aurkeztutakoak




- Administrazioak onartutakoak
- Administrazioak onartu gabekoak
- Ebazpenari erantzuteko zain zeudenak

03.3. ONARTU GABEKO KEXAK

2007an, 110 kexa ez genituen onartu bideratzeko, alegia, kudeatutako kexa guztien % 16,8.

Kexak bideratzea ez onartzeko arrazoiak (110)



31

Bideratzeko onartu ez genituen kexen % 30,9 (34 kexa) arrazoi subjektibo bat zela medio (hala nola, kexaren egileak eman beharreko datu guztiak eman ez zituelako) ez genituen onartu, egileak atzera egin zuelako edo kexa arartekoari helarazitako bertze baten berdina zelako; hain zuzen ere, 13 kexaren egileek utzi zuten hutsuneren bat, 12 egilek adierazi zuten atzera egin nahia eta bortz kexa izan ziren bertze batzuen berdinak. Era berean, lau kexa ez genituen onartu egileak ez zuelako berretsi hasiera batean jakinarazitakoa.

Nabarmentzekoa da, kexa bat horietako arrazoiren bat dela-eta (bereziki, daturen bat ez emateagatik edo Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak forma aldetik xedatzen duen eskakizunen bat ez betetzeagatik) ez onartzea erabaki aurretik, erakundeak antzematen duen gabezia betetzeko askotariko aukerak ematen


dizkiela herritarrei, hainbat bidetatik gauza ditzaten. Alde horretatik, arartekoa formalismoaren kontrakoa da berez eta ez da oso burokratikoa baina, zenbaitetan, ahaleginak ahalegin, herritarrek ez dituzte ematen espedientea bideratzeko beharrezko datuak eta, hortaz, amaitutzat eman behar dugu.

Arrazoi subjektiboez gain, badira arrazoi objektiboak direla-eta onartzen ez ditugun kexak. 2007an, esaterako, 76 kexa ez genituen onartu arrazoi objektiboengatik, eta egileak aholkatu egin genituen aurrez.


Arrazoi objektiboak honako hauek dira, bertzeak bertze: batetik, kexa garaiz kanpo aurkeztea –Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak urtebeteko epea ematen du gehienez ere, eta zortzi kexa berandu helarazi zituzten– eta, bertzetik, arartekoak ebazteko proposatzen den auzia ezin ikertzea, dela alor juridiko pribatukoa delako, dela epaitegietako prozedura baten gaia delako, dela gai jakinik ez duelako edo dela administrazio eskudunari planteatzeko betebeharra bete ez eta zuzenean arartekoari planteatzen diotelako; 2007an, 12 kexa, 11, 4 eta 26 ez genituen onartu horregatik, hurrenez hurren.

Azkenik, hamar espediente ez genituen onartu amaitutzat emandako gai bati buruzkoak zirelako, eta bortz, arartekoak ez zuelako haiek bideratzeko

Arrazoi subjektiboak



Arrazoi objektiboak (aholkularitza)



03.4. BERTZE PARLAMENTU BATZUEN ORDEZKARIEI HELARAZITAKO KEXAK

2007an, 65 kexa (kudeatutako guztien % 10) helarazi genizkien guztira Nafarroaz kanpoko parlamentuek herritarren eskubideak babesteko izendatutako goi ordezkariei.

62 Gorte Nagusiek hautatutako arartekoari igorri genizkion, eta hiru, bertze autonomia erkidego batzuetako arartekoei; kexak banatzeko irizpidea izan zen nori zegokion gaia aztertzeo eskumena.

Datu horretatik ondorioztatzen denez, nafar gehienek oso-oso ondo dakite arartekoaren eskumenen esparruaren berri; izan ere, oso kexa idatzi gutxi helarazi behar izaten dizkiogu bertzeri.

03.5. KEXEN BANAKETA GAIAREN ARABERA

Gaiaren arabera, honako hau da 2007an kudeatutako kexen kopurua:

34

Alorra	2007	<2007	Guztira
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	14	6	20
Gizarte Ongizatea	49	20	69
Kultura, Kirola, Gazteria eta Elebitasuna	7	4	11
Eskubideen Sustapena	19	11	30
Hezkuntza Eta Irakaskuntza	18	16	34
Funtzio Publikoa	54	13	67
Ogasuna	16	10	26
Zirkulazioa Eta Barne Arazoak	59	11	70
Justizia	16	2	18
Ingurumena	33	34	67
Herri Lanak Eta Zerbitzuak	25	24	49
Osasuna	34	31	65
Lana, Gizarte Segurantzza eta Atzerritarrak	28	1	29
Hirigintza Eta Etxebizitza	71	20	91
Bestelakoak	4	6	10
Guztira	447	209	656

Datu horiek 2007an aurkeztutako kexak zeri buruzkoak izan ziren adierazten dute eta, 2006an aurkeztutako kexen aldean, bada ezberdintasunik gaiaren aldetik:

Alorra	2007		2006		Aldak
Hirigintza eta Etxebizitza	71	15,88%	52	11,82%	19
Zirkulazioa eta Barne Arazoak	59	13,20%	40	9,09%	19
Funtzio Publikoa	54	12,08%	29	6,59%	25
Gizarte Ongizatea	49	10,96%	46	10,45%	3
Osasuna	34	7,61%	40	9,09%	-6
Ingurumena	33	7,38%	36	8,18%	-3
Lana, Gizarte Segurantzza eta Atzerritarrak	28	6,26%	21	4,77%	7
Herri Lanak Eta Zerbitzuak	25	5,59%	44	10,00%	-19
Eskubideen Sustapena	19	4,25%	19	4,32%	0
Hezkuntza eta Irakaskuntza	18	4,03%	25	5,68%	-7
Ogasuna	16	3,58%	25	5,68%	-9
Justizia	16	3,58%	18	4,09%	-2
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	14	3,13%	13	2,95%	1
Kultura, Kirola, Gazteria eta Elebitasuna	7	1,57%	15	3,41%	-8
Bestelakoak	4	0,89%	17	3,86%	-13
Guztira	447	100,00%	440	100,00%	7

Aurreko ekitaldian bezala, kexen gai nagusia **hirigintza eta etxebizitza** izan zen: 2007an, horri buruzko 33 eta 38 kexa (aurkeztutako guztien % 15,88) aurkeztu zituzten, hurrenez hurren; 2006an, berriz, kexen % 11,82 izan ziren horri buruzkoak. Zehazki, etxebizitzari buruzko kexa gehienak Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeak etxebizitza babestuak esleitzeko ezartzen duen baremoari buruzkoak dira.

Bigarrenik, 2007an aurkeztu zituzten kexen gaia **zirkulazioa eta barne arazoak** izan ziren gehienbat; hain zuzen, kexen % 13,20 izan ziren haiei buruzkoak.

Nolanahi ere, 2007an, baliteke deigarriena **eginkizun publikoari** buruzko kexen kopuruaren hazkundera gertatu izana, ia % 6 hazi baitzen aurreko urtekoaren aldean; zehatz-mehatz, 2006an, kexa

guztien % 6 baino pixka bat handiagoa izan zen eta, 2007an, % 12,08koa. Gehienbat, administrazio publikoetan sartzeko prozedurei eta, zehazki, administrazio publikoetan sartzeko deialdietako baldintzei eta aukeraketa prozeduraren bilakaerari buruzkoak izan ziren kexak, baina funtzionarioek ere kexa ugari helarazi zituzten, eskubide pasiboen arabideari eta gizarte segurantzari buruz.

Garrantzi aldetik, kexen laugarren multzoa **gizarte ongizateari** buruzko kexek osatu zuten. Haien ehunekoa hazi egin zen apur bat 2006koaren aldean, eta % 10,96koa izan zen –aurreko urtean, % 10,45ekoa–. Alor honetan aurkeztutako kexa gehienak zaharrak babestu eta lagundu beharrari buruzkoak izan ziren.

Osasunari buruzko kexen kopuruak behera egin zuen bigarren urtez jarraian, eta kexa guztien % 7,61ekoa izan zen. Gehienbat, Osasunbideak gastuak ordaintzeari uko egin izanari eta haren zerbitzuen esparruan laguntza, protesi eta botika jakin batzuk ez sartzeari buruzkoak izan ziren kexak.

Ingurumenari buruzko kexen kopuruak ere behera egin zuen, eta kexa guztien % 7,38koa izan zen guztira. Alor honetan aurkeztutako kexen erdia baino gehiago kutsadura akustikoari (zaratari) buruzkoak izan ziren, bai aisialdia emateko lokalek eta eraikinen beheko solairuek egindakoari eta bai ibilgailuak zirkulatzearen ondoriozkoari buruzkoak.

Lanaren, gizarte segurantzaren eta atzerritarren alorreko kexek kexa guztien % 6,26 osatu zuten; hau da, ugaritu egin ziren aurreko urtekoen aldean. Alor honetako kexa gehienak (28etan 18) gizarte segurantzari buruzkoak izan ziren.

Administrazio publikoek **informazioa eman eta espedienteak legediak xedatzen duen epean ebazteko betebeharrari** buruzko kexen ehunekoa aurreko urtekoaren berdina izan zen ia, aurkeztutako kexen % 4,25ekoa.

Azkenik, gainerako gaietan bakoitzari (hezkuntzari, ogasunari, nekazaritzari, industriari, merkataritzari, turismoari, kulturari, kirolari, gaztediari eta elebitasunari) buruzko kexen ehunekoak aurkeztutakoen % 5etik beherakoa izan zen.

03.6. KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

2007an aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko jardunari buruzkoak izan ziren, alegia, Nafarroako Gobernuko administrazioaren (bai osatzen duten departamentuen eta bai haren mendeko organismo publikoen) jardunari buruzkoak. Zehatz-mehatz, 211 kexa (guztien % 47,20) helarazi zizkiguten horri buruz; hots, helarazi zizkiguten kexen ia erdia foru administrazioaren jardunaren kontrakoak izan ziren.

37

Toki erakundeen jardunaren kontra 138 kexa aurkeztu zituzten, guztien % 30,87.

2006aren aldean, foru administrazioaren aurkako kexen kopuruak gora egin zuen, % 38,99koa izan baitzen orduan, eta toki erakundeen aurkakoenak, behera, % 36,12koa izan zen-eta orduan.

Hiru kexa bai Foru Komunitateko administrazioari eta bai toki administrazioari buruzkoak izan ziren.

Estatuko administrazioaren kontra 68 kexa helarazi zizkiguten.

Epaitegietako administrazioaren jardunari buruzko borts kexa hartu genituen.

Hamaika kexa sozietate publikoen eta elkargo profesionalen jardunari buruz ari ziren.

Hiru kexa hauteskunde administrazioaren kontrakoak izan ziren.


Bertze hiru kexa Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateen jardunaren aurka helarazi zituzten.

Azkenik, bortz kexa erakunde pribatuei eta zehaztu gabeko bertze batzuei buruzkoak izan ziren.

KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDE PUBLIKOA		
EDO ERAKUNDE PUBLIKOA	Kexa kop.	%
Foru Administrazioa	211	47,20%
Toki Administrazioa	138	30,87%
Foru eta Toki Administrazioak	3	0,67%
Estatuko Administrazioa	68	15,21%
Epaileak	5	1,12%
Sozietate eta Elkargo Profesionalak	11	2,46%
Hauteskunde Administrazioa	3	0,67%
Nafarroako Unibertsitateak	3	0,67%
Guztira (*)	442	98,88%

(*) Erran bezala, gainerako bortz kexak ez ziren izan administrazioei buruzkoak, erakunde pribatuei eta gai partikularrei buruzkoak baizik.

Kexen bidez gaitzetsitako adminisrazio edo erakunde publikoa



Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren kontra aurkeztutako kexei dagokienez, argitu beharra dago, kexak departamentuen arabera banatzeko, 2007ko abuztuan eraturako gobernuko administrazioaren egitura organikoa erabili dugula oinarri; hori dela-eta, zenbait kexa berriz sailkatu behar izan ditugu, gaur egun dena delako sektorearen gaineko eskumena duen departamentuaren esparruan sartzeko. Hain zuzen ere, ingurumenari buruzko hiru kexa eta kontsumoari buruzko bi sailkatu behar izan ditugu berriro ere: ingurumenari buruzkoak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren esparrutik atera eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren esparruan sartu ditugu, eta kontsumoari buruzkoak, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren esparrutik atera eta Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentuaren esparruan sartu, haien eskumenekotzat hartzen baititugu orain.

2007an herritarren kexa gehien eragin zuten Nafarroako Gobernuko departamentuak Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Osasun Departamentua izan ziren: Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren kontra aurkeztutako kexen bortzen bat bi departamentu horietakoren baten aurkakoa izan zen.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari buruz ere kexa ugari (32) aurkeztu zituzten, baita Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari buruz ere; hain zuzen ere, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren aurkako kexen kopurua aurreko urtekoa halako bi izan zen.


Toki erakundeen kontrako kexei dagokienez, berriz, honako hauek eragin zuten kexa gehien, biztanleria handiagoa dutela-eta, jakina: Iruñeko Udalak (35), Tuterakoak (zazpi), Barañaingoak (bortz), Noaingoak (lau) eta Burlatako, Lizarrako eta Tafallako udalek eta Iruñerriko Mankomunitateak (hiruna). Dena dela, biztanleria txikiagoko herrietako udalen jardunaren kontra ere kexa askotxo (hiru) helarazi zizkiguten, hala nola, Larragako eta Legardako

udalenen kontrakoak, eta zenbait kontzeju txikiri buruzko bina kexa hartu genituen, hala nola, Arlegiko eta Artatzako kontzejuei buruzkoak.

Xehetasunen berri izateko, hona hemen datuei buruzko taulak eta grafikoak:

DEPARTAMENTUA	Kexa kop.	%
Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak	45	21,33%
Osasuna	44	20,85%
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	32	15,17%
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	31	14,69%
Hezkuntza	22	10,43%
Ekonomia eta Ogasuna	13	6,16%
Landa Garapena eta Ingurumena	10	4,74%
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	7	3,32%
Herri Lanak, Garraioak eta Komunikazioak	3	1,42%
Toki Administrazioa	2	0,95%
Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismoa	2	0,95%
GUZTIRA	211	100,00%

Departamentua



NAFARROAKO TOKI ERAKUNDEEN INGURUKO KEXAK

UDALERRIA	GUZTIRA
ABLITAS	1
AMESKOABARREN	1
ANTSOAIN	1
AGOITZ	1
ARAITZ	1
ARANO	1
ARANTZA	1
ARELLANO	1
ARGUEDAS	1
BARAÑAIN	5
BAZTAN	1
BERA	1
BERIAIN	2
BIURRUN-OLKOTZ	1
BUÑUEL	1
BURLATA	3
CAPARROSO	1
CASTEJÓN	1
CINTRUÉNIGO	2
DESOIO	1
DEIKAZTELU	1
DONEZTEBE	1
ETXAURI	1
EGUES	2
LIZARRA	3
ERATSUN	1
ESPRONTZEDA	1
ESTERIBAR	1
FUNES	1
UHARTE	1
LAKUNTZA	1
LARRAGA	3
ELIZAGORRIA	1
LEGARDA	3
LEOTZ	1
LERIN	1
LODOSA	1
LUZAIDE	1
MARTZILLA	1
MENDABIA	2
MILAGRO	1
MONTEAGUDO	1

NAFARROAKO TOKI ERAKUNDEEN INGURUKO KEXAK

UDALERRIA	GUZTIRA
MURCHANTE	1
NOAIN	4
ERRIBERRI	1
OLORITZ	2
OLTZA	1
IRUÑA	35
GARES	1
RIBAFORADA	1
ERROMANTZATUA	1
SAN ADRIÁN	1
ZANGOZA	1
SAN MARTIN UNX	1
TAFALLA	3
TIEBAS-MURU ARTEDERRETA	2
TUTERA	7
UKAR	1
UHARTE ARAKIL	1
ULTZAMA	1
VILLATUERTA	1
ZIZUR NAGUSIA	1
NAFARROAKO HAINNBAT UDALERRI	2
UDALERRIAK, GUZTIRA	127

KONTZEJUAK	
ARLEGIKO KONTZEJUA	2
ARTATZAKO KONTZEJUA	2
GATZOLAZKO KONTZEJUA	1
CONCEJO DE MUSKIZKO KONTZEJUA	1
KONTZEJUAK, GUZTIRA	6

MANKOMUNITATEAK	
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	3
GIZARTE ZERBITZU OINARRIZKOEN MANKOMUNITATEA	2
MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA	5
GUZTIRA	138

urte/alorra-ren arabera kexen eboluzioa

ALORRA	2001 URTEA		2002 URTEA		2003 URTEA		2004 URTEA		2005 URTEA		2006 URTEA		2007 URTEA	
	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	9	2,83%	15	3,78%	16	5,28%	11	2,64%	12	2,89%	13	2,95%	14	3,13%
GIZARTE ONGIZATEA	17	5,35%	36	9,07%	24	7,92%	40	9,62%	30	7,23%	48	10,45%	49	10,96%
KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA ELEBITASUNA	12	3,77%	40	10,08%	15	4,95%	19	4,57%	11	2,65%	15	3,41%	7	1,57%
ESKUBIDEEN SUSTAPENA									3	0,72%	19	4,32%	19	4,25%
HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA	18	5,66%	28	7,05%	22	7,26%	24	5,77%	44	10,60%	25	5,68%	18	4,03%
FUNTZIO PUBLIKOA	35	11,01%	29	7,30%	19	6,27%	29	6,97%	27	6,51%	29	6,59%	54	12,08%
OGASUNA	15	4,72%	17	4,28%	16	5,28%	22	5,29%	19	4,58%	25	5,68%	16	3,58%
ZIRKULAZIO ETA BARNE ARAZOAK	84	26,42%	48	12,09%	36	11,88%	58	13,94%	31	7,47%	40	9,09%	59	13,20%
JUSTIZIA	12	3,77%	29	7,30%	17	5,61%	15	3,61%	21	5,06%	18	4,09%	16	3,58%
INGURUMENA	9	2,83%	14	3,53%	11	3,63%	21	5,05%	33	7,95%	36	8,18%	33	7,38%
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	23	7,23%	25	6,30%	16	5,28%	41	9,86%	25	6,02%	44	10,00%	25	5,59%
OSASUNA	15	4,72%	30	7,56%	29	9,57%	38	9,13%	53	12,77%	40	9,09%	34	7,61%
LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA TAZERITARRAK	11	3,46%	33	8,31%	15	4,95%	31	7,45%	36	8,67%	21	4,77%	28	6,26%
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	26	8,18%	39	9,82%	36	11,88%	52	12,50%	52	12,53%	52	11,82%	71	15,88%
BESTELAKOAK	32	10,06%	14	3,53%	31	10,23%	15	3,61%	18	4,34%	17	3,86%	4	0,89%
KEXAK GUZTIRA	318.100,00%		397.100,00%		303.100,00%		416.100,00%		415.100,00%		440.100,00%		447.100,00%	

04 _ kexen ebaluazioa

2007

04 _ kexen ebaluazioa



2007

II KAPITULUA KEXEN EBALUAZIOA

04.1. AITZINSOLASA

2007an aurkeztutako kexek lantzen zituzten gaiak askotarikoak zirela erran beharra dago ezinbestean eta, horrexegatik, arartekoak bereiz tratatu eta ebatzi behar izan zuela bakoitza. Hala ere, kexa guztiak batera ebaluatzeko, datuak metodikoki bildu behar dira, gaiaren arabera. Hartara, ematen dugun informazioari esker, txostenaren irakurleek hobeto eta ikuspegi orokorragoa izanik ebaluatu ahal izanen dituzte kexek funtsean planteatzen dituzten auziak eta, hortaz, baita herritarrek arartekoarengana jotzen dutenean azaltzen dituzten kezka ere.

Illo horretan, kapitulu honetan ez ditugu aipatuko arartekoak kexa espedienteen harira egin dituen gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorarazpenak, eta III. eta IV. kapituluetan emanen dugu haien berri. Izan ere, txostenaren atal honen helburua, ahalik eta modu zuzenenean, herritarrek planteatzen dituzten gaien ikuspegi orokorra ematea da, erakundeak kasuan-kasuan esku hartzeko zer aukera erreal dituen eta kexa bakoitza nola bideratzen den edo arartekoak esku hartzearen emaitza zein den gorabehera.

Azken batean, kontua informazio sintetizatu eta sistematizatu ematea da, administrazio publikoekin harremanetan jartzen diren herritarrak zuzenean larritzen dituzten arazoei buruz. Hartara, arartekoari helarazten zaizkion auziak bertzerik gabe islatu eta zenbakizko datuen bidez adierazteko ez ezik, informazioak balioko du Nafarroako Parlamentuari, administrazioei eta, herritarren iritzia adierazgarri diren aldetik, komunikabideei eta txostena irakurri edo aztertzen duten guztiei Nafarroako gizartearen zati baten kezka jakinarazteko eta, hortaz, horiek guztiek ondorioak atera, proposamenak egin eta ekimenak planteatzeko ere.

04.2. AURKEZTUTAKO KEXAK, GAIAREN ARABERA

04.2.1. Nekazaritza, merkataritza, turismoa eta industria

2007an, herritarrek 14 kexa aurkeztu zituzten nekazaritzari, merkataritzari, turismoari eta industriari buruz. Hain zuzen ere, bederatzi nekazaritza arlokoak izan ziren; hiru, merkataritza arlokoak; bat, turismo arlokoa; eta bertze bat, industria arlokoa.

Guztira, alor honetako kexek arartekoak hartutako kexa guztien % 3,13 osatu zuten. Datu horretatik ondorioztatzen denez, ez dirudi gizarteak kezka handirik duenik erakundeak alor honetan esku har dezan.

04.2.1.1. Nekazaritza

Nekazaritzari buruzko kexak, berriro ere, lurra biltzeko prozesuen bilakaerari buruzkoak izan ziren; izan ere, 2007ko ekitaldian desadostasuna izan zen administrazioaren eta funtsen jabeen artean, funts jakin batzuk lurra biltzeko prozesuetatik kanpo uzteko egokitasuna edo desegokitasuna zela eta. Ildo horretan, alor honetako zenbait kexa prozesuon harira izandako prozedurazko akatsei eta haien gauzatzeari buruzkoak ere izan ziren.

Halaber, kexaren bat Foru Komunitateko administrazioak nekazaritzako politika bateratuaren esparruko laguntzak kudeatzen dituen moduaren kontrakoa eta abeltegiak ikuskatzeko erabiltzen dituen frogabideen (zehazki, abeletxeen jabeek kontrako frogak aurkezteko debekuaren) aurkakoa izan zen.

Azkenik, izan zen kexarik toki erakundeek herri ustiapenen gainean dituzten betebeharrei (bereziki, ustiapena antolatzeke prozeduraren ezaugarriari eta herritarrek ordaindu beharreko kuotei) buruz.

Laburbilduta, hona hemen kexarik esanguratsuenen gaien aurkibidea:

- Desadostasuna eta erreklamazioak lurrak biltzeko prozesuak zirela-eta, administrazioak ez zuelako onartu ustiatu egiten ez zuten funts bat prozesutik kanpo uztea, eskaera Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 24ko Foru Dekretuko 3. artikularekin bat egin arren.
- Lurrak biltzeko prozesuaren harira hartutako neurriak ez jakinaraztea.
- Lurrak biltzearen ondorioz egindako kalteak erreklamaztea.
- Nekazaritzako politika bateratuaren esparruko laguntzak hartzeko eskabide batean nortasun agiriari buruzko datua zuzentzen ez uztea.
- Ureztatzaileen elkartean izena ematen ez uztea.
- Toki erakunde batek herri lurrak ustiatzeko betebeharra ez betetzea.
- Diskriminazioa, herritarrek eta atzerritarrek kuota ezberdinak ordaindu behar zituztela-eta herri baso bateko barrutietan perretxikoak eta onddoak biltzearen trukean.
- Herri lur batek publikoa izateari utzi eta hura kexaren egilearen funts baten truke aldatzeko espediente bat ebazten atzeratzea.

04.2.1.2. Merkataritza

Merkataritza arloan, kexak kontsumoari buruzkoak izan dira, batez ere, Arbitraje Batzordearen eta kontsumo zerbitzuaren aurrean erreklamazioak aurkezteko prozedurari buruzkoak. Gainera, kexa baten bidez, administrazio publikoaren betebeharra analizatu zuten herritarrek aurkeztu dituzten idatziei, eskabideei eta erreklamazioei erantzuteko, eta baita organo eskudunarena ere, ebazpenak dagokion epean emateko.

Hain zuzen ere, honako hau izan zen merkataritzari buruzko kexen edukia:

- Banku batekiko harremanetatik ondorioztatutako arazoak.
- Kontsumitzaile batek aurkeztutako erreklamazioari zegokion espedientea hari deus jakinarazi gabe ematea amaitutzat.
- Aseguru etxe bati kalteak erreklamatzeara.

04.2.1.3. Turismoa eta industria

2007an oso kexa gutxi helarazi zizkiguten turismo eta industria arloei buruz; hain zuzen, bi kexa hartu genituen: turismo arlokoa (kanpin bat husteari buruzkoa) bata, eta industria arlokoa (administrazio publikoak laguntzak emateko prozedura baten esparruan dokumentuak zuzentzeko izapidea onartu ez izanaren kontrakoa) bertzea.

04.2.2. Gizarte ongizatea

2007an, 49 kexa aurkeztu zituzten gizarte ongizatearen alorrean, alor honetan neurri handi batean nahi duten adierazgarri erakunde publikoek esku har dezaten.

Orduan, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentua gizarte zerbitzuen zerrenda osatzen hasi zen, laguntza teknikoak, ekonomikoak eta materialak zehaztu eta, hartara, gizarte zerbitzu publikoen gutxieneko estaldura ziurtatzeko, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea garatze aldera betiere.

Onartu beharra dago, alor honetan hartzen ari diren neurriei esker, aurrerapen esanguratsua izaten ari dela gizarte zerbitzuen esparruan baina, era berean, nabarmentzekoa da kexa ugari aurkeztu dituztela oraindik ere; esate baterako, 2007an aurkeztu

zituzten kexa guztien % ia 11 gizarte ongizateari buruzkoak izan ziren.

Lehenik, 20 kexa zaharrak lagundu eta babestu beharrari buruzkoak izan ziren. Horietako zortzi zahar etxean sartu eta egoteko baldintzei buruzkoak ziren eta, zenbaiten bidez, gizarte baliabide hori erabiltzeko eskatu ere egin zuten. Halaber, kexen egileek zalantzan jarri zuten familiek zenbaterainoko dirutza ordaindu behar duten ekimen pribatuko zahar etxeak erabili ahal izateko, eta gastuak ordaintzeko laguntza publikorik ez izatea.

Hain zuzen ere, zahar etxeetan egoteko baldintzek zortzi kexetan lau eragin zituzten eta, horietako baten ondorioz, organo eskudunak beharrezko ikuskatze lanak egitera bultzatu behar izan zituen arartekoak.

Zaharrendako laguntza ekonomikoak eta laguntzak emateko prozedura administratiboak hobetu beharrak ere zeresan handia eman zuen; izan ere, laguntzak banatzeko prozedura motelegia da batzuetan.

51

Bigarrenik, haurrak babestu beharrari buruzko kexa bat hartu genuen. Zehazki, salaketa bat hartu genuen, bai baitzitekeen haurren aurkako zabarkeria eta tratu txarrak gertatzea. Zitekeena zela-eta administrazioak esku hartu behar izatea, informazioa oinarrizko udal gizarte zerbitzuei helarazi genien berehala.

Hirugarrenik, 17 kexa ezgaitasunari buruzkoak izan ziren, eta batzuen eta bertzeen gaia oso bestelakoa izan zen.

Espediente baten bidez, adibidez, salatu zuten ez udal gizarte zerbitzuek eta ez foru administrazioiko departamentu eskudunak ez dituztela ikuskatzen buruko gaixotasunen bat diagnostikatu dieten pertsonak apopilo hartzeko etxebizitzak.

Bestalde, administrazioak ezgaituak direla onartu duen hainbat herritarrek arartekoak esku hartzeko galdegin zuten, aparkatzeko txartela eskatu eta eman ez zieten eta.

Halaber, zenbait kexa izan ziren ezgaitasunen bat duten pertsonak mugitzeko laguntzak eman beharri buruz.

Ezgaitasunei buruzko bertze kexa baten bidez, ama batek azaldu zigun arazoak zituela, seme ezgaituak 18 urte bete zituelako eta, horregatik, adingabeendako zaintzapeko etxebizitza batean bizitzeari utzi behar ziolako; gainera, familiaren arazoa are larriagoa omen da, semearen ezgaitasuna buruko gaixotasun baten ondorio delako eta jarrerazko asalduek eragiten dizkiolako.

Alor honetako bertze auzi garrantzitsu bat ezgaitasunen bat duten pertsonen lan munduan parte hartzea da, eta bi kexa hartu genituen horri buruz: bata sektore pribatuan lan egiteari buruzkoa zen, eta bertzea sektore publikoan lan egiteari buruzkoa; sektore publikoari buruzko kexaren egileak zioenez, aukeraketa prozesuko azterketak egokitu egin behar dira hautagaiak nolabaiteko ezgaitasunen bat badu.

Orobat, hainbat kexa helarazi zizkiguten administrazioak aurrez onartutako ezgaitasun maila txikiagotu izanaren aurka, ondorio larriak baitakartza horrek baliabide eta laguntza publikoak lortzeko, eta behar adinako laguntza ekonomikoak eman beharra ere jakinarazi ziguten, ezgaitasunen bat duten pertsonak behar bezala zaintzeko.

Laugarrenik, emakumeen egoerari buruzko lau kexa hartu genituen, eta guztiak lana eta familia bateratzeko zailtasunei buruzkoak izan ziren. Bi kexaren arabera, zailtasunak Nafarroako Gobernuak ama langileendako laguntzak emateko ezartzen duen gutxieneko errentaren ondorio ziren, txikiegia omen baita. Kexa bat oinarrizko udal gizarte zerbitzu batean halako laguntzei buruz informazio okerra eman izanagatik kexa zen, egileak galdu egin

baitzituen. Bertzearen arrazoia zen lana aldi baterako uzteko eskatutako laguntza eman ez izana.

Laburbilduta, hona hemen kexarik esanguratsuenen gaiak:

Zaharrak

- Zahar etxeetan sartzeko eta egoteko baldintzak.
- Laguntza ekonomikoak eman beharra zaharrak zahar etxe pribatuetan egoteko gastuak ordaintzeko.
- Zahar etxe batean bizi den senide bat bisitatzen ez uztea.
- Mendekotasun egoeran dauden zaharrei laguntza ekonomikoak emateko prozedura administratiboa atzeratzea.
- Zahar bat etxean zaintzen ezin jarraitzeagatik, zahar etxe batean sartzeko gastuak ordaintzeko laguntza bat eskatu eta ez ematea.
- Ondarea eskualdatzeagatik, zahar etxe batean egoteko gastuak ordaintzeko laguntza bat eskatu eta ez ematea.
- Mendekotasun egoeran dagoen senide bat zaintzeagatik laguntza bat eskatu eta ez ematea.

53

Haurrak:

- Banako baten kexa, bai baitzitekeen haurren aurkako zabarkeria eta tratu txarrak gertatzea.
- Adingabe bat familian hartzeko espediente bat bideratu eta administrazioak aurka egitea.

Ezinduak:

- Buruko gaixotasunen bat duten pertsonendako etxe batean sartu eta egoteko baldintzak.
- Buruko gaixotasunen bat diagnostikatu dieten pertsonak apopilo hartzeko etxebizitzak ikuskatu beharra.

- Ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak lagundu beharra eta horretarako laguntza ekonomikoak eman beharra.
- Garraibide egokiturik ezin erabiltzea eguneko zentzora joateko.
- Administrazioak ezgaitua dela onartu duen inork aparkatzeko txartela eskatu eta ez ematea.
- Ezgaitasun bat duen pertsona bat sektore publikoan lan egiten hasteko zailtasunak, azterketak ez daudelako egokituta ezgaitasunetara.
- Mugitzeko garabi mekaniko bat erosteko laguntza eskatu eta ez ematea.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonen lan egin dezaten bultzatzeko araudiarekiko desadostasuna, kexaren egilearen arabera, ez duelako aipatzen enpresek zerga onurak izan ditzaketenik ezgaitasuna kontratua egin ondoren sortzen bada.
- Araudiak ezgaitasuna onartzeko ezartzen dituen eskakizunetikiko desadostasuna.
- Familia ugarietarako buruzko araudiarekin bat, laguntza publikoak eskuratzeko aldera, ezgaitasunen bat duten seme-alabak bi kideztat hartzeko eskaera familiaren per capita errenta kalkulatzeko.
- Familia eta lana bateratzea

Conciliación de la vida familiar y laboral:

- Ama langileendako laguntzak eskuratzeko gutxieneko errentarekiko desadostasuna, familia askok halako laguntzak ezin lortzea omen dakarrelako.
- Lana aldi baterako uzteko laguntza eskatu eta ez ematearekiko desadostasuna.
- Laguntzak eman beharra guraso bananduek seme-alabak bisitatzeko eskubidea erabiltzerik izan dezaten bertze udalerrri batean bizi direnean.

- Nafarroako Gobernuak alargunei ematen dien laguntza eskatu eta ez ematea, eskatzaileak erretiro pentsio bat hartzen duelako.

04.2.3. Kultura, kirola eta elebitasuna

04.2.3.1. Kultura

2007an, oso kexa gutxi helarazi zizkiguten alor honi buruz. Zehazki, bi helarazi zizkiguten: bata administrazioak Espainiako eta nazioarteko ikastetxeetan arte ikasketak egiteko laguntzak emateko deialdiak bertan behera utzi izanari buruzkoa izan zen, eta bertzea, ikasten jarraitzeko laguntza bat eskatu eta ez emateari buruzkoa.

04.2.3.2. Kirola

Kirol arloan, bortz kexa aurkeztu zituzten, eta honako hauek izan ziren gaiak:

- Kirol federazio baten jardunaren aurkako salaketa.
- Udalerri bateko kirol instalazioak erabiltzeko, erroldatu beharrarekiko desadostasuna.
- Kirol instalazio bat gaizki antolatzeagatiko ondoeza.
- Kirol instalazio pribatuak ixtearekiko desadostasuna.

04.2.3.3. Elebitasuna

Elebitasun arloan, hiru kexa hartu genituen: bata izan zen hauteskunde batzordeak herritar baten alegazioari euskaraz eta gaztelaniaz ez erantzuteari buruzkoa, eta bertze biak, administrazio publikoan sartzeko prozeduren esparruan euskara ebaluatzen duten moduari buruzkoa; kexa baten arabera, ez da aski, lanpostuak eremu mistoan bete behar direlako, eta bertzearen arabera, ez da beharrezkoa eremu euskaldunean euskara jakin beharra ezartzea.

04.2.4. Hezkuntza

2007an, 18 kexa hartu genituen hezkuntza arloan, eta hartu genituen kexa guztien % 4,3 osatu zuten.

Hezkuntzari buruzko kexen kopuruak behera egin du pixkana-pixkana azken bi urteotan: 2005ean, % 10 osatzen zuten; 2006an, % 5,68; eta, 2007an, % 4,3.

Hezkuntza arloko kexen gaiak askotarikoak izan ziren.

Otik 3 urtera bitartekoendako ikastetxeei buruzko kexak izan ziren gurasoek seme-alabak halakoetan eskolatzeko ordaindu beharreko tarifei buruzkoak, toki eskariari eta eskaintzari buruzkoak baino gehiago.

Erakundeak erran izan duenez, halako ikastetxeek gutxieneko baldintzak bete behar dituzte eta haien jarduna kontrolatu egin behar da. Hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautzen ditu horiek guztiak.

Haur hezkuntzako bigarren zikloari buruzko kexak haurrak eskolatzeko irizpideei buruzkoak izan ziren, bertze irizpide batzuk aplikatu eta haurrak Nafarroako Foru Komunitatearekin itundutako ikastetxeetan sartzeko zailtasunak zirela-eta nagusiki. Zehatz-mehatz, kexa batek haurrak eskolatzeko ezarritako eremuak zalantzan jarri ere egin zituen.

Talde batek seme-alabak eskolatzeari buruzko kexa bat aurkeztu zuen, haurrak familian, ikastetxetik kanpo eskolatu ahal izatea galdegiteko, eta administrazio eskudunari igorri genion, aztertu eta, egoki bazeritzon, aintzakotzat har zezan. Halaber, hainbat kexa helarazi zizkiguten, jangelako zerbitzu osagarriaren

finantzazioari eta, bereziki, hura ordaintzeko laguntzak eskatu eta ez emateari buruz.

Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko kexen edukia, zehazki, honako hau izan zen: batena, Unibertsitatean ikasteko beka bat eskatu eta, eskatzaileak deialdiak ezartzen zuen gehieneko per capita errenta baino handiagoa adierazi zuela-eta, ez ematea; Unibertsitateko irakasle izateko hautagai batek aurkeztutako batena, epaimahaiari espedientea osatzen zuen informazioa eskatu eta ez lortzearekiko desadostasuna; eta bertzearena, unibertsitate ikastegi batek gradu ondoko ikasketei buruzko araudia oker aplikatzea.

Azkenik, bi kexaren egileek malgutasun handiagoa eskatu zuten hainbat azterketaren data finkatzeko –kexa bat Unibertsitatean sartzeko hautaprobari buruzkoa izan zen–, azterketak deialdi bakarrerako ezarritakotik kanpoko bertze egun batean egitea izan dezaten hautagaiek, hori egin behar izateko arrazoi sendoak dituztela egiaztatzen badute.

57

Hona hemen alor honetako kexen edukia, gaiaren arabera:

Haur hezkuntzako lehen zikloko (0tik 3 urtera bitarteko haurrendako) ikastetxeak:

- 0tik 3 urtera bitarteko haurrendako ikastetxeetako tarifekiko desadostasuna.
- 0tik 3 urtera bitarteko haurrendako udal ikastetxe batean lanaldi osoari dagozkion tarifak ordaindu beharrarekiko desadostasuna, kexaren egileak lanaldiaren zati batean bakarrik erabiltzen baititu hango zerbitzuak.
- 0tik 3 urtera bitarteko haurrendako ikastetxe bateko zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren enpresa esleipenduna gurasoei aurrez jakinarazi gabe aldatzea.

Haur hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko irakaskuntzak:

- Eskolako jangela zerbitzuaren finantzazioa nahikoa ez izatea.
- Eskolako jangela zerbitzua ordaintzeko laguntza bat eskatu eta ez ematea.
- Semeak entzumen urritasun larria duela eta Nafarroako Foru Komunitatean halako ezgaitasunak dituzten haurrendako ikastetxerik ez dagoela-eta, semea bertze autonomia erkidego bateko ikastetxe batera joateko gastuak ordaintzeko diru laguntza bat eskatu eta ez ematea.
- Irizpide osagarriak (bereziki, aurretik dauden ikasleen araberakoa) aplikatzearekiko desadostasuna haurrak itundutako ikastetxeetan eskolatzeko.
- Haurrak eskolatzeko eremuen banaketarekiko desadostasuna.
- Haurrak eskolatzeko irizpideekiko desadostasuna.
- Haurrak etxean eskolatzeko eskaera.
- Ikastetxeetako hizkuntz ereduak zehaztu eta hezkuntzaren plangintza egiteko irizpideekiko desadostasuna.

Lanbide heziketa:

- Unibertsitateko tituluren bat duten langileek lanbide heziketako ikasketak egiteko tokiak gordetzea.

Unibertsitatean sartzeko hautaprobak:

- Senitarteko bat hil zitzaioa-eta, hautapropa egin ezin zuen ikasle batek azterketa egiteko eguna aldatzeko eskatu eta horretarako malgutasunik ez izatea.

Unibertsitateko irakaskuntza:

- Unibertsitatean ikasteko beka bat eskatu eta ez ematea, eskatzailearen per capita errenta deialdiak ezarritako gehienekoa baino handiagoa zela eta.
- Unibertsitatean irakasle lanpostu bat betetzeko lehiaketa oposizioko espediente administratiboa osatzen duten dokumentuak aztertzen ez uztea.
- Unibertsitate ikastegi batek gradu ondoko ikasketei buruzko araudia oker aplikatzea eta, horren ondorioz, ikasle batek tesia aurkeztu ezin izatea.

EGA:

- EGA lortzeko azterketa egiteko eguna aldatzeko malgutasunik eza.

04.2.5. Funtzio publikoa

Kexei buruzko estatistikaz aritzean erran dugunez, 2007an, funtzio publikoaren alorrean erregistratutako espedienteen kopurua nabarmen handitu zen: 2006an 29 kexa hartu genituen, eta 2007an, berriz, 54. Gai horri buruzko kexak hartutako kexa guztien % 12 izan ziren.

Helarazi zizkiguten 54 kexen erdia (27) lanposturen bat esleitu eta betetzeko prozedurei buruzkoak izan ziren eta, gehienbat, kalifikazio epaimahaien lanari buruzkoak; hain zuzen ere, 27 kexetan gehienak izan ziren hautagaiek prozedurari buruzko informaziorik ez izatearen ondorio. Ildo horretan, herritarrek maiz aurkezten dituzte kexak espedienteak eta epaimahaiak aukeraketa prozesuek irauten duten bitartean egiten duten lanari buruz eskatzen duten informazioa ezin aztertzeagatik. Halaber, kezka adierazi ohi dute, lanpostuak esleitzeko prozesuen ebazpena gehiegi luzatzen delako denbora aldetik, aukeraketa

prozesuen esparruan antolakuntza akatsak izaten direlako zenbaitetan eta, batez ere, emaitzak argitaratzen ez dituztelako eta azterketak berrikusten uzten ez dutelako.

Joan den urteko txostenaren bidez, arartekoak nabarmendu zuen administrazio publikoetan sartzeko aukeraketa prozesuak ez direla luzatu behar arrazoirik gabe eta informazio handiagoa eman behar zaiela hautagaiei. Alde horretatik, bertze inoiz erran izan dugunez, administrazioak informazioa ematen badu bideratzen dituen prozeduren esparruan eta prozedurok zaluak badira, halako arazoak askoz ere neurri txikiago batean jazotzen dira eta administrazioaren eta herritarren arteko harremana hobea da.

Aurkeztutako kexen bertze erdia administrazio publikoan lan egiten duten langileen estatutuari buruzkoak izan ziren eta, batez ere, funtzionarioek eta lan kontratadunek helarazi zizkiguten, administrazioaren kontra, hainbat auzi zirela eta. Zehatz-mehatz, zazpi kexa administrazio publikoetan lan egiten duten langileen lekualdaketei eta administrazioko karrerari buruzkoak izan ziren; bi, ordainsarien gaineko araubideari buruzkoak; zortzi, administrazioan lan egiten dutenen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak; bertze zortzi, eskubide pasiboei eta gizarte segurantzari buruzkoak; eta bertze bi, diziplina araubideari buruzkoak.

Hona hemen kexen gaien aurkibidea, laburbilduta:

Lanpostuak esleitu eta betetzea:

- Toki erakunde batean lorezain eta igeltsero postu bat betetzeko deialdi batek ezartzen zituen irizpideekiko desadostasuna.
- Euskara jakitea eskakizuna izatearekiko desadostasuna eremu euskaldunean lanpostu bat betetzeko.
- Euskara behar bezala ez balioestea eremu mistoan lanpostuak betetzeko.

- Titulu aldetik ezarritako baldintzak betetzen ez zituela-eta, kebaren egileari aukeraketa prozesuetan parte hartzen ez uztearekiko desadostasuna.
- Suhiltzaile zerbitzuan sartzeko deialdiak ezartzen zuen gehieneko adinarekiko desadostasuna.
- Funtzio publikoan lanean hasteko zailtasunak, administrazioak onartu egin duen ezgaitasun iraunkor osoa duela-eta kebaren egileak.
- Hainbat aukeraketa prozesutako epaimahaien lanarekiko eta azterketa psikoteknikoetako irizpideekiko desadostasuna.
- Aukeraketa prozesu bat ebazten gehiegi luzatzea.
- Diskriminazioa unibertsitaterik kanpoko irakaskuntza publikoan lanean hasteko sistemaren esparruan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak xedatzen duen sistema berezia aplikatzearen ondorioz.
- Maisu-maistrak bigarren hezkuntzako irakasle bilakatzeko sistemarekiko desadostasuna.

Lekualdaketak eta administrazioako karrera:

- Maisu funtzionarioen eskaera ohiz kanpoko prozesu bat ebatzi eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklora adskribatzeko.
- Etxetik hurbil egotea lanpostuz aldatzeko baldintzat hartzeko eskaera.
- Zerbitzu eginkizunetan aritzeko eskaera ez onartzearekiko desadostasuna.
- Zerbitzu eginkizunetan aritzeko eskaera ez onartzea.
- Erizaintzako profesionalei karrera profesionala ez aplikatzeagatiko salaketa.
- Albaitarien desadostasuna karrera profesionalaren sistemaren esparruko berdintasunik ezarekin.

Ordainsarien gaineko araubidea:

- Ordainsarien gaineko araubidearen aplikazioarekiko desadostasuna.
- Batetik, Nafarroan eta, bertzetik, hainbat autonomia erkidegotan eta Estatuan araubide ezberdinak izatearekiko desadostasuna, goi kargudunei lanpostua uzten dutenean ematen dizkieten osagarri pertsonalei dagokienez.

Eskubideak eta betebeharrak:

- Kontratudun langileei baimenak erabiltzen utzi ez eta baimenak ez ordaintzea.
- Bularra emateko orduetako denbora lanaldi osoetan metatzeko eskaera ez onartzea.
- Izatezko bikotekidearen senitarteko bat gaixo zegoela-eta, Estatuko funtzionario batek ordainpeko baimena eskatu eta ez ematea.
- Prestakuntza ikastaroak esleitzeko erabiltzen diren irizpideei buruz informazioa eskatu eta eskaerari ez erantzutea.
- Langile publikoen oinarritzko estatutuak sexuaren arabera diskriminatzea, bai baitio emakumezko funtzionarioak bakarrik izan daitezkeela genero indarkeriaren biktima.
- Norberaren gaitasunarekin bateragarria den lanpostu batera aldatzeko eskaerari ez erantzutea.
- Antzintasuna onesteko eskaera ez onartzea.

Diziplina araubidea eta kargutik kendu edo kargua utzaraztea

- Lanpostua eta lan baldintzak aldatzearekiko desadostasuna.
- Kontratua indargabetu eta kontratuak egiteko zerrendetatik kanpo uztearekiko desadostasuna.

- Eskubide pasiboak eta gizarte segurantzaz
- Araubide jakin baten esparruan aritzea erabakitzen duten langileek haren esparruko zerbitzuak emanez kotizatzen duten urteak kontuan ez hartzea.
- Pentsioaren zenbatekoa ez eguneratzearekiko desadostasuna.
- Osasun sistema publikoa erabiltzeko ezintasuna, kexaren egileari udal montepioen esparruko araubidea (klase pasiboaren araubidea) aplikatu behar zaiolako.
- Zerbitzu jakin batzuk eman izana ez onartzea erretiro pentsioa kalkulatzeko.
- Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak xedatzen duen araubide iragankorreakiko desadostasuna.

04.2.6. Ogasuna

63

Ogasun arloan, 16 kexa helarazi zizkiguten; hartara, helarazitako kexa guztien % 3,6 ogasun arlokoak izan ziren.

Foru Ogasunaren eskumeneko zergei buruzko kexak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZari) buruzkoak izan ziren nagusiki, eta askotariko gaiei buruzkoak izan ziren, hala nola, errenta egozteari, kenkariei eta Zerga kudeatzeko prozedurari buruzkoak.

Toki erakundearen eskumeneko zergei buruzko kexak, berriz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari eta Zirkulazioaren gaineko Zergari buruzkoak izan ziren; hain zuzen ere, Zirkulazioaren gaineko Zergari buruzko kexaren sustatzaileak, araudiak xedatzen duenarekin bat, Zerga ordaindu behar ez izateko eskatu zion administrazio eskudunari, ezgaitua dela onartu dutelako eta ibilgailu egokitua duelako, baina baldintza jakin batzuk bete behar zituen horretarako.

Azkenik, kexa bat aurkeztu zuten, ea ez ote dagoen kontraesanik Toki ogasunei buruzko Foru Legeko 174. artikulua eta Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaren hobetzeko abenduaren 29ko 44/2006 Legeko 1. artikuluko 14. epigrafearen artean, hiri lurren balioaren hazkundearen gaineko zerga ordaintzeari dagokionez. Zehazki, kexa sustatu zuenak antzeman zuen kontraesana izan zitekeela foru arauaren edukiaren eta Estatuko arauko xedapenaren artean; izan ere, aipatu zerga erosleari jasanarazten uzten du foru arauak, baina xedapenak Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorreko 22. klausula aldatzen du, eta c) atalak dio gehiegizkoa dela “zergak ordaindu beharra kontsumitzaileari ezartzen dion xedapena, subjektu pasiboa profesionala bada”.

Arartekoak erantzun zion, zuzenbidean oinarritutako irizpide hoberik ez (bereziki, Nafarroako Kontsumo Kontseiluaren zuzenbidea, huraxe baita kontsumo arloko ordezkariak, kontsulta eta partaidetza organoa ekainaren 20ko 7/2006 Legeko 25. artikulua arabera), 44/2006 Legeko bigarren azken xedapenak aipatzen dituen oinarritzko aginduak izan ezik, Estatuko lege hori ez dela aplikatzen Nafarroan, Foru Komunitateak kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko eskumen erabatekoa duelako, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 56.1.d) artikulua xedatzen duenarekin bat. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legeak garatu eta arautzen du eskumen hori, eta ez du berariaz xedatzen zergak ordaindu beharra erosleari ezartzen dioten klausulak indargabetu egin behar direnik subjektu pasiboa saltzailea bada.

Honako hau da ogasun arloko kexen edukien aurkibidea:

Foru Ogasunaren eskumeneko zergak:

- Beka gisa hartzen diren laguntza ekonomikoen gaineko zerga araubidea.

- Zerga administrazioaren erantzunarekiko desadostasuna, PFEZari dagokionez, eskualdaketen gainean berriz inbertitzeagatiko salbuespena egiteko, eskualdatzen den higiezinaren gaineko erabateko jabetza izan behar dela baitzioen.
- PFEZaren esparruan, dohaintza dohain emaileari egoztearekiko desadostasuna.
- PFEZaren itzulketari zegokion dirua zergadunak adierazitakoan ez, baizik eta bankuko bertze kontu batean sartzea.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak oker bat egitea PFEZa likidatzeko prozeduraren esparruan, bi aldiz jarri baitzuen “zigorra” etxebizitza kontua izateagatiko kenkariaren gainean.

Toki erakundeen eskumeneko zergak:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota itzultzea, kexaren egileak ordaindu behar ez baina, subjektu pasiboa zelakoan, ordaindu egin zuelako.
- Udalak informaziorik ez ematea pista bat egokitzeko lanen gainean zerga berezi bat sortzeari buruz.
- Zirkulazioaren gaineko udal zerga ordaindu behar izatetik salbuesteko eskaera ez onartzearekiko desadostasuna.
- Udal ordenantzak ezberdin arautzea udal kirol instalazioak erabiltzeko tasak, erroldatzearen arabera.
- Salaketa bat, ea ez ote dagoen kontraesanik Toki ogasunei buruzko Foru Legeko 174. artikulua eta Estatuko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa hobetzeko abenduaren 29ko 44/2006 Legeko 1. artikuluko 14. epigrafearen artean, hiri lurren balioaren hazkundearen gaineko zerga ordaintzeari dagokionez.

Zergei buruzko informazioa eta datuen babesa:

- Administrazioaren informazio eta koordinazio lana eskasa izatea.
- Adierazpena bereiz egiten duen familiako kideari buruzko datu ekonomikoak bistaratzea eta, kuota negatiboa itzultzeko, ezkontidearen adierazpena aurkeztu behar izatea.

04.2.7. Zirkulazioa eta barne arazoak

2007an, 59 kexa hartu genituen alor honetan eta, hartara, kexa gehien eragin zuen alorretako bat izan zen, aurkeztutako kexa guztien % 13,20 eragin baitzituen guztira. Hain zuzen ere, 26 barne arazoei buruzkoak izan ziren, eta 33, zirkulazio arlokoak.

Zirkulazioari dagokionez, nabarmendu beharra dago, zirkulazio arloko zigorrek jartzeko, administrazioak berme guztiak ziurtatu behar dituela esku hartzen duenean. Bereziki, frogak biltzea ziurtatu behar du eta, gainera, prozedurazko jakinarazpen eta izapide guztiak egin behar ditu; izan ere, froga desegokiak aurkeztu baditu edo inolako frogarik ez badago, zigorra baliogabea da eta, jakinarazpenak oker egiten baditu, ez da indarrean sartzen.

Espetxeen administrazioaren alorrean aurkeztutako kexei dagokionez, berriz, kopurua 11 kexakoa izan zen, eta Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari helarazi genizkion, Nafarroako arartekoaren eskumeneko esparrua Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak baitira. Alde horretatik, Foru Komunitateak izan badu espetxeei buruzko legedia betearazteko eskumenik, baina Estatuko administrazioak ez dio eskualdatu oraindik Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari.

Laburbilduta, hona hemen kexarik esanguratsuenen gaien aurkibidea:

Joko eta ikuskizun publikoak:

- Lanak egitearen ondorioz, Iruñeko zezen plazako zenbait tokitan esertzen direnek okerrago ikustea.
- Baimenik ez duen gaztetxe batek jolas makinak erabiltzearekiko desadostasuna.

Herritarren segurtasuna:

- Guardia Zibilak soinean bi labana izateagatik jarritako zigorrarekiko desadostasuna.
- Alor honetan zigortutako pertsona baten datuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekiko desadostasuna.
- Autoeskolako ikasleek Gipuzkoako Probintziako Trafiko Bulego Nagusian egin zezaten azterketa, Trafiko Zuzendaritza Nagusiari baimena eskatu eta ez ematearekiko desadostasuna.

Espetxeen administrazioa:

- Hainbat presoren espetxeko egoera, zehazki, preso bat etxeko indarkeriari aurrea hartzeko programatik kanpo utzi baitzuten, espetxeko langileek gaizki tratatzen baitituzte eta espetxean egotearekin lotutako bertze zenbait arazo baitituzte.
- Nafarroako espetxera edo Nafarroatik hurbil dagoen batera aldatzeko eskaera.
- Enbaxadak esku hartzeko eskaera, atzerriko espetxe batean preso dagoen pertsona bat laguntzeko.
- Esku hartzeko eskaera, Frantziako espetxe batean preso dagoen pertsona bat laguntzeko.

Poliziaren jarduna:

- Arartekoak esku hartzeko eskaera, Estatuko segurtasun indarrek eta zerbitzuek atxilotzen dituzten pertsonak laguntzeko.

- Zenbait atxilotu epaileen esku uzteko eskaera.
- Arartekoak esku hartzeko eskaera, agenteek kontrol batean izandako jarrerari buruzko salaketa baten harira.
- Poliziako agenteek emandako tratuarekiko desadostasuna.
- Agenteek zirkulazio espediente bat abian jartzeko emandako tratuarekiko desadostasuna.

Administrazioko izapideak:

- Nortasun agiria bideratzeko zailtasunak.
- Kexaren egilea egoiliar delako agiriaren bideraketa konpontzeko eskaera.
- 2001ean Espainiako herritartasuna eskatu eta ebazpena ematen atzeratzea.
- Norberaren herritartasuna berreskuratzeko espediente bat osatzeko zailtasunak.
- Gidabaimen baten indarraldia luzatzeko eskaera ez onartzea.
- Gidabaimena eskuratzeko azterketen emaitza oker jakinaraztea.

Ondarearen gaineko erantzukizuna:

- Soldaduska egin bitartean izandako kalteak zirela-eta, ondarearen gaineko erantzukizunari buruzko espediente bat ez onartzearekiko desadostasuna.

Zirkulazioa:

- Alor honetan jarritako zigorrekiko desadostasuna.
- Zirkulazio arloan eskumena duten administrazioek gauzatutako zigor prozeduraren zenbait ezaugarriekiko (ez erantzutearekiko, dokumentuak ez ematearekiko, zigor prozedura bideratzen atzeratzearekiko, premiatzeko prozeduraren esparruko hainbat irregulartasunekiko,

berme gisa ordaindutako kopuru bat itzultzeko eskatu eta ez ematearekiko eta abarrekiko) desadostasuna.

- Egiten dituzten akten bidez, ordutegiaren kontrolatzaileek izen-abizenak adieraztearekiko desadostasuna.
- Zirkulazio arloan arau bat hautsi eta administrazioak deus ez egitea.
- Atzerrian eskuratutako gidabaimen bat ofizialki onartzeko eskaera.
- Lapurtutako ibilgailu bat udal bulegoetan gorde eta administrazioak jabeari informaziorik ez ematea.
- Garaje baten sarreran ibi bat jartzeko eskaera ez onartzea.

04.2.8. Justizia

Justizia administrazioaren alorrean 16 kexa helarazi zizkiguten, hau da, 2007an helarazi zizkiguten kexa guztien % 3,5.

Honako hau izan zen gaien edukia:

69

Justizia administrazioaren funtzionamendua

Justizia administrazioaren funtzionamenduaren gaineko eskumena Estatuari soilik dagokio eta, ildo horretan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 13. artikulua arabera, arartekoak fiskaltzari edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari igorri behar dizkio Foru Komunitateko justizia administrazioaren funtzionamenduari buruz helarazten dizkieten kexak. Hori, hala ere, ez da eragozpen hartzen dituen kexak urteko txostenaren bidez berariaz aipatu behar izateko.

2007an lau kexa hartu genituen justizia administrazioaren funtzionamenduari buruz. Horietako bi epaileen esku zeuden prozedurak atzeratzeari buruzkoak izan ziren, eta bertze biak, epaiak betearazten atzeratzeari buruzkoak; izan ere, epaileen

ebazpena betearazten atzeratuz gero, litekeena da haren onuradunari onartutako eskubidea ezin erabiltzea. Dena dela, arartekoak deus gutxi egin dezake alor honetan: bertzerik gabe, beharrezkoa baderitzo, zuzemenak egin organo eskudunen aurrean, banakoen eskubidea erabilgarria izan dadin.

Hain zuzen ere, honako kexa hauek hartu genituen alor honetan:

- Epaileen eskuko prozedurak bideratzen behar baino gehiago luzatzea.
- Epaia ematen behar baino gehiago luzatzea.
- Maizter bat kaleratzeko epaia betarazten luzatzea.
- Epaia betearazten luzatzea.
- Epaileen erabaki baten edukiarekiko desadostasuna.

Abokatuen eta elkargo profesionalen lana:

- Abokatu batek epaiketan izandako jarrerarekiko desadostasuna.
- Abokatuen elkargo batek kide baten kontrako zabarkeria salaketa bideratzeko egindako lana ikuskatzea.
- Abokatuen elkargoak hari helarazitako idazki bati ez erantzutea, abokatu baten lan eskasa zela eta.
- Doako laguntza juridikoa lortzeko eskaera bideratzeko moduarekiko desadostasuna.

Erregistroak:

Justizia Ministerioaren mendeko erregistroen funtzionamenduari buruzko kexak Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari igorri genizkion, hark baitu eskumena halako kexak aztertzeko, hots, Estatuko administrazioaren jarduna ikuskatzeko.

Hain zuzen, honako kexa hauek hartu genituen alor honetan:

- Habanako Kontsuletxeko Erregistro Zibilak kubatar batekin ezkonduetako pertsona batek Kuban antolatutako ezkontza erregistratzeko egindako eskaera ez onartzea.
- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez Espainiako herritartasuna lortu eta aldaketa Erregistro Zibil Nagusian erregistratzen atzeratzea.
- Ezkontza bat Erregistro Zibilean erregistratzen behar baino gehiago luzatzea.

Hauteskundeetako prozedura:

2007an, hainbat kexa aurkeztu zituzten hauteskundeetako prozedurari buruz. Zehatz-mehatz, kexak Barrutiko Hauteskunde Batzordearen funtzionamenduari eta, bereziki, hauteskunde mahaiko kide izateko aukeratzen dituzten herritarrei hori jakinarazteko moduari buruzkoak izan ziren:

- Hauteskunde mahaiko kide izateko zozketaren harira, bi haur adingaberen bi gurasoei udal eta foru hauteskundeetako mahaiko kide izatea egokitu zitzaiela eta, Barrutiko Hauteskunde Batzordean aurkeztutako alegazioari idatziz ez erantzutea.
- Barrutiko Hauteskunde Batzordeak hauteskunde mahaitik kanpo uzteko eskatzeko alegazioak onartu ez izana jakinarazteko erabiltzen duen prozedurarekiko desadostasuna.
- Udal eta foru hauteskundeetako mahaiko kideek nor izan behar duten zozkatu eta kexaren egilea lehendakari izendatzeari buruzko kexa.
- Kexaren egilea hauteskunde mahaiko kide izendatu zutela jakinarazteko orria hartzeko moduarekiko desadostasuna, gaztelania hutsez baitzegoen.

04.2.9. Ingurumena

Ingurumen arloan 33 kexa aurkeztu zituzten guztira, hau da, aurkeztu zituzten kexa guztien % 7,38.

Kexa ugari kutsadura akustikoari buruzkoak izan ziren, bereziki, aisialdia emateko lokaletan eta etxabeetan egiten duten zaratari buruzkoak; hain zuzen ere, hamar kexa hartu genituen alor horretan. Gainera, kexa ugari helarazi zizkiguten ibilgailuek karrikan egiten duten zaratari eta baita etxe abereak osasunari kalte egiten dioten baldintzetan izateak dakartzan eragozpenei buruz ere.

Alde horretatik, gero eta herritar gehiagok aurkezten dituzte kexak uste dutelako administrazio publikoek (nagusiki, toki administrazioek) ez dutela modu eraginkorrean esku hartzen kutsadura akustikoari buruzko salaketak ikertzeko eta, hori dela-eta, maiz, arartekoak amaitutzat emandako kexa espedienteei heldu behar die berriz, aipatzen dituzten arazoek konpontzeke jarraitzen dutela eta.

Horregatik, hainbat urtetan egindako txostenen eta, areago, 2006an landutako txosten berezi baten bidez gaia aztertu eta gogoan hartu badugu ere, berriro ere gogoraraziko dugu: administrazioek garrantzi handiagoa eman behar diote zarata txikiagotu edo desagerrarazi beharrari, arazoak bizirik jarraitzen baitzuen 2007an eta konponbide osoa eman behar baitzaio, ingurumen egokia izateko eskubidea ziurtatze aldera.

Azkenik, ingurumen gaien gainean informazioa biltzeko eskubideari buruzko kexak eta herritarrek alor honetako erabakiak onartzen areago parte hartzeko eskaerak ere hartu genituen.

Hona hemen kexen gaien aurkibidea, laburbilduta:

Ingurumen gaietako buruzko informazioa eta ingurumen arloko erabakietan parte hartzea:

- Iruñeko espetxea Santa Lucía – Soltxate muinoan kokatzearen aurkako jarrera, Iruñeko Hiru Antolamendurako Plan Orokorraren era Iruñerriko Hirigintza Arauen arabera, “baso lur naturala” eta “paisaia erreseberba” baita hurrenez hurren.
- Herritar plataforma baten eskaera Izarreibarko jarduera ekonomikoen eremua sortzeko udalez gaindikoko plan sektoriala osatzeko, haren aurkako alegazioak aurkezte aldera.
- Harria ateratzeko harrobi bat instalatzearen aurkako jarrera.
- Toki erakunde bati ingurumen gaietako buruzko informazioa eskatu eta eskaerari ez erantzutea.
- Hainbat jarduera abian jartzeko baimenaren kopia eskatu eta udalak eskaera bideratzeko moduarekiko desadostasuna.

73

Nekazaritza eta abeltzaintza:

- Putreek abeletxe bati erasotzearen ondorioz izandako kalteak zirela-eta, ondarearen gaineko erantzukizunagatik kalte-ordaina eskatu eta ez ematearekiko desadostasuna.
- Udalak ahateak galkatzeko etxalde bat eraiki eta abian jartzeko baimena ematearekiko desadostasuna.
- Kexaren egilearen etxearen alboan abeltzaintza bat izateak dakartzan arazoak.
- Akats bat izan zitekeela-eta abeltzaintza batek kexaren egilearen lurrak hartzen zituelako, okerra zuzentzeko eskatu eta administrazioak eskaerari ez erantzuteagatik kexa.

Kutsadura industrialia:

- Kexaren egilearen etxetik hurbil industria izateak dakartzan eragozpenak, oso kutsagarria baita.

Kutsadura akustikoa:**Aisialdia emateko lokaletako eta etxabeetako zarata**

- Eragozpenak, kexaren egilearen eraikineko bigarren solairuan aisialdia emateko erabiltzen duten “bilera gela” bat dagoela eta.
- Eragozpenak, tabernetan egiten duten zarata eta, hainbatetan, tabernetan sortzen den usaina dela eta.
- Eragozpenak, txabiskeetako jarduna dela eta.
- Eragozpenak, gazteek alokatzen dituzten etxabeetan sortzen den zarata dela eta.
- Zarata Donibane auzoan, gaueko jarduna dela eta.
- Administrazio eskudunak etxabeetako zarataren ondorioz aurkeztutako salaketa bati ez erantzutea.
- Eragozpenak, kexaren egilearen etxearen alboan gasolio galdara bat dagoela eta.

Errepideetako eta garajeetako zarata eta ibilgailuek eta etxe abereek egiten dutena

- Kutsadura akustikoa, bai N-113 errepidean dabiltzan ibilgailuak eta bai kexaren egilearen etxearen alboan dagoen zerbitzugune bateko orubean aparkatzen duten zenbait kamioitako hozkailuak direla eta.
- Zarata eta ingurumenaren kutsadura, garraio zerbitzu publikoko autobus bat motorra martxan dagoela geldi egoten delako bortz minutuz, goizez, ordu laurdenean behin, ordutegira egokitzeko ustez.

- Eragozpenak, Udaltzaingoak karrikatik kentzen dituen ibilgailuak gordetzeko erabiltzen duten etxabe bateko zarata dela eta.
- Eragozpenak, oinezkoendako gaineko pasabideak izatearen ondorioz sortzen den zarata dela eta.
- Kutsadura akustikoa, hainbat karrikatan zirkulazio handia dagoela eta.
- Eragozpenak, txakurrak direla eta.

Naturaguneen babesa:

- Basoko bideetan ibiltzeko baimena eskatu eta ez ematea.
- Vasco-Navarro burdinbideko bide berdearen hondamena Estellerrian.

Sakelako telefonoak:

- Sakelako telefonoak erabiltzeko antenen erradiazioa.

Erlekumeak:

- Administrazioak deus ez egitea, hotel baten aurrealdeko hegaletik hainbat erlekume kentzeari uko egin baitzion.

04.2.10. Herri lanak eta zerbitzu publikoak

25 kexa hartu genituen guztira herri lanen eta zerbitzu publikoen alorrean, hau da, hartu genituen guztien % 5.

Batetik, zazpi kexa herri lanei buruzkoak izan ziren. Batzuk azpiegiturak eraikitzeko proiektuei buruzkoak izan ziren, eta bertze batzuk (gehienak), toki erakundeek karrikak egoera onean kontserbatu eta mantentzeko betebeharra ez betetzeari buruzkoak.

Bertzetik, hamar kexa zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruzkoak izan ziren. Zehatz-mehatz, kexak hainbat zerbitzu publikoren funtzionamendu eskasari buruzkoak izan ziren, hala nola, karriketako argiztapenaren, gas hornikuntzaren eta telekomunikazio zerbitzuen funtzionamendu eskasari buruzkoak.

Azkenik, zortzi kexa izan ziren administrazio kaltetuak, berariazko ebazpen baten bidez edo isiltasunaren bidez, partikularrek lanen ondorioz izan zituzten kalteak eta galerak ordaintzeko eskaera ez onartzeari buruzkoak eta karrikak egoera onean ez kontserbatu eta zerbitzu publiko eskasak emateari buruzkoak. Ikusten dugunez, kexa askotxo helarazi zizkiguten gai horiei buruz.

Hona hemen kexen sailkapena, gaiaren arabera:

04.2.10.1. Herri lanak

- Urak tratatzeko proiektu baten kokalekuarekiko eta hura egiteko lanen diseinuarekiko desadostasuna, kexaren egilearen funts bati kalte egin ziezaioketela eta.
- N-132 eta N-6020 errepideen arteko elkargunean egindako lanekiko desadostasuna.
- Udalerri bateko hirigunea eta auzo bat lotzen dituen errepide baten egoera txarra eta administrazio eskudunak horri buruzko erreklamazioari ez erantzutea.
- Baserri batera joateko bidearen egoera txarra.
- Udal hilerri batean lanak egiteko, hainbat jabetza udalaren ondareari lotzearekiko desadostasuna.
- Linea elektrikoa instalatzeko, kexaren egilearen funts bat desjabetzearekiko desadostasuna.
- Duela 36 urte baino gehiago jabetza bat desjabetzearekiko desadostasuna.

04.2.10.2. Zerbitzu publikoak

- Udalerri bat propanoz hornitzeko beharrezko azpiegiturak egin ondoren, gasa etxeetara banatzen behar baino gehiago luzatzea.
- Informazio eskaera, kexaren egileak betebeharra ote duen saneamendu, argiztapen eta zolatze zerbitzuei bere etxean sartzan uzteko, kontuan izanik urbanizatu egin daitekeen orube batean bizi dela.
- Energia elektrikoaz hornitzeko zerbitzuari jabetza aldatzeko eskatu eta ebazpenik ez ematea.
- Udal hilerrian musulmanak ehorzteko leku bat zedarritzeko eskaera.
- Udalerri bateko telefono linearen funtzionamendu eskasa.
- Nafarroako Foru Komunitatean banda zabala instalatzeko azpiegitura plana oker gauzatzea.
- Toki erakunde batek oker ematea posta zerbitzua.

04.2.10.3. Ondarearen gaineko erantzukizuna

- Hegazkin konpainia baten ondorioz izandako atzerapenengatiko kalteak.
- Jabetza partikular batean izandako kalteak, urak hartzeko lanak egin eta etxebizitza batean sartzeko harbidetako zoladura zati bat txikitzeagatik.
- Kalteak jabetza partikular batean, udalak bide bat konpontzeko lanak egiteagatik.
- Espaloiaren egoera txarraren ondorioz erori zela-eta, kexaren egileak kalte-ordaina eskatu eta ez ematea.
- Espaloiaren egoera txarraren ondorioz erori zela-eta, kexaren egileak kalte-ordaina eskatu eta ez ematea.
- Karrikaren egoera kaskarra zela-eta, ibilgailu batean izandako kalteak.
- Errepidea gutxi argituta zegoela-eta, inor harrapatu zutelako kalte-ordaina eskatu eta ez ematea.

04.2.11. Osasuna

Osasun arloan 34 kexa aurkeztu zituzten, alegia, 2007an arartekoari helarazi zizkieten kexa guztien % 7,6.

Ezin ukatuzkoa da, herritarren arabera, arartekoak osasun arloan esku hartu behar duela gehienbat, bertzeak bertze, baina aipatzekoa da, azken bi urteotan, alor honetako kexen kopuruak nabarmenki egin duela behera, 2005ean hartu genituen kexa guztien % 12,8 izan baitziren.

Alor honetako kexa gehienak osasun zerbitzu jakin batzuk zerbitzu publikoen esparrukoak ez izateari eta osasun administrazioak ordaindutako dirua itzultzeari uko egiteari buruzkoak izan ziren, baina kexa ugari izan ziren osasun sistemaren erabiltzaileen eskubideei buruz ere.

Eduki orokorraren arabera, hona hemen osasun arloko kexen zerrenda:

Osasun zerbitzuak eta ordaindutako dirua itzultzea:

- Zerbitzu, protesi eta botika jakin batzuk Osasunbideko zerbitzuen eta laguntzen esparrukoak ez izatea eta osasun produktuok guztiz ordaindu behar izateagatik karga ekonomikoa.
- Ordaindutako dirua itzultzeari uko egitea, dela izandako osasun laguntza edo erositako osasun produktua Osasunbideko zerbitzuen eta laguntzen esparrukoa ez delako, dela kexaren egileak ez zituelako bete ordaindutako dirua itzultzeko eskubidea izateko beharrezko eskakizun formalak.
- Egindako gastua egiaztatu eta ordaindutako dirua itzultzeko, faktura aurkeztu beharrekiko desadostasuna.
- Osasunbideak ihesak xurgatzeko gailuak neurri handiago batean finantzatzeko eskaera, gaur egin erosketaren kostuaren % 40 ordaindu behar baita.

- Kirurgia plastikoa ordaintzeko laguntza eskatu eta ez ematea, ez zutelako medikuek agindu.

Laguntza orokorra:

- Laguntza psikiatriko eskasa.
- Medikuek senda agiria ematerekiko desadostasuna.
- Antzutasunaren aurkako tratamenduak hobetzeko eskaera.
- Drogazale bat errehabilitazio klinika batean bizi ezina eta, horren ondorioz, tratamendua ospitaletik kanpo izan beharra.
- Medikuen ustezko oker bat.

Osasun publikoa:

- Familiako mediku baten kontrako salaketa, erre egiten duelako kontsultak irauten duen bitartean, osasun etxean.
- Higiene eta osasun arrazoiak direla-eta, helduak haurren igerilekuetan sartzeko debekuekiko desadostasuna, igerilekuan jolasten diren haurrak hurbiletik zaindu nahi baititu kexaren egileak.

Osasun sistemaren erabiltzaileen eskubideak:

- Beharrezko osasun laguntza lortzeko gehiegizko atzerapenengatiko salaketak.
- Kontsulta gela ibiltari batean intimitaterik ez izatea, erizain bat zegoelako.
- Erditzeko gelan intimitaterik ez izatea.
- Historia klinikoan ageri diren zenbait datu kliniko babestu datu horiek eskuratzeko baimenik ez zuen bertzeri emateagatiko salaketa.
- Zegokion zerbitzuak egindako txosten klinikoaren edukiarekiko desadostasuna.
- Laguntza prozesuak irauten zuen bitartean informazio kliniko eskasa ematea.

- Pediatraz eta familiako medikuz aldatzeko eskaera.
- Familiako aurreko medikuak eskatu zuela-eta, familiako medikuz aldatzera behartzea.

04.2.12. Enplegua, gizarte segurantza eta atzerritarrak

- 28 kexa aurkeztu zituzten guztira 2007an alor honetan, hots, aurkeztutako kexa guztien % 6,26.

04.2.12.1. Enplegua

Alor honetako kexak enplegua kudeatzen duten erakunde autonomoen lanari, lanbide arteko gutxieneko soldadari eta lan ezbeharrei buruzkoak izan ziren.

Hain zuzen ere, honako hau izan zen hartutako kexen edukia:

- Administrazioak informazio eskasa ematea langabezia saria bideratzeari buruz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hainbat lanpostu lortzeko ezarritako irizpideekiko desadostasuna eta prestakuntza ikastaroen eskasia.
- Espetxeetako osasun zerbitzua autonomia erkidegoei eskualdatzeko eskaera, Osasun sistema nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko seigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenarekin bat.
- Enplegu bulego baten jarrerarekiko desadostasuna, udal administrazio batean liburutegiko arduradun aritzeko eskaintza bati zegokionez.
- Iruña eta Logroño arteko autobiarenean eraikuntzan gertatutako lan ezbehar baten ondorioz, administrazioak erabateko ezgaitasuna onartu baina, istripua gaizki ikertu zutela-eta, kexaren egileak zegokion kalte-ordaina ezin eskatzea.
- Lanbide arteko gutxieneko soldata handitzeko eskaera.

04.2.12.2. Gizarte segurantzza

Alor honetako kexa gehienak pentsioak ezberdin tratatzeari, pentsioari berari eta administrazioak ezgaitasunen gainean ematen dituen ebazpenei buruzkoak izan ziren; pentsioei beraiei dagokienez, zenbaitetan, pentsioaren zenbatekoa txikiagoa da pentsiodunak lanean jardun duen urteen eta ordaindu dituen kotizazioen arabera kalkulatzen duena baino.

Laburbilduta, hona hemen kexarik esanguratsuenen gaien aurkibidea:

Pentsioak :

- Lanbide arteko gutxieneko soldata eta zenbait pentsio parekatu baina alarguntasun pentsioa ezberdin tratatzearekiko desadostasuna.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua xedatzen duen zerga kenkaria pertsona gehiagok aplikatu ahal izateko eskaera, pentsioak oso txikiak baitira.
- Kexaren egileari ordaintzen dioten pentsioa eta lanean jardun duen denbora bat ez datozen eta zenbatekoa baldintza egokietan bizitzeko nahikoa ez den ustea.
- Gizarte Segurantzaren jarrerarekiko desadostasuna, kexaren egilearen amaren zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruari zegokion pentsioa izoztu baitzuen, eta laguntza bat eskatu eta ez ordaintzea.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko Probintziako Zuzendaritzaren jarrerarekiko desadostasuna, kexaren egilearen semeari jakinarazi baitzion ez zegokiola kobratutako zurtasun pentsioa, nahiz eta bere garaian diru-sarrerei buruzko dokumentu guztiak aurkeztu zituen erakunde kudeatzailearen aurrean.
- Administrazioak ez jakinaraztea kexaren egilearen senide baten pentsioa aldatu egin zela.

- Erretiro pentsioa hartzeko kotizatu beharreko gutxieneko denborarekiko desadostasuna, kexaren egileak ama zaintzeko utzi baitzion lan egiteari eta uste baitu kontuan izan beharko litzatekeela hori.
- Peruko administrazioak Gizarte Segurantzak helarazitako eskaerari ez erantzutea, Perun lan zerbitzuak eman izana onartzeko.
- Langabezia saria kapitalizatzegatik, behar izan gabe ordaindutako laguntzen zenbatekoa itzultzeko eskaerarekiko desadostasuna.
- Pentsioak berrikusteko eskaera.
- Kexaren egileari ordaintzen dizkioten pentsioak arautzeko oinarriarekiko desadostasuna.
- Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi bat sinatzeari buruzko informazio eskaera.

Ezgaitasunak onartzeko prozesuak:

- Ezgaitasun iraunkorra onartzeko eskaera ez onestearikiko desadostasuna.
- Ezgaitasun iraunkorra onartzeko eskaera ez onestearikiko desadostasuna.

04.2.12.3. Atzeritarrak

Alor honetako kexak lan egiteko baimenak emateko atzerapenei buruzkoak izan ziren. Halaber, alor honetako kexen bidez, herritarrek desadostasuna adierazi zuten Erkidegoko araubidearen esparruko kide izateko txartelak eta bisak eskatu eta eman ez izanarekin.

Gaien gaineko eskumena nori dagokion kontuan hartuta, kexa horiek guztiak Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari igorri genizkion.

Hona hemen kexen edukia, laburtuta:

- Bertzeren kontu lan egiteko baimena ematen atzeratzea.
- Aitari Erkidegoko araubidearen esparruko kide izateko txartela emateko eskaera, perutarra baita.
- Espainiak Bukaresten duen enbaxadak kexaren egilearen zenbait senideri bisa emateko eskaera ez onartzearekiko desadostasuna.
- Espainiak Vietnamen duen enbaxadak kexaren egilearen senide bati bisa emateko eskaera ez onartzearekiko desadostasuna.
- Lan egiteko baimenik ez duen atzerritar bat kexaren egilearen etxean aritzen delako, Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako Probintziako Zuzendaritzak arau-hauste bati buruz egindako aktarekiko desadostasuna.

04.2.13. Hirigintza eta etxebizitza

83

2007an, 71 kexa helarazi zizkiguten hirigintza eta etxebizitza gaiari buruz; hots, aurkeztutako kexa guztien ia % 16 hirigintzari eta etxebizitzari buruzkoak izan ziren.

Erran bezala, arartekoak alor honetan hartu zuen kexa gehien.

04.2.13.1. Hirigintza

Hirigintzari buruzko kexen kopurua 33koa izan zen. Batzuek udal planen onespena edo bideraketa zuten gaitzat, proiektuak xedatzen zuenaz bestela onartu baitzituzten, eta bertze batzuek, hirigintzaren kudeaketa: katastroaren aldaketak, zerbitzu publikoak emateari uko egitea, urbanizazio gastuak, hirigintzari buruzko itunak ez betetzea eta informazioa emateari uko egitea, bertzeak bertze.

Nolanahi ere, legedia behar bezainbat ez errespetatzeari eta hirigintza aldetik diziplina eskasa izateari buruzko kexak izan

ziren ugariak hirigintza arloan. Ildo horretan, kexa gehienak udalek laxo jokatu eta hirigintza arloan egiten diren zenbait lege-hauste onartzeari, hirigintza lanak egiteko beharrezko baimenak eskatu eta ez emateari, eraikuntza jakin batzuk aurri egoeran edo antolamendutik kanpo zeudela adierazteari eta partikularrek lur publikoak okupatzeari buruzkoak izan ziren.

Zehazki, honako gai hauek planteatu zizkiguten hirigintzari buruzko kexek:

Hirigintzaren antolamendua:

- Herritarrek parte hartzeko aukera dutela-eta plan partzial bat eta xedatzen duen errepide sistema orokorra behin betiko onartu aurretik, arartekoa herritar plataforma baten eta administrazioaren artean bitartekari aritzeko eskaera.
- Lur publiko baten kalifikazioa eta erabilera aldatu eta pribatu bihurtze aldera, arau subsidiarioen aldaketa bat bideratu eta onartzeko eskatu eta udalak eskaera ez onartzea.
- Udal plan orokorraren aldaketa, bi solairuko eraikin bat zegoen lekuan sei solairuko eraikin bat egiteko, aurrez zeuden hainbat etxebizitzaren aurrez aurre eta hurbil.
- Udal plan bat eta kexaren egilearen zenbait lurretan eraiki ahal izatea behin betiko onartzearen aurkako jarrera, eta onespeneraren kontra jarritako gorako errekurtsio bati ez erantzutearen kontrakoa.
- Antolamenduari buruzko arau subsidiarioen aldaketa bat behin-behinean onartzearen aurkako jarrera, testu berriak xedatzen baitu mediku kontsulta bat kokatzea berdegune batean.

Hirigintzaren kudeaketa:

- Funts bat banatzeko, udal katastroan aldaketa bat egiteko eskabideko sinadura faltsua izatea.

- Kontzejuak uko egitea urbanizazio baten zati bat eman eta horri buruzko akta egiteari eta, zehazki, urbanizazioa elektrizitatez hornitzeko kutxatilen arteko kanalizazioak egiteari.
- Udalak urbanizazio gastuak hirigintzako exekuzio unitateen jabeen artean banatzeko moduarekiko desadostasuna.
- Kontzejuak eta kexaren egileak (partikular batek) plan partzial bat gauzatzeko itundutako urbanizazio baldintzak (lurra eta hondakinak biltzea) ez betetzea kontzejuak.
- Hirigintza gaiei buruzko informazioa lortzeko, udalak aurrez eskabide bat aurkeztu behar izatea xedatzearen aurkako jarrera.

Hirigintza arloko legedia eta diziplina errespetatzea:

- Hirigintza arloan arau-hauste arin bat egiteagatik, udalak zigor administratiborik larriena jarri izana berrikustea.
- Kexaren egilearen etxebizitzaren ondoko sailean etxebizitza eraikin bat egitearekiko desadostasuna, arau subsidiarioek baimentzen dutena baino garaiagoa baita.
- Udalak partikular bati lur publiko bat ixteko lanak egiteko baimena ematearekiko desadostasuna.
- Udalak etxabeen erabilera legeztatzeko eskatu eta eskaera ez onartzea.
- Udalak karrikatzat hartzen den leku batean lanak egiteko baimena ematearekiko desadostasuna eta, ondoren, katastroko akats bat zuzentzea, lur publiko bat jabetza pribatutzat kalifikatzeagatik.
- Edateko uraz hornitzeari uko egitea.
- Udalak lanak egiteko baimena ez ematea.
- Etxebizitzak lehenengoz okupatzeko eta irekitzeko baimena emateari uko egitea.
- Udalak deus ez egitea igerileku batek eta garaje batek legez kontra ez funtzionatzeko.

- Legez kontrako eraikuntza batek hirigintza arloko antolamendua urratzen duela-eta, ordena berrezartzeko eskatu eta udalak deus ez egitea.
- Kexaren egilearen etxearen alboko herri lur batean egindako eraikuntza.
- Kexaren egilearen lur baten ondoko sailean etxebizitzak egitea legez kontra.
- Kexaren egilearen etxebizitzaren zimenduetan izandako kalteak, berak hirigintza arloko antolamendua urratu eta udalak ordena berrezarri behar izan baitzuen.
- Enpresa bati karrika okupatzeko emakida bat esleitzearekiko desadostasuna.
- Finkatu gabeko hiri lurzoruko sail baten egoera hirigintza aldetik eta lurra finkatzeko ezintasuna, legezko eskakizunak direla eta.
- Alkateak ahoz emandako aginduarekiko desadostasuna, kexaren egilea udalaren baimenik gabe egiten ari zen lan bat geldiarazteko.
- Kexaren egileak eraikin bat aurri egoeran dagoela adierazteko eskatu eta udal teknikariek horri buruzko txosten tekniko bat egitea.
- Udalak aurri fisikoko egoeran zegoen eraikin bat eraisteko agindu eta oinordekoari zenbateko jakin bat erreklamatzearikiko desadostasuna, erreklamaturako zenbatekoa handia baita gainera.
- Hirigintza arloko betebeharrak betetzeari dagokionez, udalak ezberdin jokatzeari bere baimenik gabe egindako etxebizitza bat legeztatzeke.
- Etxebizitza bat lehenengoz erabili edo okupatzeko baimena eskatu eta udal administrazioak ez erantzutea.
- Bide publiko baten okupazioa.
- Erabiltzen ez zelako lagatako lur bat itzultzearekiko desadostasuna.
- Urbanizatu ezin daitekeen lur batean familia batendako etxebizitza bat egitea.

04.2.13.2. Etxebizitza

Herritarrek 38 kexa aurkeztu zituzten etxebizitza arloan 2007an, eta gehienak alokatu eta, batez ere, erosteko etxebizitza babestuen esleipenari buruzkoak izan ziren. Hain zuzen ere, kexa batzuen egileek desadostasuna adierazi zuten gaur egun etxebizitzak esleitzeko erabiltzen den baremoarekin eta Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeak etxebizitza babestu baten esleipendun izateko ezartzen dituen eskakizunekin.

Halaber, kexa ugari hartu genituen etxebizitza erosi, alokatu eta berritzeko laguntza ekonomikoei buruz, eta baita eraikuntzaren akatsei, ikuskatze lana egin beharrari eta bizigarritasun zedulei buruz ere.

Hona hemen alor honetako kexen laburpena:

87

Etxebizitza babestuen esleipena:

- Prezio tasatuko etxebizitza bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, eskatzaile bat ez zelako bizi izan Nafarroan bertan denboraldi batean.
- Alokatzeko esleitutako babes ofizialeko etxebizitza bat erosi ahal izateko aukera onartzeko eskaera.
- Etxebizitza babestuz aldatzeko eskaera, ez baita egokia familiako zenbait kide batetik bertzera ibiltzeko beharrei erantzuteko.
- Etxebizitza babestu bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, eskatzailearen urteko diru-sarrerak ez zirelako legediak ezartzen duen gutxienekoaren adinakoak.
- Prezio tasatuko etxebizitza bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, esleipendunak ez zuelako bete etxebizitza aurreko bortz urteetan ez eskualdatzeko eskakizuna.

- Erosteke babes ofizialeko etxebizitzak esleitze aldera, denboraldi jakin batean Nafarroako udalerriren batean edo hainbatetan jarraituki erroldatuta egoteagatik puntuak ematearekiko (Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeko 22. artikulua ezartzen duen irizpide batekiko) desadostasuna.
- VINSAk alokatzeko esleitutako etxebizitza babestua baino handiagoa izateko eskaera, esleipenduna genero indarkeriaren biktima dela eta.
- Erosteke etxebizitza babestuak esleitze aldera, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeko 22. artikulua ezartzen duen irizpide batekiko desadostasuna, 35 urtetik beherakoei mesede egiten baitie.
- Erosteke etxebizitza babestuak esleitzeko ematen diren puntuei dagokienez, Nafarroako udalerrietan erroldatuta egotea kontuan hartzeko eskaera, aurreko ekitaldian bezala.
- Esleitutako etxebizitza babestu bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea eta, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeko 22. artikulua ezartzen duen irizpide batekiko (“ume baten edo gehiagoren gurasobakarreko familiaburu izateagatik” puntuak ematearekiko) eta hurrengo ekitaldian etxebizitza eskatzaileen zentsutik kanpo uztearekiko desadostasuna.
- Erosteke prezio tasatuko etxebizitza bat esleitzeko emandako puntu kopuruarekiko eta aplikatu beharreko legezko hainbat irizpiderekiko (Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeko 22. artikulua erekiko) desadostasuna.
- Erosteke 1.800 etxebizitza babestu eta alokatzeko 270 etxebizitza babestu esleitzearen esparruan, Vinsa sozietate publikoak 2007ko ekitaldian ustez egindako hainbat irregulartasuni buruzko salaketa.
- Esleitutako babes ofizialeko etxebizitza bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, eskatzaileak hasiera

batean genero indarkeriaren biktima zela alegatu baina ez zelako eta eskabidea behar bezala bideratu ez zuelako.

- Erosteke babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzeko prozesuaren esparruan, administrazioak kexaren egilearen etxebizitza eroste aldera, hari emandako balioarekiko desadostasuna.
- Esleitutako etxebizitza babestu bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, kexaren egilearen ezgaitasun maila ez dela-eta egungo etxebizitza desegokitizat hartzeko behar bezain handia.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, esleipenduna bere ezgaitasun mailara egokituta ez dagoen etxebizitza baten jabe baitzen.
- Zegokion zerrendan atzean zeuden eskatzaileek baino lehen bertze etxebizitza bat ezin aukeratzeagatik, esleitutako etxebizitza babestuari uko egiteko prozedurarekiko desadostasuna.
- “Ume baten edo gehiagoren gurasobakarreko familiaburu” izateagatik, erosteke babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko puntuak ematearekiko (Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeko 22. artikuluekiko) desadostasuna.
- Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko Foru Legeko 22. artikuluek etxebizitza babestuak esleitzeko ezartzen duen irizpide batekiko desadostasuna, Nafarroako udalerriren batean edo hainbatetan jarraituki erroldatuta egon beharra xedatzen baitu.
- Nafarroako Gobernuak esleitutako babes ofizialeko etxebizitza bat erosteke ematen duen zenbatekoarekiko desadostasuna, kexaren egileak banku batekiko zorra kitatzeko erabili behar baitzuen erdia, hipoteka mailegua eta zorra bateratzea zirela eta.
- Etorkizunean etxebizitza babestuen eskaintza publikoak egiten dituztenean, kexaren egilearen egoera kontuan hartzeko eskaera, familiaren etxebizitzaren % 20ren jabe

baita –etxebizitza gurasoena zen lehen– eta lehiaketa publikoetatik kanpo geratu baitzen horregatik.

Etxebizitza erosi, alokatu edo berritzeko laguntza ekonomikoak:

- Laguntza bat eskatzea, etxebizitzaren alokairua ordaindu eta kexaren egilearen beraren eta familiaren egoerari aurre egiteko.
- Eskualdeko Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoak eta etxebizitza gaien gaineko eskumena duen administrazioak elkar ez ulertzea eta elkar komunikatzeko bideak eskasak izatea, etxebizitza bat berritu eta alokagai jartzeko diru-laguntza bati buruzko espedientea bideratzeari dagokionez.
- Alokatzeko etxebizitza babestu batean bizi diren guztien diru-sarreretan oinarrituta, etxebizitzaren gaineko errenta ordaintzeko emandako diru-laguntzaren zenbatekoa txikiagotzearen aurkako jarrera
- Familia ugari bati babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko diru-laguntza emateari uko egitea, familia ugaria dela adierazten duen txartela iraungita zegoelako.
- Prezio tasatuko etxebizitza baten esleipendunaren urteko diru-sarrerak lege ezarritako gehienekoak baino handiagoak direla-eta, etxebizitza erosteko diru-laguntza publiko bat eman ziotelako aipamena ezabatze aldera, etxebizitza salerosteko sinatutako kontratua aldatzearen aurkako jarrera.

Bizigarritasun zedulak:

- Administrazioak bizigarritasun zelula emateko nahitaezko baldintzak betetzen zirela ez egiaztatzea eta emandako etxebizitzaren eraikuntzan akatsak antzematea.
- Iruñeko Alde Zaharreko eraikinei bizigarritasun zedulak eman eta aurrez zituztenak berritzeari dagokionez,

bizigarritasun baldintzak arautzen dituen foru dekretu berriaren ondoriozko arazoak.

Eraikuntzaren akatsak:

- Administrazioak esku hartzeko eskaera, esleitutako babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzan egindako akatsak direla eta.
- Eraikin bat berritzeko lanetan gabezia teknikoak izatea eta udalak deus ez egitea salaketa egiaztatzeko.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikin baten eraikuntzan akatsak izatea eta etxebizitza gaien gaineko eskumena duen administrazioak deus ez egitea jabeen erkidegoak hainbat salaketa aurkeztu ondoren.
- Kexaren egileari esleitu zioten babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzan akatsak izatea.

Etxebizitzak ikuskatzea:

- Ikuskatze lanak egin eta kexaren egileari buruz zigor espediente bat abiaraztearekiko desadostasuna, babes ofizialeko bere etxebizitza okupatu ez zuela eta.

Etxeko bizi baldintzak:

- Ezgaitu batek bere garaian hari eta amari esleitu zieten babes ofizialeko etxebizitza erabiltzeko ezintasuna, haien arteko gatazkak direla eta.
- Kexaren egilearen beraren eta familiaren egoerari buruzko salaketa, haien eraikina egituratzeko lanak egiten ari baitziren eta, osasun arazoak zirela-eta, ezin baitzuten aldatu udalak diruz lagundutako alokairu baten trukean eskaini zien bere etxebizitza batera.
- Toki erakunde batek gizarte laguntzako etxebizitza baten alokairua indargabetzearekiko desadostasuna.

04.2.14. Eskubideak sustatzea, administrazio publikoekin harremanetan jartzen diren herritarren eskubideak bermatzea

19 kexa helarazi zizkiguten alor honetan, eta kopuru hori 2007an hartu genituen kexa guztien % 4,3 izan zen, 2006koaren berdina ia-ia.

Askotariko kexak sartzan ditugu multzo honetan, hala nola, informazioa lortzeko eskubide orokorrari, administrazioaren zentroetan eta bulegoetan ibiltzeko eskubideari, laguntza egokia lortzekoari, administrazioak erantzun egin beharri (bestela erranda, administrazioaren isiltasunari), herritarren parte hartzeari, administrazio publikoen gardentasunari, berme sistemak sortzeari eta herritarren eskubideak sustatzeko bertze neurri batzuei buruzkoak.

Alde horretatik, nabarmendu beharra dago administrazio guztiek, dagokion epean, herritarrak informatu eta aurkezten dituzten eskaera eta helegite guztiak ebazteko betebeharra dutela. Arartekoak hainbat ebazpenen bidez gogorarazi izan duenez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. g) artikulua administrazio publikoengandik informazioa biltzeko eskubidea ematen die herritarrei. Bestalde, sobera ezaguna da eta alferrikakoa dirudi oroitaraztea baina, badaezpada ere, gogora ekarriko dugu badela oinarritzko arau klasiko bat administrazio prozedurari buruz: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluaekin eta hurrengoekin bat, administrazio publiko guztiek berriaz ebatzi beharra herritarrek egiten dizkieten eskaera guztiak. Arau horietatik ondorioztatzen denez, herritarrek eskubidea dute administrazioari eskaera bat egiteko eta administrazioak dagokion prozedura abian jarri eta eskaeraren edukiari zehatz-mehatz erantzun diezaion.

Erran bezala, arau horiek betebeharra ezartzen diote egiaz administrazioari, herritarrek egiten dizkioten eskaerak ebazteko, eta betebeharrak, adierazgarri hutsa ez ezik, benetako bermea ere bada herritarren ikuspegitik. Hainbertzeraino, Legeak ez du salbuesten administrazioa betebeharrak betetzetik ezta berriazko ebazpena emateko epea amaitzen denean ere. Bi ondorio atera ditzakegu horretatik guztitik: batetik, administrazioaren isiltasuna administrazioari ex lege ezarritako betebeharrak ez betetzearen adierazlea baino ez da eta, bertzetik, administrazioa egindako eskaera ebaztera behartuta dago, berriazko ebazpena emateko jartzen duen epea iragan ostean ere.

Hain zuzen ere, hori guztia gogora ekarri dugu, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 23.2. artikulua Nafarroako egokitzen dizkion egitekoen artean, bereziki gailentzen delako "Foru Administrazioari zuzendutako eskaerak eta errekursoak hark, behar den denboran eta moduan, berriaz ebaz ditzan" zaintzea; horixe da erakundearen eginkizun nagusietako bat.

93

Nolanahi ere, bada datu pozgarririk: Nafarroako administrazioek erantzunik edo informazioa ez emateagatik helarazten dizkiguten kexen kopuru txikia; izan ere, 2007an hartu genituen kexa guztien % 4 ere ez ziren izan horren ondorio. Datu hori are esanguratsu eta pozgarriagoa da kontuan hartuz gero administrazio ugari daudela Nafarroan: departamentuak, erakunde publikoak, sozietateak, fundazioak, udalak, mankomunitateak, kontzejuak, elkargo ofizialak, sor-markak, bestelako erakunde publikoak... Guztira, ia 700 administrazio ditugu. Hortaz, erran daiteke administrazioek bete egiten dutela, oro har, herritarrei erantzuna eta informazioa emateko betebeharra. Dena dela, horrek ez du erran nahi horretarako epeak ahal bezainbat laburtu ezin daitezkeenik, teknologia berriak erabiltzen hasiz eta erabilera areagotuz bertzeak bertze.

Zehatz-mehatz, honako hauek izan ziren herritarrek alor honetan aurkeztutako kexen gaiak:

Informazioa lortzeko eskubidea eta administrazioen betebeharra erantzuteko:

- Nafarroako Administrazio Auzitegian eta zegokion udalean aurkeztutako helegite baten bideraketari buruzko informaziorik eza.
- Nafarroako Administrazio Auzitegiak eskatutako dokumentuak emateari uko egitea.
- Toki erakunde bati onartu zituen erabakiei eta aurrekontuei eta bileretako aktei buruzko informazioa eskatu eta ez erantzutea.
- Babes publikoko etxebizitza baten eraikuntzaren egoerari buruzko informazioa eskatu eta ez erantzutea.
- Langile batzorde batek toki erakunde bati lanpostuei, langileen antzintasunari, lan istripuei eta bertze zenbait gairi buruzko informazioa eskatu eta ez erantzutea.
- Nafarroako toki erakundeetako idazkariek eta ikuskatzaileek eskaera bat egin eta ebazpenik ez ematea.
- Nekazaritza ganberako langile batek ordaindutako kotizazioei buruzko informazioa eskatu eta ez erantzutea.
- Udalari zenbait herri ondasunen egoerari buruzko informazioa eskatu eta ez ematea.
- Eraikin historiko bat eraisteari buruzko informazioa eskatu eta udalak ez erantzutea.
- Kutsadura akustikoa amaiarazteko eskaera bat ez erantzutea.
- Kexaren egilearen senitarteko baten jaiolekua ikertzeko beharrezko informazioa lortzeko eskubidea.

Herritarren parte hartzea eta gardentasuna :

- Kontzeju bateko kontu orokorrei buruzko informaziorik eza.
- Alkate baten ustezko jardun irregularrari buruzko salaketa.
- Hauteskunde administrazioaren kontrako salaketa, hautagai bat legez kanpo onartzeagatik.

04.2.15. Bestelakoak

Aurreko ataletan sartzen ez diren askotariko zenbait kexa aipatuko ditugu atal honetan.

Atal honen ezaugarri nagusia da bazterrekoa dela nolabait arartekoaren lanaren aldean: zer gairi buruzkoak diren zailak direla-eta sailkatzen, multzo honetan sartzen ditugu arartekoaren lana antolatzeko erabiltzen ditugun alor nagusietan nekez sartzen diren kexak. Horrexegatik, eta multzo honetako kexen edukia askotarikoa delako, zaila da alor honetako gaien barne egituraketa egitea, eta gai jakin batzuk bertzeen aldean gailentzea.

2007an lau kexa hartu genituen alor honetan eta, nagusiki, udalerrietako eta kontzejuetako hautetsien jokabideari buruzkoak izan ziren –hain zuzen ere, hiru kexa hartu genituen horri buruz– ; bertze kexa, gaia bera dela-eta, bertze multzoetan sartu ezin den arazo juridiko pribatu bati buruzkoa izan zen.

95

Hona hemen alor honetako kexen laburpena:

- Jarauntsi batekiko desadostasuna.
- Kontzeju bateko lehendakariak lanik ez egitea.
- Kontzeju bateko lehendakariaren jarrerak eragindako ondoeza.
- Alkate batek herritarrekin behar ez bezala jokatzeari.

05 _ ebazpenak

2007

05 _ ebazpenak



2007

III. KAPITULUA RESOLUCIONES

05.1. EBALUAZIO OROKORRA

Arartekoak 64 gomendio, legezko betebeharren 77 gogorazpen eta 29 iradokizun egin zituen 2007an; hau da, 170 ebazpen eman zituen, 159 kexa espedienteren harira.

Ebazpenen kopurua eta haiei dagozkien kexa espedienteen kopurua berdina ez izatea bi arrazoiren ondorio da nagusiki: batetik, litekeena da, ikerlanaren arabera, kaltetutako administrazioari hainbat gomendio, iradokizun eta gogorazpen egitea, kexa espediente bakarraren esparruan; bertzetik, baliteke kexa espediente bakarraren esparruan administrazio bati baino gehiagori gomendatu, iradoki edo gogoraztea legezko betebeharrak bete behar dituela.

99

Honako taula honek egindako gomendioen, legezko betebeharren gogorazpenen eta iradokizunen kopurua adierazten du, gaiaren arabera sailkatuta:

ALORRA	Legezko		2007	Kexa	
	Gomendioa	betebeharren gogorazpena			iradokizuna
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	1	3	0	4	4
Gizarte Ongizatea	7	2	4	13	12
Kultura, Kirola, Gazteria eta Elebitasuna	3	1	0	4	3
Eskubideen Sustapena	0	9	0	9	9
Hezkuntza Eta Irakaskuntza	1	1	0	2	2
Funtzio Publikoa	6	12	8	26	26
Ogasuna	2	3	2	7	7
Zirkulazioa Eta Barne Arazoak	2	0	0	2	2
Justizia				0	
Ingurumena	12	17	1	30	25
Herri Lanak Eta Zerbitzuak	3	9	2	14	14
Osasuna	15	6	5	26	25
Lana, Gizarte Segurantza eta Atzeritarak	0	0	0	0	0
Hirigintza Eta Etxebizitza	12	14	7	33	30
Bestelakoak	0	0	0	0	0
GUZTIRA	64	77	29	170	159


Guztira, sortu zenetik, 2001etik, erakundeak 536 kexa espedienteren harira egin ditu gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak, eta hirigintza eta etxebizitzaren alorrekoak, osasun arlokoak, ingurumen arlokoak eta gizarte ongizatearen alorrekoak izan dira ugarietak –hurrenez hurren, 82, 77, 62 eta 56–, honako taula honetan ikusten denez:

ALORRA	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	GUZTIRA
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	5	4	2	3	2	4	23
Gizarte Ongizatea	3	3	13	7	7	11	12	56
Kultura, Kirola, Gazteria eta Elebitasuna		7	8	9	4	5	3	36
Eskubideen Sustapena						4	9	13
Hezkuntza eta Irakaskuntza		5	9	5	9	4	2	34
Funtzio Publikoa	2	5	4	3	3	5	26	48
Ogasuna	4	2	7	4		4	7	28
Zirkulazioa eta Barne Arazoak	2	5	5	2	1	5	2	22
Justizia			2	2				4
Ingurumena	2	3	6	8	7	11	25	62
Herri Lanak eta Zerbitzuak	2	5	7	7	4	2	14	41
Osasuna	1	3	10	12	15	11	25	77
Lana, Gizarte Segurantza eta Atzeritarrak	1					1	0	2
Hirigintza Eta Etxebizitza	4	4	14	8	9	13	30	82
Bestelakoak		1	2	1	3	1	0	8
GUZTIRA	24	48	91	70	65	79	159	536

2007ko abenduaren 31rako, administrazio kaltetuek 115 espedienteren harira emandako ebazpenei erantzun zieten, arartekoak ebatzi zituen 159en artean.


- Administrazioak erakundeak emandako 93 ebazpen onartu zituen.
- 22 proposamen, berriz, ez zituen onartu.
- Ekitaldiaren bukaeran amaitutzat emateke zeuden espedienteren kopurua 44koa zen.

2007an emandako ebazpenak



● Onartutakoak ● Onartu gabekoak ● Erantzunaren zai

2007an emandako eta erantzundako ebazpenak




● Onartutakoak ● Onartu gabekoak

Ikusten denez, administrazioak 2007an emandako ebazpenen % 58 onartu zituen berariaz, eta % 14ri ezezkoa eman zien. Ebazpenen gainerako % 28ari, berriz, ez zien erantzunik eman, 2007ko abenduaren 31 baino lehen behinik behin.


Dena dela, abenduaren 31n erantzuteke zeuden ebazpenak alde batera uzten baditugu –guztiz normala da, ez baitakigu administrazioak zer erantzun emanen duen– eta erantzun egin zituen ebazpenak (nahiz onartu, nahiz ezetsi egin zituen gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak) bakarrik hartzen baditugu kontuan, administrazioak arartekoaren erabakien % 81 onartu zituen, berariaz eman zituen erantzunen antzeko kopurua.

Jarraian, administrazioak ebazpen mota bakoitza zenbateraino onartu zuen ageri da, ehunekotan; hau da, zenbat gomendio, legezko betebeharren gogorazpen eta iradokizun onartu zituen kexa kopuruaren aldean (ez emandako ebazpenen kopuruaren aldean).



Egindako gomendio guztien artean, administrazioak % 77,5i eman zien baiezkoa.


Legezko betebeharren gogorazpenak



Legezko betebeharren gogorazpen guztien artean, berriz, % 82,7 eman zituen ontzat.

103

Iradokizunak



Egindako iradokizun guztien artean, azkenik, % 82,6ri onetsi zituen.

05.2. ONARTUTAKO EBAZPENAK

Atal honetan, Nafarroako arartekoak eman eta administrazio kaltetuek onartu egin zituzten ebazpenen zerrenda ageri da.

05.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onartu zituen ebazpenak

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Espedientea: 06/88

Alorra: ingurumena

Mota: gomendioa (bai Departamentuari eta bai Agoizko Udalari helarazitakoa)

Gaia: salaketa bat aurkeztu ostean egindako lanari buruzko informaziorik eza

Espedientea: 06/174

Alorra: funtzio publikoa

Mota: iradokizuna

Gaia: Gizarte Segurantzan kotizatzen duten langileen eta Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen arteko berdintasunik eza bidegabearekiko desadostasuna, borondatezko erretiroa hartzeari dagokionez

Espedientea: 06/253

Alorra: funtzio publikoa

Mota: iradokizuna

Gaia: Nafarroako Larrialdietako Agentzia sortu eta haren Estatutuak onesten dituen ekainaren 19ko 38/2006 Foru Dekretuaren bitartez suhiltzaile ofizialen eta ofizialordeen eskumenak eta eginkizunak aldatzearekiko desadostasuna

Espedientea: 07/31
Alorra: funtzio publikoa
Mota: iradokizuna
Gaia: Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko 29. artikulua aldatzeak bere garaian aipatu araudiak ezartzen duenaren aurreko eskubide pasiboen sistemaren esparruan jarraitzea erabaki zuten funtzionarioei dakarzkien ondorioak

Espedientea: 07/40
Alorra: funtzio publikoa
Mota: iradokizuna
Gaia: Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko 29. artikulua aldatzeak bere garaian aipatu araudiak ezartzen duenaren aurreko eskubide pasiboen sistemaren esparruan jarraitzea erabaki zuten funtzionarioei dakarzkien ondorioak

Espedientea: 07/69
Alorra: funtzio publikoa
Mota: iradokizuna
Gaia: pentsioa eguneratzeko eskubiderik gabe sortu zuela-eta, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak ezartzen duen sistemarekin bat borondatezko erretiroa hartu zuen funtzionario batek hartzen duen pentsioaren zenbatekoarekiko desadostasuna

Espedientea: 07/155
Alorra: funtzio publikoa
Mota: gomendioa
Gaia: bularra emateko orduei dagokien denbora lanaldi osoetan metatzeko eskaera ez onartzea

Espedientea: 07/169
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorarazpena
Gaia: eremu mistoko lanpostuak betetzeko aukeraketa prozesuetan euskara jakitea behar bezala ez balioestea

Espedientea: 07/174
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorarazpena
Gaia: aukeraketa prozesu baten esparruan, epaimahaiak uko egitea kexaren egilearen ezgaitasunera egokitutako azterketa fisiko bat egiteari

Espedientea: 07/235
Alorra: funtzio publikoa
Mota: gomendioa
Gaia: suhiltzaile lanpostua betetzeko deialdiak suhiltzaile izateko ezartzen duen gehieneko adinarekiko desadostasuna

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

Espedientea: 07/108
Alorra: ogasuna
Mota: legezko betebeharren gogorarazpena
Gaia: administrazioak mugako langileak informatu eta koordinatzeko egiten duen lana eskasa izatea

Toki Administrazio Departamentua

Espedientea: 07/184
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Nafarroako toki erakundeetako idazkariek eta ikuskatzaileek eskaera bat egin eta ebazpenik ez ematea

Hezkuntza Departamentua

Espedientea: 06/130
Alorra: funtzio publikoa
Mota: iradokizuna
Gaia: unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza publikoan sartzeko sistemarekiko desadostasuna, DBHko lehen zikloan eskolak emateko alokatzen dituzten irakasleei dakartzkien ondorioak direla-eta batez ere

107

Espedientea: 06/356
Alorra: ogasuna
Mota: iradokizuna
Gaia: Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntz Eskola Ofizialeko funtzionarioak eta haien senideak tasak ordaintzetik salbuestearekiko desadostasuna

Espedientea: 07/183
Alorra: hezkuntza
Mota: gomendioa
Gaia: haurrak eskolatzeko eremuen banaketarekiko desadostasuna, batez ere, Zizur zendea Iruñeko eta Iruñerriko 2. eremutik (mendebaldeko sektoretik) kanpo uztearekikoa

Osasun Departamentua - Osasunbidea

Espedientea: 05/262
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 05/263
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 05/264
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 05/265
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 05/266
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 05/267
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 05/268
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 06/51
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 06/56
Alorra: osasuna
Mota: iradokizuna
Gaia: Etxarri Aranazko eta Irurtzongo emakumeak laguntzeko Izargi zerbitzuaren gabeziak

Espedientea: 06/181
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Burlatako osasun etxeko ginekologia zerbitzuko itxaronzerrenda

Espedientea: 06/188
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: antzutasunaren aurkako tratamenduetarako itxaronzerrenda

Espedientea: 06/199
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak kirurgia plastikoaren alorreko ebakuntza bat egiteari uko egitea

Espedientea: 06/213
Alorra: osasuna
Mota: iradokizuna
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 06/268
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Osasunbideak baliabide, laguntza eta tratamendu eskasak izatea nortasun arazoak dituzten gaixoentzat

Espedientea: 06/301
Alorra: osasuna
Mota: iradokizuna
Gaia: Farmazia Prestazioen Zerbitzuaren baimena lortzeko atzerapenak

Espedientea: 07/46
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Osasunbideak zerbitzuaren beharrei erantzuteko alokatzen dituen langileei baimenak eman eta ordaintzeari uko egiteagatiko kexa

Espedientea: 07/51
Alorra: osasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Osasunbideko paziente baten diagnostikoa isilpekoa ez izatea

Espedientea: 07/154
Alorra: osasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Osasunbideak ebakuntza bat egiteko atzerapena

111

Espedientea: 07/191
Alorra: osasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Osasunbideak ebakuntza bat egiteko atzerapena

Espedientea: 07/223
Alorra: osasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: kirurgia plastikoaren alorreko ebakuntza bat egiteari uko egitea

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Espedientea: 07/201
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: nekazaritza ganberako langile batek ordaindutako kotizazioei buruzko informazioa eskatu eta ez erantzutea

Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentua

Espedientea: 07/15
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: iradokizuna
Gaia: txartel bat sortu beharra inor ezgaitua dela egiaztatzeko

Espedientea: 07/71
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: iradokizuna
Gaia: egiten dituen bideak mugatuta daudela-eta, garraio zerbitzu egokitua eta lagundua emateari uko egitearekiko desadostasuna

Espedientea: 07/73
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: seme-alaba ezgaituak dituzten gurasoek laguntza publikoak eskuratzeari dagokionez, errenta kalkulatzeko moduarekiko desadostasuna

Espedientea: 07/181
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: haurrak babestearen alorreko eskaera bati uko egitearekiko desadostasuna

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

Espedientea: 06/151
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: Departamentuari ingurumen gaiei buruzko informazioa eskatu eta eskaera ez onartzearekiko desadostasuna

Espedientea: 06/325
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: iradokizuna
Gaia: Olazti eta Ziordia arteko errepidea berriz eraikitzeko proiektua ez gauzatzea

Espedientea: 06/432
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Tantadiko parajera (Saldiasera) joateko bidea hondatuta egotea

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

Espedientea: 06/455

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: gomendioa

Gaia: administrazioak esku hartzeko eskaera, esleitutako babes ofizialeko etxebizitza baten eraikuntzan egindako akatsak direla eta

Espedientea: 07/6

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: gomendioa

Gaia: administrazioak esku hartzeko eskaera, esleitutako babes ofizialeko etxebizitza baten eraikuntzan egindako akatsak direla eta

Espedientea: 07/62

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: iradokizuna

Gaia: administrazioarekiko desadostasuna etxebizitza bat familia esleipendunaren beharrei erantzuteko egokia ala desegokia den

Espedientea: 07/81

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: iradokizuna

Gaia: Tafallako Eskualdeko Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa eta etxebizitza gaien gaineko eskumena duen administrazioa elkar komunikatzeko bideak eskasak izatea, etxebizitza bat berritu eta alokagai jartzeko diru-laguntza bati buruzko espedientea bideratzeari dagokionez.

Espedientea: 07/157
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: prezio tasatuko etxebizitza bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, esleipendunak ez zuelako bete etxebizitza aurreko bertz urteetan ez eskualdatzeko eskakizuna

Espedientea: 07/170
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: familia ugari bati babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko diru-laguntza emateari uko egitea, familia ugaria dela adierazten duen txartela iraungita zegoelako

Espedientea: 07/180
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: erosteko babes ofizialeko etxebizitzak esleitze aldera, denboraldi jakin batean Nafarroako udalerriren batean edo hainbatetan jarraituki erroldatuta egon behar izatearekiko desadostasuna

Espedientea: 07/295
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: oniritzia emateari uko egitea eta babes ofizialeko etxebizitza baten sustatzaileak informazio eskasa ematea

05.2.2. Toki erakundeek onartu zituzten ebazpenak

Andosillako Udala

Espedientea: 06/429
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: gomendioa
Gaia: etxebizitza batean ura iragazteagatik kalteak

Arantzako Udala

Espedientea: 07/158
Alorra: ogasuna
Mota: gomendioa
Gaia: udalak informaziorik ez ematea pista bat egokitzeko lanen gainean zerga berezi bat sortzeari buruz

Aiegiko Udala

Espedientea: 06/416
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: iradokizuna
Gaia: Udal Plan Orokorrak aipatzen duen 1. sektorea urbanizatzeko proiektuaren zenbait zehaztapenekiko desadostasuna

Beriaingo Udala

Espedientea: 06/452
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorarazpena
Gaia: udalak helarazten zaizkion idatziei ez erantzutea

Buñuelgo Udala

Espedientea: 07/156
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: eragozpenak, txakurrak direla eta

Caparrosoko Udala

Espedientea: 06/271
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: kebaren egilearen etxetik hurbil dagoen saltoki batek egiten duen zarata

Cárcarko Udala

117

Espedientea: 05/124
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: eraikin baten egoera ikuskatzeko betebeharra ez betetzea

Cintruénigoko Udala

Espedientea: 07/129
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: ibilgailuak ibili eta aparkatzeagatiko kutsadura akustikoa

Zizur Nagusiko Udala

Espedientea: 05/295
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: kexaren egilearen etxetik hurbil jardunean dabilzalako kutsadura akustikoa

Deikazteluko Udala

Espedientea: 07/259
Alorra: ogasuna
Mota: gomendioa
Gaia: udal ordenantzak ezberdin arautzea udal kirol instalazioak erabiltzeko tasak, erroldatzearen arabera

Larragako Udala

Espedientea: 07/144
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: UE-21 unitatean hainbat jardunetan hasteko baimenen kopiak eskatu eta eskaera ez onartzearekiko desadostasuna

Leozko Udala

Espedientea: 06/175
Alorra: ogasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: katastroa zuzentzeko eskatu eta ez erantzutea

Milagroko Udala

Espedientea: 05/238
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: industriako lantegi baten jardunagatiko kutsadura
akustikoa

Olloko Udala

Espedientea: 06/105
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: eraikina lehenengoz okupatzeko baimena
emateari uko egitea

119

Iruñeko Udala

Espedientea: 05/348
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Iruñeko II. Zabalguneko kutsadura akustikoa

Espedientea: 05/404
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Descalzos karrikako kutsadura akustikoa

Espedientea: 06/263
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: udalak helarazten zaizkion idatziei ez erantzutea

Espedientea: 06/384
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: informazio eskaera bati ez erantzutea

Espedientea: 06/387
Alorra: funtzio publikoa
Mota: gomendioa
Gaia: ustezko egintza bat egiaztatzeari ez erantzutea

Espedientea: 06/389
Alorra: funtzio publikoa
Mota: gomendioa
Gaia: informazio eskaera bati ez erantzutea

Espedientea: 07/53
Alorra: ogasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Kexaren egileak ordaindu behar ez baina, subjektu pasiboa zelakoan, ordaindu egin zuela-eta, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota itzultzeari uko egitea

Espedientea: 07/79
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: informazio eskaera bati ez erantzutea

Espedientea: 07/80
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: informazio eskaera bati ez erantzutea

Espedientea: 07/162
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Donibane auzoko kutsadura akustikoa

Espedientea: 07/168
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: etxabeak legeztatzeko eskaera bati ez erantzutea

Espedientea: 07/192
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: aukeraketa prozesu baten kalifikazio epaimahaiaren lanarekiko desadostasuna

Espedientea: 07/306
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: udalak ezgaitu batendako aparkaleku bat egokitze eskaerari ez erantzutea

Espedientea: 07/343
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: iradokizuna
Gaia: alde zaharrean bizigarritasun zedulak lortu edo berritzeko zailtasunak, martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretua (urtarrilaren 16ko 5/2006 Foru Dekretuaren bidez aldatutakoa) betearaztearen ondorioz

Azkoiengo Udala

Espedientea: 06/206
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: iradokizuna
Gaia: lanak egiteagatiko kalteak

Garesko Udala

Espedientea: 07/88
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: babes ofizialeko etxebizitza baten eraikuntzaren egoerari buruzko informazioa eskatu eta ez erantzutea

Ribaforadako Udala

Espedientea: 06/333
Alorra: nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa
Mota: gomendioa
Gaia: mugaketa administratibo bati buruzko informaziorik eza eta hura onartzea

San Adriánego Udala

Espedientea: 06/426
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: aisialdia "geletan" emateagatiko kutsadura akustikoa

San Martin Unxeko Udala

Espedientea: 05/91

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Sol karrikan ibiltzeko zailtasunak

Espedientea: 07/58

Alorra: herri lanak eta zerbitzuak

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: kaltetutako senideei deus jakinarazi gabe, lanak egitea hilerrian

Tuterako Udala

Espedientea: 06/224

Alorra: nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: herri ondasun bat nekazaritzako ustiapenerako labakitzeagatiko ingurumen arloko zigorra

Espedientea: 06/430

Alorra: ingurumena

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: zaborra biltzeko ibilgailuak alde zaharrearantz sartzeagatiko kutsadura akustikoa

Villatuertako Udala

Espedientea: 07/68

Alorra: funtzio publikoa

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: udalak langileak alokatzeko prozedurarekiko desadostasuna

Zuñigako Udala

Espedientea: 06/87
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: iradokizuna
Gaia: ur hornikuntza eteteko eskaera bat ebazten atzeratzea

Errezuko kontzejua

Espedientea: 05/64
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: etxebizitzetara edateko ura ponpatzeko gastuak herritarrei egozteko kontzejuaren erabakiarekiko desadostasuna

Espedientea: 06/157
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: Sol plaza saneatu eta zolatzeko proiektutik ondorioztatzen denarekin bat, hainbat jabetza kontzejuaren ondareari lotzearekiko desadostasuna

Ubagoko kontzejua

Espedientea: 06/392
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: kontzejuak helarazten zaizkion idatziei ez erantzutea

05.2.3. Bertze administrazio eta erakunde publiko batzuek onartu zituzten ebazpenak

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Espedientea: 06/396

Alorra: funtzio publikoa

Mota: legezko betebeharren gogorarazpena

Gaia: arrazoi formalengatik, Unibertsitatean irakasle izateko hautagai bat deialditik kanpo uztearekiko desadostasuna

05.3. ONARTU GABEKO EBAZPENAK

Atal honetan, administrazioek zer gomendio, legezko betebeharren gogorarazpen eta iradokizun ez zituzten onartu azalduko dugu. Nabarmendu beharra dago, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokionez, arartekoak emandako ebazpena onartu ez zuen departamentuaren izena emanen dugula, 2007an Nafarroako Gobernua berriz osatu eta foru administrazioaren organigrama berregituratzea gorabehera.

125

05.3.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onartu ez zituen ebazpenak

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Espedientea: 06/103

Alorra: funtzio publikoa

Mota: legezko betebeharren gogorarazpena

Gaia: lekualdatzea, aurreko lanpostuan aritzeko ezintasunagatik

Oharra: legezko betebeharrak gogorarazi ondoren, Departamentuak jakinarazi zuen auzia epaileek ebazteke dagoela.

Espedientea: 06/120
Alorra: funtzio publikoa
Mota: iradokizuna
Gaia: justiziako laguntzaile kargutik kentzearekiko desadostasuna
Oharra: departamentuak behar bezala arrazoitu zituen bere garaian iradokizuna ez onartzeko arrazoiak.

Osasun Departamentua - Osasunbidea

Espedientea: 06/79
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: osasun etxera joateko gastuei dagokien dirua itzultzea

Espedientea: 06/261
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Tuterako Sofia Erregina ospitalean pediatria zerbitzuko zaintzaldiak egiteko modua

Espedientea: 06/364
Alorra: osasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Osasunbideak informaziorik ez ematea legionelosi agerraldiak kaltetutakoei
Oharra: departamentuak behar bezala arrazoitu zituen bere garaian legezko betebeharren gogorazpena ez onartzeko arrazoiak.

Espedientea: 06/390
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Lizarrako García Orcoyen ospitaleko larrialdi zerbitzuko mediku atxikiek eta LAMZak funtzio berberak betetzea

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Espedientea: 02/224
Alorra: ingurumena
Mota: iradokizuna
Gaia: nekazaritzako ustiapena lehen mailako senideei eskualdatzea

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua

Espedientea: 07/193
Alorra: nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa
Mota: legezko betebeharren gogorarazpena
Gaia: nekazaritzako ustiapen bat ikuskatu eta saneatzeko lanekiko, erabilitako teknikarekiko eta administrazioak kontrako frogak aurkezteari uko egitearekiko desadostasuna

05.3.2. Toki erakundeek onartu ez zituzten ebazpenak

Artaxoako Udala

Espedientea: 06/417
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: iradokizuna
Gaia: ezgaitasunen bat duten pertsonen garraio zerbitzu egokitu eskaintzeari uko egitea hiriarteko garraio zerbitzu egokitu bat ez dagoen artean

Burlatako Udala

Espedientea: 07/185
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: udal plan orokorraren aldaketa

Zizur Nagusiko Udala

Espedientea: 06/344
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: aukera berdintasunaren alorreko teknikari bat aukeratzeko prozesuan izandako irregulartasunak

Esprontzedako Udala

Espedientea: 07/203
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: lanak egiteko baimen bat ematearekiko desadostasuna

Lizarrako Udala

Espedientea: 06/106
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: karririk egoera txarrean izateagatik kalteak

Leitzako Udala

Espedientea: 06/323
Alorra: kultura, kirola, gazteria eta elebitasuna
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: udalak herritarrekiko harremanetan gaztelania erabiltzeari uko egitea

Odietako Udala

Espedientea: 06/192
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: gomendioa
Gaia: etxebizitza batean argi zerbitzurik ez izatea
Oharra: udalak behar bezala arrazoitu zituen bere garaian gomendioa ez onartzeko arrazoiak.

Iruñeko Udala

Espedientea: 06/436
Alorra: zirkulazioa eta barne arazoak
Mota: gomendioa
Gaia: gaizki aparkatzeagatik isun bat indargabetzea, frogarik ez zegoela eta

Espedientea: 07/186
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: ezgaitu bati aparkatzeko txartela emateari uko egitea

Tulebrasko Udala

Espedientea: 05/389
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: aisialdirako etxeak eraikitzea landa eremuan

Atarrabiako Udala

Espedientea: 02/280
Alorra: hezkuntza
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: Atarrabiako Artagi ikastetxe publikoko instalazioen gabeziak

130

Iruñerriko Mankomunitatea

Espedientea: 06/319
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: gomendioa
Gaia: edukiontzien kokalekua
Oharra: mankomunitateak behar bezala arrazoitu zituen bere garaian gomendioa ez onartzeko arrazoiak.

Jurramendiko Mankomunitatea

Espedientea: 06/178
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: aldi baterako okupaziorako adostasun akta bat ez betetzea

05.4. 2007ko ABENDUAREN 31n ERANTZUTEKE ZEUDEN EBAZPENAK

Atal honetan aipatuko ditugun kexa espedienteei buruzko ebazpenei erantzuteko epea 2007ko abenduaren 31 eta gero bukatzen zen; hau da, administrazio kaltetuek arartekoak atal honetako kexa espedienteei buruz emandako ebazpenari erantzuteko epea amaitzeke zegoen 2007ko abenduaren 31n.

131

05.4.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Espedientea: 07/308
Alorra: funtzio publikoa
Mota: gomendioa
Gaia: kexaren egilea bere kargutik kentzeagatik aurkeztutako helegitea ez onartzearekiko desadostasuna

Hezkuntza Departamentua

Espedientea: 07/269
Alorra: funtzio publikoa
Mota: iradokizuna
Gaia: familiaren beharreatatik, zerbitzu eginkizunetan irakasle aritzeko deialdi batean parte hartzeko ezintasunarekiko desadostasuna

Espedientea: 07/317
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: zerbitzu eginkizunetan aritzeko eskaera ez onartzea

Osasun Departamentua - Osasunbidea

Espedientea: 07/13
Alorra: osasuna
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Osasunbideak osasun laguntza erietxe pribatu batean eskuratzeko gastuei dagokien dirua itzultzeari uko egitea

Espedientea: 07/309
Alorra: funtzio publikoa
Mota: gomendioa
Gaia: Nafarroako Gobernuak lan terapeuta izateko lanpostu bat oposizio lehiaketaren bidez betetzeko deialdiko kalifikazio epaimahaiak kexaren egilearen merezimenduak balioesteko lana ikuskatzeari uko egitea

Espedientea: 07/315
Alorra: funtzio publikoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: aukeraketa prozesu bat ebazten gehiegi luzatzea

Espedientea: 07/331
Alorra: osasuna
Mota: iradokizuna
Gaia: Nafarroako Ospitalean osasun laguntza eskasa ematea

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Espedientea: 06/80
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: harrobi bat ustiatzeagatiko arriskua eta eragozpenak

133

Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentua

Espedientea: 05/162
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: buruko gaixotasunen bat duten pertsonak apopilo hartzeko etxebizitzetan bizi direnak ez ikuskatu eta kontrolatzea

Espedientea: 07/14
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: buruko gaixotasunen bat duten pertsonak apopilo hartzeko etxebizitzetan bizi direnak ez ikuskatu eta kontrolatzea

Espedientea: 07/92
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: mugitzen laguntzeko garabi mekaniko bat erosteko laguntza bat emateari uko egiteko arrazoiak egokiak ez izatea

Espedientea: 07/263
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: kexaren egilearen ezgaitasun maila txikiagotzearekiko desadostasuna

Espedientea: 07/287
Alorra: nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: kexaren egileak kontsumitzaile den aldetik dituen interesak babesteko abiarazitako espediente bat amaitutzat ematearekiko desadostasuna

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentua

Espedientea: 06/413
Alorra: kultura, kirola, gazteria eta elebitasuna
Mota: gomendioa
Gaia: arte ikasketak Espainiako eta nazioarteko ikastetxeetan egiteko laguntzak emateko deialdirik ez izatea

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

Espedientea: 07/277

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: erosteko 1.800 etxebizitza babestu eta alokatzeko 270 etxebizitza babestu esleitzearen esparruan, VINSA sozietate publikoak 2007ko ekitaldian ustez egindako hainbat irregulartasun

Espedientea: 07/303

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: gomendioa

Gaia: babes ofizialeko etxebizitzaren eraikin baten eraikuntzan izandako akatsak eta administrazioak deus ez egitea

Espedientea: 07/314

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: administrazioak kexaren egilearen etxebizitza balioztatzeko moduarekiko desadostasuna, erosteko babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzeko prozesuaren esparruan

Espedientea: 07/323

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: iradokizuna

Gaia: esleitutako etxebizitza babestu bat salerosteko kontratuari oniritzia emateari uko egitea, kexaren egilearen ezgaitasun maila ez dela-eta egungo etxebizitza desegokitza hartzeko behar bezain handia

Espedientea: 07/379
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: kexaren egileari esleitu zioten babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzan akatsak izatea

05.4.2. Toki Administrazioa

Aranoko Udala

Espedientea: 07/209
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: bide publiko baten okupazioa

Barañaingo Udala

Espedientea: 06/441
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: aisialdia emateko lokal batek eragindako kutsadura akustikoa

Espedientea: 07/270
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: udalak Udaltzaingoak karrikatik kentzen dituen ibilgailuak gordetzeko erabiltzen duen etxabe batean egiten duen lanarengatiko kexa

Baztango Udala

Espedientea: 06/415
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: saltoki bateko jardunarengatiko kutsadura
akustikoa

Berriozarko Udala

Espedientea: 06/425
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: lokal bateko makineriarengatiko kutsadura
akustikoa

137

Burlatako Udala

Espedientea: 07/328
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: ingurumen gaiei buruzko informazioa emateari
uko egitea

Caparrosoko Udala

Espedientea: 07/212
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: kexaren egilearen etxearen alboan abeltegi bat
izateak dakartzan arazoak

Castejongo Udala

Espedientea: 07/356
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: enpresa bati karrika okupatzeko emakida bat esleitzearen kontrako kexa

Corellako Udala

Espedientea: 05/100
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: hodi biltzaile nagusia erabiltzen uzteari uko egitea

Eguesko Udala

Espedientea: 07/228
Alorra: kultura, kirola, gazteria eta elebitasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Sarrigurengo igerilekuak erabiltzeko diskriminazioa, udalerrian errolatuta ez egoteagatik

Lizarrako Udala

Espedientea: 06/365
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: urbanizazio batera sartzeko bidearen egoera txarra

Espedientea: 07/10
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: aisialdia emateko jarduerak antolatzeagatiko eragozpenak eraikin batean

Funesko Udala

Espedientea: 07/264
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: txabiskeetako jardunarengatiko kutsadura akustikoa

Elizagorriko Udala

Espedientea: 07/368
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: lan partikular bat ahoz eta arrazoirik eman gabe geldiaraztearekiko desadostasuna

Irunberriko Udala

Espedientea: 06/394
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: udal gaiei buruzko hainbat informazio eskaerari ez erantzutea

Mendabiako Udala

Espedientea: 07/66
Alorra: zirkulazioa eta barne arazoak
Mota: gomendioa
Gaia: administrazioak deus ez egitea zirkulazio arau bat hausteari dagokionez

Milagroko Udala

Espedientea: 07/271
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: diskoteka "ibiltari" bat instalatzeagatiko kutsadura akustikoa

Olorizko Udala

Espedientea: 07/316
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: kexaren egilearen etxearen alboko herri lur batean egindako eraikuntza

Iruñeko Udala

Espedientea: 06/94
Alorra: ingurumena
Mota: gomendioa
Gaia: Zilbetiko monasterioaren karrikako aisialdi lokal batek eragindako kutsadura akustikoa

Espedientea: 07/214
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: erorketa baten gaineko ondarezko erantzukizunari buruzko espediente bat garaiz erantzuteko betebeharra ez betetzea

Espedientea: 07/281
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: eraikin bat berritzeko lanetan gabezia teknikoak izatea eta udalak deus ez egitea salaketa egiaztatzeko

Espedientea: 07/326
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: ezgaitu bati aparkatzeko txartela emateari uko egitea

Espedientea: 07/396
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: sanferminetan Miserikordia Etxean bizi diren zaharrei zarataren ondorioz eragindako eragozpenak

Atarrabiako Udala

Espedientea: 06/347
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: urbanizazio batera sartzeko bidearen egoera txarra

Artatzako kontzejua

Espedientea: 07/284

Alorra: hirigintza eta etxebizitza

Mota: gomendioa

Gaia: kontzejuak eta kexaren egileak (partikular batek) plan partzial bat gauzatzeko itundutako urbanizazio baldintzak (lurra eta hondakinak biltzea) ez betetzea kontzejuak

05.5. ARARTEKOAK 2006ko ABENDUAREN 31 BAINO LEHEN EMAN ETA ADMINISTRAZIOAK ORDURAKO ERANTZUN EZ ZITUEN EBAZPENAK

Atal honetan, 2006an gomendio, iradokizun edo legezko betebeharren gogorarazpen bat eragin zuten eta 2006ko abenduaren 31n erantzuteke zeuden kexa espedienteak azalduko ditugu, 2007an amaitutzat eman baikenituen.

142

05.5.1. Onartutako ebazpenak

05.5.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak onartutakoak

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

Espedientea: 06/160

Alorra: ogasuna

Mota: iradokizuna

Gaia: lanarengatiko kenkariak PFEZa batera ordaintzearen esparruan aplikatzeko modua

Hezkuntza Departamentua

Espedientea: 05/360
Alorra: hezkuntza
Mota: iradokizuna
Gaia: hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleendako
interprete beharra

Osasun Departamentua

Espedientea: 06/111
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: jokabide arazoak dituen herritar baten egoerak
bertzerengan duen eragina

Espedientea: 06/140
Alorra: osasuna
Mota: gomendioa
Gaia: Nafarroako Ospitaleko minaren unitateko
itxaronzerrendak

143

Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentua

Espedientea: 06/220
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria
Departamentuak ezarritako gizarte laguntza
guztiak eskuratzeko, Nafarroako udalerriren
batean bizitzeko eskakizuna bateratu beharra

Espedientea: 06/228
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: etxeko laguntza izateko laguntzak berriz arautu beharra, beharra dutenei behar bezalako laguntza ziurtatu beharraren ikuspegitik, araudia laguntzen helburuarekin bat etor dadin eta zaharrek etxean jarraitzea susta dezan

Espedientea: 06/75
Alorra: gizarte ongizatea
Mota: gomendioa
Gaia: autonomia arazo larriak dituzten zaharrak zahar etxeetan laguntzeko tokiak egokitu beharra; prozedurazko bermeak errespetatu beharra, zahar etxeetan sartzeko eskaerak bideratzeko; eta zahar etxeetan sartzeko baremo bat ezarri beharra

Oharra: 2008ko martxoan onartutakoa.

05.5.1.2. Nafarroako toki erakundeek onartutakoak

Barañaingo Udala

Espedientea: 06/269
Alorra: kultura, kirola, gazteria eta elebitasuna
Mota: gomendioa
Gaia: kirol instalazioetako erabiltzaile baten jokabidea

Irañetako Udala

Espedientea: 06/124
Alorra: herri lanak eta zerbitzuak
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: funts partikular batean izandako kalteak eta udalaren erantzunik eza

Iruñeko Udala

Espedientea: 06/179
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: gomendioa
Gaia: Mendillorri udal igerilekuak eraikitzeko proiektuak kaltetutako herritarrek aurkeztutako alegazioei ez erantzutea

145

Eguesibarko Udala

Espedientea: 06/214
Alorra: eskubideen sustapena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: kexaren egilearen etxebizitzaren planoak eskuratzeko eskaera

Leitzako Udala

Espedientea: 05/19
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: hirigintza arloko betebeharrak ez betetzea

Erromantzatuko Udala

Espedientea: 06/202
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: partikular batek bide publikoa usurpatzea

Oharra: 2008ko otsailean onartutakoa.

Atarrabiako Udala

Espedientea: 05/98
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: etxebizitza batetik hurbil kokatutako saltoki batek eragindako zarata eta bibrazioak

05.5.2. Onartu gabeko ebazpenak

05.5.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak onartu ez zituenak

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

Espedientea: 06/259
Alorra: hirigintza eta etxebizitza
Mota: gomendioa
Gaia: azalera nahikoa ez dela-eta, bertze etxebizitza bat esleitzeari uko egitea

Oharra: departamentuak behar bezala arrazoitu zituen bere garaian gomendioa ez onartzeko arrazoiak.

05.5.2.2. Nafarroako toki erakundeek onartu ez zituztenak

Barañaingo Udala

Espedientea: 06/245
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: etxabe bateko zaratak eta usainak eragindako eragozpenak

Goizuetako Udala

Espedientea: 05/317
Alorra: ingurumena
Mota: legezko betebeharren gogorrazpena
Gaia: kexaren egilearen etxebizitzatik hurbil dagoen ostatu batek eragindako eragozpenak

147

Izuko kontzejua

Espedientea: 06/190
Alorra: ogasuna
Mota: gomendioa
Gaia: funts bati buruzko katastroko datuak aldatzea eta funtseko bidea berritzea

06 _ erakundearen gomendio eta
iradokizun nagusiak

2007

06 _ erakundearen gomendio eta
iradokizun nagusiak



2007

IV. KAPITULUA

ERAKUNDEAREN GOMENDIO ETA IRADOKIZUN NAGUSIAK

06.1. SARRERA

Kapitulu honetan 2007ko jarduerari dagokionez gauzatu diren edo gauzatzeko dauden gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorarazpenak jasotzen dira, bai ofizioz eta bai herritarrek hala eskatuta egin direnak.

Jakina, ez dira egindako gomendio, iradokizun eta gogorarazpen guztiak jasotzen, garrantzi berezia dutenak baizik (113). Guztiak jasotzea lan handia izango litzateke eta ez emaitza zabalegia. Baina, batez ere, kapituluari interesa kenduko lioke eta, are okerrago, Nafarroako Parlamenturako interes gehien izan dezaketen gomendioak identifikatzea saihestuko litzateke.

151

2007an 244 gomendio, iradokizun eta gogorarazpen egin ziren guztira, honako taula honetan adierazten den moduan:

Kopurua	Gomendioak	Lege-betebeharra gogorarazteak	Iradokizunak	Guztira
Kexak	64	77	29	170
Ofiziozko jarduerak	3	39	1	43
Txosten bereziak	31			31
GUZTIRA	98	116	30	244

Hemen jasota dauden gomendio, iradokizun eta gogorarazpen nagusiak gaiaren arabera sailkatuta daude, eta xede-administrazioa nahiz edukia adierazten dira.

Horrez gain, adierazten da administrazioak gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena onartu duen edo oraindik onartzeke dagoen. Hartara, gomendioa gaur egun nola dagoen jakin daiteke, Nafarroako Parlamentuak kontrol-ekimenen bat gauza dezan, hala badagokio.

Gomendio bat onartutakotzat sailkatzeak ez du esan nahi gomendioa gauzatu denik. Erakundeak ondoren egiaztatzen du onarpena gauzatura dagoen.

Azken batean, Erakundeak 2007. urtean gauzaturako jarduera modu eraginkorrean laburbildu nahi da, bai eta administrazioen aldetik jasotako onarpen maila ere. Halaber, Nafarroako Parlamentuari jakinarazi nahi zaizkio onartu ez diren edo onartzeke dauden gomendio eta iradokizunak, botere exekutiboaren gaineko kontrol-ekimenen mekanismoak aktibatu nahi baditu ere.

06.2. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK, GAIAREN ARABERA

06.2.1. Gizarte-Ongizatea

• Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari

- Herritarrek aurkeztutako laguntza-eskaerak arretaz izapidetu eta administrazio-ebazpenak arrazoitu daitezela, erantzun-eredu estandarrek eragindako akatsak saihesteko. **Onartua.**
- Minusbaliotasun maila onartzeko, deklaratzeko eta sailkatzeko prozedura onartzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko behin behineko xedapen iragankor bakarrean jasotakoarekin bat, departamentuak ez diezaiela minusbaliotasun-maila berrikusi dekretu hori indarrean egon baino lehen % 33ko edo handiagoko minusbaliotasuna deklaratu zaienei, ezgaitasun-egoera ez bada aldatzen behintzat. **Onartua.**
- Familia Ugarien Foru Legean jasota dagoen agindua betetzen duen araua onar dadila, etxez etxeko arretarako edo dagozkion beste neurrietarako. **Onartua.**

- Behar diren ekintzak bidera daitezela Nafarroan minusbaliotasun-egoera eta, hala badagokio, minusbaliotasun-maila, egiaztatzen duen txartela ezartzeko. **Onartua.**
- Beharrezko neurriak bultza daitezela Zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruako pentsiodunen egoera hobetzeko. Zehazki, diru-laguntzak eman daitezela baliabideak oinarrizko gutxienekoraino osatze aldera, bizi-baldintza duinagoak izan ditzaten. **Onartua.**
- Nafarroako Foru-erkidegoko herritarrek Mendetasun-egoeran dauden Pertsonen Arreta eta Autonomia Pertsonala Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 17. eta 21. artikuluetan jasotako diru-laguntzak jaso ditzatela, gutxienez, autonomia-erkidegoetako ekarpenen baldintza berdinetan. **Onartua.**
- Drogaren mende dauden pertsonak gaixotasun mentala duten pertsonen baliokide izan daitezela juridikoki, ezarri diren edo ezarriko diren mendetasun-laguntzak eskuratzeari dagokionez behintzat, nahiz eta kontuan hartzen den osasun-tratamendua desberdina izango dela.
- Gizarte-zerbitzuen sortari buruz:
 1. Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko hirugarren azken xedapenean ezartzen den moduan, 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen onar dadila, jasotzen diren prestazioak gauzatzen dituzten dagozkien baliabide ekonomiko, giza-baliabide eta baliabide materialekin. **Onartua.**
 2. Pertsona minusbaliatuentzako garraio egokitu eta lagunduaren zerbitzua ezar dadila. **Onartua.**
 3. Gaur egun administrazio-ikuskaritzarik gabe apopilo bizi diren eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabide bat sar dadila zerbitzu-sortan eta, hortaz,

administrazioaren esku-hartzearen mende jar dadila.

Onartua.

4. Adindunentzako prestazioak berezko esparrutzat trata daitezela prestazioen barruan, etxean geratzeko politikak indartuz eta osasun-zerbitzuak behar bezala koordinatuz.
5. Drogaren mende dauden pertsonen prestazio tekniko eta ekonomiko aplikagarriak sor daitezela eta, zehazki, oinarrizko errentako, minusbaliotasuneko eta aurreikusitako bestelako laguntzak jasoko dituztela berma dadila.
6. Prestazioak ekarpen ekonomiko baliokide batekin ordeztzen diren kasuetan, egoera hori behin-behinekoa dela argi zehaztea.
7. Oinarrizko irizpide orokorrak ezartzea jasotzen diren prestazioen titular izan ahal izateko.
8. Prestazioen eraginkortasun-epeak hiru hilabeteko epe orokorra ez gainditzea.
9. Irizpideak definitzea eta zehaztea koordainketaren zenbatekoa eta, hala badagokio, ekarpen ekonomiko horretako salbuespenak zehazteko, erabiltzailearen gaitasun ekonomiko eskasa dutenean edo batere ez dutenean.
10. Gizarte-integrazioko etxebizitzak eskuratzeko laguntza, hasiera batean bermatu gabeko gisa proposatu zena, prestazio bermatua izateko aukera aztertzea.
11. Nafarroan bizi izandako denboraren eskakizuna urtebetera jaitea, gizarte-zerbitzuen zorroan ezarritako oinarrizko errentaren prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko.

• **Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari**

- Mugikortasun murriztuko pertsonentzako autobusak egokitu daitezzen sustatzea, Artaxoa udalerriko bidaiarien garraio erregularreko linean. **Onartua.**

• Iruñeko Udalari

- Udal-ordenantza baten bitartez, minusbaliatuei aparkaleku-txartelak emateko baldintzak arautzea. **Onartua.**

06.2.2. Osasuna

• Osasun Departamentuari

- Nafarroako Osasun Zerbitzua/Osasunbidean programatutako kirurgiako itxaron-zerrendak ebaluatzen eta horien gainean jarduteko arautegia taxutzea, apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legea garatzeko. Halaber, gainerako aplikazio-arauak ezartzea, gaixoen ebakuntzetarako eta tratamenduetarako gehieneko epeak ezartzeko, hartara, osasuna arrazoizko epe batean babesteko eskubidea bermatuko baita. **Onartua.**
- Osasun-prestazioen katalogoa berrikustea eta eguneratzea, gutxika eta aurrekontu-xedapenekin bat, herritarrek eskatutako prestazio eta zerbitzu berriak eskaintzeko, nahiz efikazia, efektibotasun edo efizientzia eskasa adierazten duten teknikak, teknologiak edo prozedurak desagerrarazteko.
- Herritarrek, gaixo gisa edo osasun-sistema publikoaren erabiltzaile potentzial gisa, eskura ditzaketan osasun-zerbitzuei nahiz haiek erabili ahal izateko behar dituzten baldintzei buruzko informazioa modu ulergarri eta egokian jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
- Osasun-langileen prestakuntza hobetzea osasun-informazioaren esparruan, albait gehien hobetzeko gaixoei eta, hala dagokionean, senideei emandako informazioa.

- Gaixoen diagnostikoaren nahiz Nafarroako Osasun Zerbitzua/Osasunbidearen artxibo eta fitxategietan dauden datu pertsonalen konfidentzialtasunaren babesa indartzea. **Onartua.**
 - Funtzio-bikoiztasuna saihestea Lizarrako Garcia Orcoyen Ospitaleko Larrialdietarako Ataleko medikuen artean. Hartara, ez dezaten aldi berean lagundu larrialdietarako atean eta Premiazko Arreta Medikoen Zerbitzuko eta Zainketa Intentsiboko Unitateko irteeretan. Horretarako, langileria organikoa ezarri behar da, erabiltzaileen osasun-beharrei behar bezala erantzutea ahalbidetze aldera. **Ez da onartu.**
 - Herritar batek jasotzeko eskubidea duen Estatuko osasun-sistemaren osasun-prestazio bat behar badu eta prestazio hori ez badu eskaintzen Nafarroako osasun-sistemak edo ezin bazaio eskaini Estatuko osasun-zerbitzuetan gainkarga edo beste arrazoiren bat dela medio, onar dadila pertsona horrek prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea duela, beste aukera gisa, osasun-zerbitzu pribatura jotzeagatik sortutako gastuak ordaintzeko. **Onartua.**
 - Foru Komunitatean baliabiderik ez izateagatik beste autonomia-erkidego batean tratamendu medikoa jasotzen duten gaixo mentalen sendagaien gastuak ordaintzea. **Onartua.**
 - Osasun- eta gizarte-prestazio integrala eskaintzea gaixotasun mentala duten pertsonei. Besteak beste:
1. Drogaren mende dauden pertsonei heroína-dosia modu kontrolatuan emateko aukera aztertzea, metadonaz bestelako tratamendu gisa, metadonaren ordezkio medikamenturik eskaini ezin zaien bitartean.

2. Metadona-tratamendua jasotzen duten drogaren mendeko pertsoneri ziurtagiri medikoa ematea, egoera hori egiaztatu ahal izan dezaten zirkulazio-kontroletan egokituz gero.
3. Drogaren mende dauden pertsonak gaur egun duten segimendu mediko eta psikiatrikoaren egungo sistema nabarmen hobetzea, jarraituagoa, zuzenagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da osasun-sistema publikoan droga-mendekotasunaren tratamenduan espezializatutako psikiatrentzako eta psikologoentzako plazak sortzea.
4. Drogaren mende dauden pertsonen senideei laguntza handiagoa eskaintzea, droga-mendekotasunaren biktima zuzen diren aldetik.

• **Osasun Departamentuari eta Familia, Gazteria, Kirol, eta Gizarte Gaietako Departamentuari**

157

- Osasun mentaleko zerbitzu integratuen sarea sortzea.
- Osasun mentaleko plan integrala taxutzea.
- Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eskubide eta zerbitzuen gutuna taxutzea.
- 2003ko “Osasun mentalaren arreta Nafarroan” txosten berezian proposatutako neurriak abian jartzea modu eraginkor eta progresiboan.

06.2.3. Ingurumena

• **Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari**

- Kutsadura akustikoari buruz:

- 1 Foru-lege baten proiektua taxutzea, berariaz, Nafarroako Foru Komunitateko kutsadura akustikoaren arazoa tratatzeko. ▸
- 2 Hala dagokionean onartzen den kutsadura akustikoari buruzko legezko arauan, Foru Komunitateko Administrazioaren jarduera-aukerak indartzea, gaitasuna izan dezan zuzenean eta berehala galarazpen- eta amaitze-egintzak agintzeko, herritarren oinarrizko eskubideak urratu direla atzematen badu.
- 3 Beharrezko laguntza- eta koordinazio-mekanismoak ezartzea Ingurumen eta Landa Garapeneko Departamentuaren, Foru Poliziaren eta udalerrien artean, kutsadura akustikoak eragindako arazoak desagerrarazte aldera.
- 4 Zarata eta bibrazioa igortzen duten jardueretako ikuskaritza-lanak sustatzea, eta beharrezko neurriak hartzea herritarren ingurumen egokiaz gozatzeko eskubidea, osasuna babesteko eskubidea, segurtasun fisiko eta morala izateko eskubidea, intimitate-eskubidea eta etxebizitza babesteko eskubidea berma dadin.

- Abeltzaintza-instalazioak lehen mailako senideei emateko aukerari buruz ekainaren 23ko 148/2003 Foru-dekretuan jasota dagoena indargabetzea, ez datorrelako bat ingurumena egoki babestearekin eta herritarren erabaki publikoak hartzeko partaidetza-eskubidearekin. **Ez da onartu.**

- Herritarrek ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eta ingurumenari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko eskubidea bermatzea.

- **Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari**

- Herritarrei lortu nahi duten ingurumen-informazioa eskatzen laguntzea, hartara, eskaera horiek soilik arrazoi formalengatik gaitzestea saihestuko baita. **Onartua.**

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta Agoizko Udalari
- Salatzaillei informazioa eskaintzea salaketek izandako izapidetzeari buruz. **Onartua.**
- **Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari eta Arakil Ibarreko Udalari.**
 - Harrobien ustiaketari buruzko beharrezko kontrolak indartzea, erazte-jarduera legez ezarritako mugen barruan gerta dadin. **Onartua.**
- **Iruñeko Udalari**
 - Udal-bandoetan jasotako xedapenetan eta sanferminetan musika aisialdi-lokaletatik ateratzeko berariaz emandako baimenetan balorazio bereziak egitea tokiaren baldintza akustikoei buruz, eta zarata-muga zehatzak ezartzea goiko eta/edo ondoko etxebizitzetara eta ordutegiei dagokienez. **Onartua.**
 - Sanferminetan, bermatzea “Erruki Etxea” zaharren egoitzaren barruan ez direla gainditzen arau aplikagarrietan xedatutako zarata-onarpenerako mugak. Halaber, gauetan muga-ordutegia ezartzea, ordu horretatik aurrera aipatu egoitzatik hurbil diren barrakek musikariek erabil ez dezaten edo premiazko ez den zatatarik egin ez dezaten. **Onartua.**
- **Caparrosoko Udalari**
 - Uztailaren 24ko 188/1986 Foru Dekretuko 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, abeltzaintza-ustiategiek legez izapidetutako jarduera-lizentziarik ez duten kasuetan edota ustiategiaren eta zoru hiritartu edo hiritargarrien

arteko distantzia 500 metro baino gutxiago den kasuetan, beharrezko neurriak hartzea inguruko etxebizitzetako biztanleei eragitea saiheste aldera. **Onartua.**

- **Baztango Udalari**

- Jarduera sailkatuko lizentziak emateko prozeduretan, dagozkion jakinarazpen pertsonalak helaraztea jarduera egiten den lekuaren inguruan bizi diren pertsoneri, arau aplikagarrietan xedatutakoarekin bat. Halaber, neurri zuzentzaileak ezartzea, jarduerak lizentzia jasotzeko eskakizun guztiak betetzen dituztela bermatzeko. **Onartua.**

- **Nafarroako toki-erakundeei**

- Ingurumena eta osasungarritasun publikoa babesteko eskumenak eraginkortasunez eta atzerapenik gabe erabil dezatela; zehazki, zarata eta bibrazioa igortzen duten jarduera pribatuen gainean esku hartzeko eskumena. Hartara, herritarren segurtasun fisiko eta moralerako eskubidea, intimitate-eskubidea eta etxebizitza babesteko oinarrizko eskubidea bermatuko dira.

06.2.4. Funtzio Publikoa

- **Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari**

- Arau-xedapen bat sustatzea, Nafarroako administrazio publikoetako emakume funtzionarioek aukera izan dezaten edoskitze-baimenagatik dagokien denbora guztia batera hartzeko, egun osotan, baimen ordaindu gisa. **Onartua.**
- Lege-mailako arau bat sustatzea suhiltzaile-zerbitzuan sartzeko adin-muga ezartzeko, egoki ikusten bada. **Onartua.**

- Justizia-administrazioaren zerbitzuko plazak betetzen dituzten behin-behineko langileen gaitasun- edo errendimendu-faltarengatik kargu-uzteko prozeduretan administrazioaren ebaluazioa sartzea, bai eta eragindako bitarteko funtzionarioarentzako beharrezko bermeak ere (zehazki, probak). **Onartua.**
- Zehaztasun handiagoz definitzea Suhiltzaile Ofizial eta Ofizialordearen postuetako funtzioak. **Onartua.**
- Erregimen administratiboan kontratatutako langileak aukeratzeko betebeharra eraginkortasunez betetzea, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera. **Onartua.**
- Estatuarekiko akordioa premiatzea Nafarroako administrazio publikoetako montepioen eta gizarte-segurantzako erregimenetako kotizazioen elkarrekiko zenbaketari buruz. **Onartua.**
- Nafarroako Parlamentuan foru-lege baten proiektua aurkeztea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak araututakoaz aurreko eskubide pasiboen sisteman urte onartutakotzat jo daitezen funtzionarioak kotizazioko gisa onartuta dituen urte guztiak (gizarte-segurantzaren erregimen publikoren batean edo horren ordezkoren batean); betiere, hala dagokionean, urte horiek eragin dituen lan-prestazioa ez denean gertatzen administrazio publiko batentzako zerbitzuekin bat. **Onartua.**
- Nafarroako Parlamentuaren aurrean foru-lege baten proiektua aurkeztea, aukerarako epe berria ezartzeko zerbitzu aktiboan edo alta-egoera gisa parekatutako egoeran dauden funtzionarioek (bere garaian Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen behin-behineko erregimenari buruzko

martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean xedatutakoaz aurreko eskubide pasiboen sisteman jarraitzea erabaki zutenak eta Gizarte Segurantzaren sektore pribatuan kotizatu dutenak) aipatu martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean xedatutako eskubide pasiboen sistema berria aukeratu ahal izan dezaten. **Onartua.**

- Nafarroako Parlamentuari bidaliko zaion Nafarroako Aurrekontu Orokorren foru-lege proiektuan, 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemaren arabera borondatez erretiratuak diren eta eguneratze-eskubiderik gabeko pentsioa dagokien funtzionarioei izaera orokorarekin ezarritako gutxieneko erretiro-pentsioaren zenbatekoa edo handiagoa jasotzeko eskubidea onartzea 70 urte betetzen dituztenetik aurrera. **Onartua.**

• Osasun Departamentuari

- Zerbitzuaren beharrei erantzuteko kontratatutako langileei arau aplikagarrietan ezarritako baimen eta lizentzia ordainduak onartzea eta ematea, Konstituzio Auzitegiaren epaietan eta Europako Arteztarauetan ezarritako irizpideekin bat. **Onartua.**
- Nafarroako Osasun Zerbitzua/Osasunbidean lanpostuak lortzeko eta hornitzeko prozeduretan aplikatu beharreko merezimenduen baremoak arautzen dituen urriaren 3ko 464/2001 Foru Aginduaren II. Eranskineko 1. atala aldatzea, A mailako osasun-langileen kasuan izan ezik (A.1 eta A.2 estamentuak), interpretazio- desadostasunik izan ez dadin administrazio publikoan eta enpresa pribatuan emandako zerbitzuak balioesteko moduari buruz.
- Dagozkion neurriak ezartzea Nafarroako Osasun-zerbitzua/Osasunbideko erizain laguntzaileen plazak betetzeko lehiaketa-oposizioa atzerapenik gabe egin

dadin, eta aurkeztutako pertsonei behar bezala azaltzea justifikaziorik gabeko atzerapen horren arrazoia.

• Hezkuntza Departamentuari

- Unibertsitateaz bestelako irakasle funtzionarioen zerbitzuetarako behin-behineko lanpostuak esleitzeko argibideak onartzen dituzten urteko ebazpenetan (kontseilari eskudunaren foru-aginduak izanez gero, hobe, arau-ahalmeneko arrazoiengatik), beste administrazio publiko batzuetako unibertsitateaz bestelako irakasle-funtzionarioetara hedatzea zerbitzuen esleipena, gaixotasun larriko edo mendekotasun handiko egoeran dauden senide zuzenei arreta ematea dela medio. **Ez da onartu.**

• Iruñeko Udalari

- Arau aplikagarriekin bat, prestakuntza-fasean dauden eta prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran egoteko gehieneko epea gainditu duten langileak betetzen ari diren osasun-ikuskatzaile lanpostuak esleitzea. **Onartua.**

• Zizur Nagusiko Udalari

- Langileak aukeratzeko prozeduretan, bete daitezela deialdietan xedatutakoa eta arau aplikagarriak. **Ez da onartu.**

• Nafarroako Unibertsitate Publikoari

- Irakasle lagunak aukeratzeko deialdietan, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71. artikuluan xedatutako zuzenketa-epea ematea, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian

ezarritakoaren ildoan eta herritarrek beren eskubideak baliatzea errazteko printzipioarekin bat. **Onartua.**

06.2.5. Etxebizitza

• Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari

- Etxebizitzaren babes publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeko 22. artikuluan gaur egun jasota dagoen berrikuspen-baremoa sustatzea, bigarren mailako irizpideak (etxebizitza-kontua, eskatzailearen adina, Nafarroako udalerriren batean hainbat urtez jarraian bizi izatea edo guraso bakarreko familiaren buru izatea) erabakigarriak izan ez daitezen erreserba bakoitzeko etxebizitzak esleitzean, eta, bestalde, erabakigarriak izan daitezen oinarritzko bi irizpideak: eskatzailearen etxebizitza-behar egiaztatua eta errenta.
- Puntuazio-baremoaren garapen zehatza Etxebizitza-kontseilariaren foru-agindu baten mende uzteko aukera aztertzea, hartara, urteko kanpaina bakoitzean irabazitako esperientziekin, gutxika hobetu dadin.
- Aztertzea ea bideragarria den etxebizitza babestuen esleipendunek erregimen bereko esleipendunekin beren etxebizitzak aldatu edo trukatu ahal izan ditzaten prozeduraren bat arautzea. **Onartua.**
- Etxebizitzaren babes publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea garatzen duen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuko 19.4 artikulua interesdunaren alde interpretatzea; aurreko etxebizitza transmititzean lortutako diru-sarrera erosi behar duen etxebizitzaren prezioaren % 60ra iristen den balioestean, salerosketari dagokion mailegua amortizatzeko falta diren zenbatekoak

deskontatzea, izan hipoteka-bermea nahiz pertsonala, bermearen izaera ez baita funtsezko gaia. **Onartua.**

- Interesdunek etxebizitza babestua erosteko egiten dituzten eskaeretan, familia ugaria izatearen ondorioak onartzea, nahiz eta prozeduraren uneren batean egoera hori egiaztatzen duen titulua iraungita egon; batez ere, interesdunek baldintza hori betetzen dutela jakinez gero. **Onartua.**
- Etxebizitzaren esparruan babes daitezkeen jarduerak arautzen dituen urtarilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren seigarren xedapen gehigarria aplikatzea. Xedapen horrek atzeraeraginezko efektuak ematen dizkie etxebizitza lehentasunezko erosketa gisa nahiz eskaintzaz erosi duten familia ugariantzako laguntza osagarriei, baldin eta lehen transmisioko erosleek bete beharreko baldintzak betetzen badituzte. **Onartua.**
- Konponbide bereziak edo salbuespenezkoak eskaintzea zenbait kasutan: etxebizitza babestua eskatzen bada lehengoa egokia ez izateagatik, eta eskatzaileak ez badu arauetan eskatutako minusbaliotasun-maila. Hori guztia, ikusten bada, irizpide objektiboen arabera, hala eskatzen duten beste kausa batzuk daudela. **Ez da onartu.**
- Departamentuak egiaztapen- eta ikuskapen-jarduerak indartzea etxebizitza babestuak sustatzen dituzten enpresen gainean, herritarrekin gauzatzen dituzten izapideetan akatsak gerta daitezen saiheste aldera. **Onartua.**
- Departamentuak behar adinako gaitasun teknikoa duten udalerriei eskumenak emateko neurriak sustatzea, ordenantza bidez zehaztu ditzaten beren lurralde-esparruko etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak, eta

etxebizitza horiek kontrola ditzaten eskumenak ematea, bizigarritasun-zedularen bitartez.

- Departamentuak bizkor eta eraginkortasunez gauzatzea babes publikoko etxebizitzaren eta gainerako etxebizitza babestuen bizigarritasun-baldintzei buruzko ikuskaritzafuntzioa, eta esku hartzeko eskumena erabiltzea baldin eta eraikuntzazko edo bestelako urritasunak atzematen baditu. **Onartua.**

06.2.6. HIRIGINTZA

• Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari

- Hirigintza-ikuskaritzako Zerbitzuaren baliabide pertsonal, ekonomiko, material eta juridikoak hedatzea eta aholkua eta lankidetzaren eskaintza Nafarroako tokiko erakundeei, hirigintzako legeak babesteari buruz, urratutako ordena berrezartzeari buruz eta ondasun publikoen titulartasuna babesteari buruz.
- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen hurrengo aldaketan sartzea partikularrek eskubidea izan dezaten lurralde-antolamendua eta hirigintza hasiera batean onar dadin eta publikoki jakinaraz dadin, administrazio eskudunak ordenamendu juridikoa urratzen dela atzematen eta egiaztatzen duen kasuetan izan ezik eta, betiere, administrazio eskudunak azkenik onartzen duen azken ebazpena kontuan hartuta.

• Iruñeko Udalari

- Hirigintza-planeamendua taxutzeko prozeduretan eta, orokorrean, hirigintza-jarduerari loturiko prozedura

guztietan, herritar interesdunei eta, are gehiago, dagokion jarduerak eragiten dieten pertsoneri, hirigintzari loturiko albait informazio gehien eskuratzea. Zehazki, hirigintza-plana taxutzeko fasean alegazioa egiten duen pertsonari erantzuna eta jakinarazpena helarazi behar zaio aurkeztutako alegazioaren dagokion udal-erantzuna adierazteko. **Onartua.**

- **Orokorrean, toki-erakundeei.**

- Hala eskatzen duten pertsoneri eta, are arrazoi gehiagorekin, hirigintza-jarduerak eragindako pertsoneri, udalerrietako lurralde- eta hirigintza-informazioa eskura dezaten ahalbidetzea.

06.2.7. Zerbitzu publikoak eta ondare-erantzukizuna

- **Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta Toki Administrazioaren Departamentuari.**

- Funtzionario eskudunaren eta interesdunaren artean ahoz garatzen den eta in situ izenpetutako aktan gauzatzen den prozedura sinplifikatua eta, hala dagokionean, administrazio-errekurtsoak eta jakineko zenbateko batera arteko (adibidez, 3.000 euro) ondare-erantzukizunagatiko kalte-ordainen eskaerak bizkor balioesteko prozedura sinplifikatua ezar dadin aztertzea eta sustatzea.
- Administrazioaren hainbat sektore-esparrutan herritarrentzako arreta-zerbitzuak eta arreta-bulegoak ezar daitezten sustatzea, bai herritarrek eskatutako kudeaketak zuzenean gauzatzeko, alferrikako izapiderik nahiz atzerapen administratiborik gabe, eta bai eskaerak betetzeko, errekurtsioak idazteko eta abarretarako.

06.2.8. Herri-Lanak

• Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari

- Informazio publikoaren mende jartzen diren eta administrazioak onartzen dituen errepideen proiektu teknikoak aurreikusitako epeetan gauzatzea. **Onartua.**
- Departamentuaren eta udalerrri nahiz kontzejuen arteko beharrezko koordinazioa eta inplikazioa ezartzea, hartara, eskumen partekatua tratatzean, tartean diren administrazioek alderdi guztientzako onargarriak diren ondorioak lor ditzaten. **Onartua.**
- Espeleologia-jarduera gauzatzeari buruz:
 1. Nafarroako Foru Komunitateko leizeak arriskugarritasunaren arabera sailkatzea eta sailkapen horren arabera seinaleztatzea, fisikoki identifika daitezkeen moduan.
 2. Dagokion departamentuaren baimenpean ezartzea Nafarroako leizeetako espeleologia-jarduera, eta jarduera horretan behar adina esperientzia egiaztatzen duten eta aseguru nahiz banku-bermea aurkezten duten pertsonen soilik ematea baimena, erreskateren bat behar izanez gero gastuei erantzun ahal izateko eta eragin daitezkeen kalteei erantzun ahal izateko.
 3. Administrazioaren baimenik gabe leize batean sartzea arau-hauste administratibotzat jo dadila.
 4. Baremo ofizial bat onar dadila, erreskaterik egin behar izanez gero haren gastuak modu objektiboan zehazteko .

• Lizarrako, Uharteko eta Aurrabiako udalei.

- Bide publikoak zolatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko legezko betebeharra betetzea. **Onartua.**

06.2.9. Barne-Departamentua

• Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari

- Toki-erakundeei zuzendutako jarduera-protokolo bat taxutzea herriko jaietan suziriak jauritzean pertsonen edo ondasunen gaineko kalteak saihesteko.
- Urtero produktuetan kalitate onena eskaintzen duten piroteknia-enpresen sailkapena egiteko aukera aztertzea, toki-erakundeei enpresa horien piroteknia-produktuak eros ditzaten gomendatzeko.
- Estatuko administrazioari eskatzea drogaren mende dauden pertsona atxilotuak edo presoak kartzelaz bestelako berariazko zentroetara eraman ditzaten, hartara, pertsona horien gizarte-tratamendua eta errehabilitazioa osasun- eta gizarte-parametroen arabera gauza dadin, eta ez parametro penalen arabera. Eta, halako zentrorik ezean, kartzeletan talde horri zuzendutako modulu espezifikoak sor daitezen sustatzea, gainerako atxilotu edo presoengandik nahiz gaixo psikiatrikoengandik bereizita.

• Iruñeko Udalari

- Iritzi publikoak zalantzak baditu Udaltzaingoaren jardueraren batekin ofiziozko ikerketa irekitzea Udaltzaingoak berak edo Udaleko zerbitzu eskudunek, gertatutako jazoerak al bait bizkorren eta al bait gardentasun handienarekin argitze aldera. Halaber, iritzi publikoari ikerketaren emaitza jakinaraztea.

06.2.10. Hezkuntza

• Hezkuntza Departamentuari

- Eskola-curriculumean nutrizioari eta dietetikari loturiko eduki praktikoak sartzea, haur eta gazteengan elikadurari loturiko ohitura osasungarriak sustatzeko eta elikadurako nahasteek eragindako gaixotasunei aurrea hartzeko.
- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, eragin-esparru berak ezartzea udalerrri edo lurralde-eremu bereko zentro publiko eta pribatu hitzartuetarako eta, ondorioz, Zizur Zendea Iruñerriko eragin-eremukotzat jotzea. Onartua.
- Egokientzat jotzen den neurriak aztertzea eta onartzea (plangintzari, baliabide-antolaketari eta kudeaketari buruz) Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeles- eta frantses-irakaskuntzaren eskaerari erantzuteko. Halaber, hizkuntza horietarako azterketa libreetarako plaza-kopurua ez mugatzea eskolaren baliabide faltagatik.

06.2.11. Administrazio publikoekiko harremanetan herritarren eskubideak bermatzea

• Iruñeko Udalari

- Herritarrek bidalitako eskaera eta idatziei arauetan ezarritako epean erantzuteko betebeharra zorrotz betetzea. **Onartua.**

• Toki Administrazioaren Departamentuari

- Nafarroako Toki Erakundeetako idazkari eta kontu-hartzaileek urriaren 29ko 11/2004 Foru Legeko

(Nafarroako Toki Administrazioa eguneratzeari buruzkoa) lehen xedapen gehigarrian jasotako prozesua dela-eta egindako eskaerak jakinarazteko eta horiei erantzuteko betebeharra betetzea.

06.2.12. Ogasuna

• Ekonomia eta Ogasun Departamentuari

- Mugako langileen kasuan zerga-ezarpen bikoitza saihesteko behar diren neurriak hartzea eta, zehazki, herritarrei egoera horretaz informazioa emateko betebeharra ezartzea. **Onartua.**

• Hezkuntza Departamentuari.

- Hizkuntza-eskola ofizialetako gaur egungo tasa-salbuespena baino egokiagoa den prozedura bat ezartzea funtzionarioentzako eta haien senideentzako ikasketalauntzak esleitzeko. **Onartua.**

• Iruñeko Udalari

- Beste administrazio publikoekiko eta, zehazki, Gizarte Segurantzarekiko koordinazio-betebeharra betetzea, hartara, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzean administrazioari egotzi ahal zaizkion langile atzerritarren aurkako akatsak saihesteko. **Onartua.**

• Deikazteluko Udalari

- Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko tasak udal-ordenantza baten bitartez arautzea, justifikaziorik gabeko bereizkeriarik izan ez dadin zerbitzu horien erabiltzaileei ematen zaien tratuan. **Onartua.**

06.2.13. Industria

- **Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari**

- Enpresen gizarte-erantzukizunari buruz:
 1. Gizarte-erantzukizunari buruzko foru-lege bat edo gizarte-erantzukizuna sustatzeko plan bat prestatzeko aukera aztertzea.
 2. Nafarroako Gobernuak sortutako fundazio publikoa bultzatzea, gizarte-erantzukizuna sustatzeko.
 3. Enpresa publikoek gizarte-erantzukizunean zuzenean parte har dezaten sustatzea, baina administrazio publikoen partaidetza ere sustatzea, jarduera ekonomikoaren motor diren aldetik. Neurri zehatz gisa, minusbaliotasuna duten pertsonentzako gaur egun dagoen erreserbaren ehunekoa zabaltzea eta beste hainbat sektore gutxietsitara hedatzea iradokitzen da.
 4. Pizgarri ekonomikoak edo zerga-pizgarriak ezartzea gizarte-erantzukizuna gauzatzen duten enpresa publiko eta pribatuentzat; adibidez, jadanik Sozietateen Zergan hainbat inbertsioren kasuan egiten den moduan.

06.2.14. Elebitasuna

- **Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari**

- Arau bat onestea eremu mistoan lanpostuak eskuratzeko deialdietan euskara jakitea meritu gisa balioesteko, Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 18ko akordioaren arabera, betiere ezagutza hori ez bada baldintzatzat jotzen. **Onartua.**

- **Osasun Departamentuari**

- Etxarri-Aranazko Emakumeentzako Arreta Zentroko lanpostu guztiak aztertzea eta balioestea, bakoitzaren hizkuntza-eskakizunaren ezaugarriak zehazteko (batez ere, administrari laguntzaile eta osasun-hezitzaile lanpostuen kasuan), eta, ondorioz, euskara jakitea baldintzatat edo merezimendu kualifikatutzat jotzea. **Onartua.**

- **Leitzako Udalari**

- Leitzako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantza aldatzea, herritarrek Udalarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko duten eskubidea berma dadin eta, ondorioz, Udaletik helarazitako komunikazio, jakinarazpen eta idatziak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea berma dadin. **Ez da onartu.**

06.2.15. Nekazaritza

- **Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua (lehen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua)**

- Abeltzaintza-zerbitzuak aukera ematea interesdunek kontraesate- eta deuseztatze-probak egin ditzaten zigor-prozeduretan, abereen nahitaez sakrifikatzeko prozeduretan eta interesdunen aurkako efektuak sor ditzaketan gainerako prozedura guztietan. **Ez da onartu.**

- **Tuterako Udalari**

- Ingurumen Departamentuarekin batera bioaniztasuna mantentzen eta zaintzen laguntzea eta lankidetzan aritzea, fauna basatia eta habitat naturalak kontserbatzeko; zehazki, aprobeixamendu komunalen kasuan. Hartara, ondasun

horietako nekazaritza-ustiakuntzak ez da bateraezina izango tokiko landaredia babestearekin. Onartua.

06.2.16. Kultura

• Kultura eta Turismo Departamentuari - Vianako Printzea Erakundeari

- Estatuko nahiz atzerriko arte-zentroetan arte-ikasketak zabaltzeko laguntzen hurrengo deialdian aukera ematea beka eta laguntza horien deialdiak eten ziren denboran edo ikasturtean arte-ikasketak zabaldu zituzten pertsoneri ere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte, betiere.

06.2.17. Kirola

• Egueslbarko Udalari

- Sarrigurengo kirol-instalazioetan sartzeko baldintzak udal-ordenantza baten bitartez arautzea. Onartua.

07 _ ofiziozko ikerketak

2007

07 _ ofiziozko ikerketak



2007

CAPÍTULO V. KAPITULUA OFIZIOZKO IKERKETAK

07.1. 2007 URTEAN GAUZATUTAKO OFIZIOZKO JARDUERAK

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16 b) artikuluan esaten da Arartekoari dagokiola organo eskudunen eta administrazio publikoen zerbitzuko langileen legezko betekizunak zuzentzea, iradokitzea edo gogoraraztea. Hartara, legez lanpoko ekintzak edo ekintza bidegabeak zuzentzeaz gain, administrazioaren zerbitzuak hobetzen dira.

Arau horren c) letran Arartekoari esleitzen zaio lege-urritasunak adierazteko eskumena. Alegia, iradokizunak egin behar ditu, administrazioaren eta zerbitzu publikoen jarduerak objektibotasuna eta eraginkortasuna izan dezaten administratuen eskubideak bermatzean.

177

Bestalde, foru-lege horretako 18.1 artikulua erakundeari eskumena ematen dio edozein ofiziozko ikerketa has eta jarrai dezan, pertsona bati edo gehiagori eragiten ahal dioten administrazio publikoen ekintzak, ez-egiteak eta ebazpenak argitzeko.

2007. urtean, erakundeak ofiziozko 16 jarduera gauzatu zituen. Honako hauek dira, xede-erakundeen edo -administrazioen arabera sailkatuta:

• Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

1. Nafarroako hainbat herritan jaiak hasteko erabilitako suzirikin zauritutako pertsoneri eta har daitezkeen neurriei buruzko ikerketa labur bat irekitzea.

- **Hezkuntza Departamentua**

2. Unibertsitateaz bestelako hezkuntzan, batez ere nerabezeroari edo adin handiagokoei loturiko ikastaroetan, nutrizioari eta dietetikari, hots, elikadura egoki eta osasuntsuari, loturiko eduki praktikoak txertatzea eskola-curriculumean, egokitzen jotzen den iraupenarekin.
3. Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeles- eta frantses-eskaerari erantzuteko beharrezko neurriak aztertzea eta hartzea, eta hizkuntzetako azterketa libreetako plaza kopurua ez mugatzea giza-baliabideen faltagatik edo toki faltagatik.

- **Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.**

4. Espainiako mendekotasun-legeak ezartzen dituen prestazio ekonomikoak jaso behar dituzten Nafarroako herritarrei argitzea autonomia-erkidegoen baldintza beretan jasoko dituztela, alde batera utzi gabe Nafarroako Foru Komunitateak gizarte-laguntzaren esparruan dituen legezko eskumen eskusiboak defendatzea Auzitegi Konstituzionalaren aurrean.
5. Zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko sorospenekeo pentsioen (SOVI) zenbatekoak txikiak izateagatik eragindako egoera kontuan har dadin iradokizuna, Nafarroako ordenamenduan laguntza ekonomikoren bat (zentzu zabalean) sor dadin multzo horri zuzenduta, multzo horren baliabideak oinarrizko gutxienekora arte osatze aldera eta bizi-baldintza duinagoak izan ditzaten.
6. Gizarte Zerbitzuetarako hainbat iradokizun proposatu dira. Besteak beste:

- Adindunentzako prestazioak berezko esparrutzat tratatzea, etxean geratzeko politikak indartzea eta osasun-zerbitzuak behar bezala koordinatzea.
- Drogaren mende dauden pertsonentzako prestazio tekniko eta ekonomikoak sortzea eta, zehazki, oinarrizko errentako, minusbaliotasuneko eta aurreikusitako bestelako laguntzak jaso ditzaten bermatzea.
- Prestazioak ekarpen ekonomiko baliokide batekin ordeztu diren kasuetan, egoera hori behin-behinekoa dela argi zehaztea.
- Jasotzen diren prestazioen titular izateko oinarrizko irizpide orokorrak ezartzea..
- Prestazioen eraginkortasun-epeak hiru hilabeteko epe orokorra ez gainditzea.
- Irizpideak definitzea eta zehaztea koordainketaren zenbatekoa eta, hala badagokio, ekarpen ekonomiko horretako salbuespenak zehazteko, erabiltzaileak ahalmen ekonomiko eskasa duen edo batere ahalmenik ez duen kasurako.
- Aztertzea zer aukera dagoen gizarteratze-etxebizitzak eskuratzeko laguntza —hasiera batean bermatu gabeko gisa proposatu zena— prestazio bermatua izan dadin..
- Nafarroan urtebetez bizi izana aski izatea gizarterbitzuetan ezarritako oinarrizko errentaren prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko.

7. Haurren eta nerabeen egoerari buruzko informazioa eskatzea, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea betetzen den egiaztatze aldera.

• Familia, Gazteria, Kirol, eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Osasun Departamentua.

8. Drogaren mende dauden pertsonen eta haien familiei laguntza integrala emateko hainbat neurri iradokitzea, hala nola:

- Drogaren mende dauden pertsoneri heroina-dosia modu kontrolatuan emateko aukera aztertzea, metadonaz bestelako tratamendu gisa, metadonaren ordezeko medikamenturik eskaini ezin zaien bitartean.
- Metadona-tratamendua jasotzen duten drogaren mendeko pertsoneri ziurtagiri medikoa ematea, egoera hori egiaztatu ahal izan dezaten zirkulazio-kontroletan egokituz gero.
- Drogaren mende dauden pertsonak gaur egun duten segimendu mediko eta psikiatrikoaren sistema nabarmen hobetzea, jarraituagoa, zuzenagoa eta eraginkorragoa izan dadin.
- Drogaren mende dauden pertsonen senideei laguntza handiagoa eskaintzea, droga-mendetasunaren biktima zuzenak izateagatik.

• Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua

9. Nafarroako Foru Komunitatean kutsadura akustikoaren arazoa berariaz tratatzera bideratutako foru-legearen proiektua taxutzea komeni den aztertzeko iradokizuna. Proiektu horretan, besteak beste, foru-komunitateko administrazioaren jarduera-aukerak indartu behar dira, zuzenean eta berehala eteteko edo ixteko, baldin eta herritarren oinarrizko eskubideak urratzen direla atzematen bada.

• Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

10. Nafarroan espeleologia praktikatzeko arauak erregulatzea, Nafarroako leizeetan espeleologia praktikatzen duten pertsonak erreskatatzean erreskateko langileen nahiz pertsonen arriskua murrizteko eta prebenitzeko, eta altxor publikoaren gastua murrizteko: hainbat leize ixtea edo arrisku-seinaleak jartzea, espeleologia praktikatu ahal izateko

aurretik administrazioaren baimena eskuratu beharra ezartzea, baimenak justifikatutako kasuetan (zientzia, ikerketa) eta esperientzia egiaztatzen duten pertsonen soilik ematea, aseguru nahitaezko izatea, kalteak saihesteko banku-bermea nahitaezko izatea, erreskate-gastuak baremo ofizialaren arabera kobratzea.

• Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua

11. Gizarte-ardurari buruzko politika publikoak sustatzeko hainbat neurri iradoki dira. Bestek beste:

Enpresen gizarte-ardurari buruzko edo gizarte-ardura sustatzeko planari buruzko foru-lege baten proiektua taxutzeko aukera.

- Nafarroako Gobernuak gizarte-ardura sustatzeko erakunde publikoa sortzea.
- Gizarte-ardura sustatzea, bai enpresa pribatuetan eta bai administrazio publikoan. Horretarako, hainbat neurri hartu behar dira, hala nola minusbaliotasuna duten pertsonak funtzio publikoan sar daitezten aurreikusitako erreserba-hunekoa handitzea edota beste kolektibo ahul batzuetara hedatzea.
- Gizarte-ardura praktikatzeko duten enpresa publikoen pizgarri ekonomikoak edo zerga-pizgarriak ezartzea.
- Gizarte-ardura sustatzeko eta ezartzeko lana egitea baliabide eta aukera gehien dituzten Nafarroako enpresen artean.

• Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua eta Iruñeko Udala

12. Behar adina gaitasun tekniko duten udalerriei eskumenak emateko neurriak sustatzea, ordenantza bidez zehatz ditzaten beren lurralde-esparruko

etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak, eta etxebizitza horiek kontrola ditzaten eskumenak ematea, bizigarritasun-zedularen bitartez.

• Iruñeko Udala

13. Sanferminetan Miserikordia Etxearen ondoan barrakak jartzeari buruzko neurri batzuk hartzeko iradokizuna:

- Egoitzaren barruan arauzko zarata-muga onargarriak gainditzen ez direla bermatzea.
- Gauean muga-ordutegia ezartzea, eta ordu horretatik aurrera musikarik ez erabiltzea edo beharrezkoak ez diren zaratak ez egitea.
- Egiatztatzea barraketako soinu-jarduera ez dela arintzen hor bizi diren pertsona adindunen duintasuna gutxiesten duten konponbideekin.

14. Iruñeko herritar baten heriotzari buruzko ikerketa hasia, jakiteko heriotzak lotura zuzen edo zeharkakorik izan zuen Iruñeko udaltzainen baten kolpe edo ekintzaren batekin. Informazioa jaso eta gero, espedientea Fiskaltzara bidali zen lehendabizi, eta ondoren, dagokion auzitegira, delitu-aztarnarik zegoen egiaztatzeko.

15. Zilbetiko Monasterioa kaleko etxabeetan dauden tabernetako gehiegizko soinuari buruzko ikerketa hasia; zehazki, kale horretako 2, 4 eta 6 zenbakietan dauden etxebizitzetara dagokienez. Ikerketa horretan, lege-betekizunak gogorarazi zitzaizkion Iruñeko Udalari, kasu horretan eta antzekoetan bizkor eta eraginkortasunez erabil ditzan ostalaritza-jarduerak kontrolatzeko udal-eskumenak. Halaber, iradoki zen musika-instalazioak berehala itxi daitezkeen eta esku hartzen duten ostalaritza-establezimenduen jarduera

eten dadin, bai eta jarduera-lizentzia ken, berrikus edo alda dakien ere, legearekin bat. Hartara, jarduera horiek funtzionatzen jarrai dezaten saihesten da, lege aplikagarrietara erabat egokitu daitezten arte.

• Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoa

16. Benidormeko Udaltzaingoko kideek Fontellas udalerriko Nafarroako herritar baten aurka izandako ustezko jokabide desagokia aztertu da. Antza, modu intolerante eta onartezinean tratatu zuten, nafar jatorriko pertsonenganako xenofobia adieraziz.

07.2. NAFARROAKO HAUR ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Haurrak eta nerabeak sustatzeari, babesteari eta aldezteari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikuluan ezartzen da Nafarroako Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak zaindu behar dituela, eta dagozkion neurriak hartuko dituela. Neurri horien artean, Foru Komunitateko haurren eta nerabeen egoera balioetsiko du urteko txostenean.

2007 urtean, erakundeak txosten berezia egin zuen Nafarroako administrazio publikoek adin txikikoak babesten egindako lanari buruz. Txosten hori Nafarroako Parlamentuko Foru Araubidearen Batzordearen aurrean aurkeztu zen 2008ko otsailaren 21ean, eta Nafarroako Parlamentuko aldizkari ofizialaren 2008ko otsailaren 12ko 13. zenbakian argitaratuta dago.

Bestalde, 2008ko urtarrilaren 2an Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariari eskatu zitzaion informazioa eman zezan 2007an Nafarroan haurrek eta nerabeek izandako egoerari buruz eta, zehazki, honako informazio hau eman zezan eskatu zitzaion:

- Gauzatutako arauak (erregelamenduak eta antolamendua), politiken ebaluazioa, planak eta programak.
- Foru Legeari loturik gauzatutako jarduera nagusiak: prebentzio-jarduerak; ekitaldi honetan adierazitako babesneurriak, zaintza, tutoretza, harrera, arrisku- eta babesgabetasun-egoerak eta aurreko ekitaldikoekiko konparazioa; gauzatutako Estatuko nahiz nazioarteko adopzioak; gizarte-gatazkan dauden adin txikikoak edo erreforma-sistemari lotuta daudenak; adin txikikoen zentroen kopurua eta horietan bizi diren adin txikikoen kopurua; jasotako salaketa kopurua; irekitako administrazio-urratzeen espedienteak edo espediente penalak; deklaraturako administrazio-urratzeak eta ezarritako zigorrak (tipifikatzea eta sailkapena deskribatuz).

2008ko urtarrilaren 22an, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak honako informazio hau eman zuen:

- a) Foru Legean aipatzen diren politika-ebaluazioei, planei eta programei dagokienez, departamentuak Zailtasun Sozialean dauden Haur eta Nerabeen Arreta-planaren garapena ebaluatu du Nafarroako Foru Komunitatean. Ebaluazio hori jarraipen-batzordearen aurrean aurkeztu zen 2007ko maiatzean.
- b) Departamentua bigarren proiektu bat garatzen ari da. Bigarren proiektu horretan, aztertzen da gaur egun zer egoeratan dagoen Nafarroako Gobernuak zailtasun eta gatazka sozialean dauden haur eta nerabeei arreta emateko duen baliabide-sarea.
- c) Familiaren Zuzendaritza Orokorrek gida bat taxutu du abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari buruz, lege hori ezagutzea eta aplikatzea errazte aldera. Gida taxutzeko, Iruñeko, Iruñerriko, Lizarrako, Tafallako eta Tuterako udal gizarte-zerbitzuekin hainbat lan-saio egin dira, bai eta

adin txikikoen babesari loturiko hainbat erakunde eta zentzorekin ere.

d) Haurren babesari buruzko prestakuntza-planei dagokienez, Gizarte Gaietako Departamentuak, Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan, Nafarroako Foru Komunitateko irakasleak prestatzen ari da. Hartara, irakasleentzako prestakuntza-planen barruan "Haurren babesa: ikastetxearen rola" ikastaroa eskaintzen ari da, eta hainbat lan-saio egin dira irakasleentzako prestakuntza-zentroetan, gai horri buruzko gida ezagutarazteko eta zabaltzeko. Ikastaroak helburu hauek ditu: 1) dokumentuko oinarritzko edukiei buruz hausnartzeko eta azaltzeko gune bat eskaintzea; 2) bertaratutakoek oinarritzko "hizkuntza komuna" erabiltzea eskola-esparruko haur-babesari buruz; eta 3) kasu eta egoera errealekin praktikatzea ikastetxe batean "hizkuntza komun" horrek dituen eguneroko inplikazioekin.

e) 2007ko apirilaren 29an, familia-elkarteetako eta guraso-elkarteetako ordezkarien aurrean "Haurren babesa eta familiaren rola" gida aurkeztu zen.

f) 2007ko azaroaren 20an, haurtzaroaren egunean, bi jardunaldi egin ziren "haurrek ikus-entzunezko hedabideetan dituzten eskubideei" buruz.

g) 2007 urtean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluarekin izenpetutako hitzarmenaren esparruan, lantegiak egin dira ikus-entzunezko hedabideen erabilera egokia familiekin lantzeko, berariaz horretarako materialak taxutuz. Aurten, guraso-elkarteetako nahiz bestelako erakunde eta elkarteetako 631 pertsonak parte hartu dute lantegi horietan.

h) Babes-neurriei dagokienez, honako datu hauek daude:

	2006	2007
Babesgabetasun/tutoretza automatikoak	43	38

- Egoitza-harrerak, zailtasun soziala: 30
- Gatazka sozialeko egoitza-harrerak (BHZ Behaketa eta Harrera Zentroaren babesean dauden 71 adingabe barne). 145
- Bakarrik datozen adingabe atzerritarrak: 14
- Justizia-neurriak betetzen ari diren adingabeak:
 - Ingurune irekiko betetze-neurriak: 181
 - Erregimen itxiko betetze-neurriak: 28
 - Kautelazko neurriak eta asteburua zentroan igarotzea: 12

Adingabeen zentroak	Plazak	2007ko abenduaren
21	179	62 gatazka sozialean eta 104 zailtasun sozialean

- Familia-harrera berriak: 39
- Familia-harrerak denetara: 267
- Adingabeak Babesteko Ataletik poliziara bideratutako salaketak: 7
(Adingabeak Babesteko Atalak ez du salaketarik jasotzen)
- Estatuko adopzioak: 12
- Nazioarteko adopzioak: 98

i) Irekitako administrazio-urratzeen espedientei edo espediente penalei dagokienez, eta deklaraturako administrazio-urratzei eta ezarritako zigorrei dagokienez, Familia, Haurtzaro eta Kontsumoko zuzendari nagusiak zortzi ebazpen eman zituen 2007an. Horietan, guztira 7.009,2 euro ordaintzea agindu zuen erantzukizun zibilagatik, adingabeen auzitegietan bideratutako erantzukizun zibilar buruzko hainbat prozeduratako sententziak betetzean.

08 _ nafarroako administrazio
publikoek arartekoarekin
egindako elkarlana

Erakunde eta entitate
ez-laguntzaileak

2007

08 _ nafarroako administrazio
publikoek arartekoarekin
egindako elkarlana

Erakunde eta entitate
ez-laguntzaileak



2007

VI. KAPITULUA

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOAREKIN EGINDAKO ELKARLANA

ERAKUNDE ETA ENTITATE EZ-LAGUNTZAILEAK

08.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren funtzioa da Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako herritarren eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobetzea. Berme-funtzio hori gauzatzeko, norbanakoen eskubideen administrazio egokia eta errespetua bultzatzen ditu erakundeak, eta, horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntzea. Hala, erakunde horiek obligazioa dute, lehenetsunez eta presaz Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari laguntzeko eta hark egindako oharpen, gomendio, lege-betebeharren gogorarazpen eta iradokizun oro betetzeko hartutako neurrien berri emateko edo, neurri horiek hartu ezean, jokaera horren arrazoiak azaltzeko.

189

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari laguntzeko legezko betebeharra betetzen ez bada, informazioa bidaltzean arrazoirik gabeko atzerapenik gertatzen bada, jarduerak justifikatzen ez badira edo, beste edozein motiborengatik azken finean erakundeen arteko harremanak behar bezalakoak ez badira, murriztu egiten da herritarrek erakunde parlamentario hori erabiltzeko duten eskubidea —erakundearengandik erantzun azkar eta eraginkor bat jasotzeko eskubidea—, eta, horrekin, ordenamendu juridikoa urratzen da.

Laguntza emateko betebeharra ez betetzeak administrazio-arloan dituen ondorioei dagokienez, honela dio Nafarroako Foru

Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak: hasierako informazioa edo dokumentazioa bidaltzeko edo horiek eskuratzeko eskaera egin ondoren, administrazio publikoko langileek edo haien nagusi edo arduradunek jarrera negatiboa edo zabarra agertzen badute, Nafarroako Arartekoak oztopotzat har dezake jarrera hori. Hala, Arartekoak berehala publiko egin dezake gertatutakoa, eta kalifikazio hori ezar dezake Nafarroako Parlamentuari bidaltzen dion urteko txostenean.

Horrez gain, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2 artikulua arabera, neurri berriak hartzeko oharpenak, gomendioak, lege-betebeharren gogorarazpenak edo iradokizunak jaso ondoren, bi hilabete baino gutxiagoko epean, dagokion administrazio-agintaritzak Arartekoak adierazitako neurria hartzen ez badu, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari jarrera horren arrazoiak azaltzen ez badizkio edo jarrera hori azaltzeko justifikazio egokirik ez badu, Arartekoak urteko txostenean edo txosten berezian jasoko du gertatutakoa. Txosten horretan, Arartekoaren ustez arazoa konpon zitekeen baina jarrera txarragatik konpondu ez den kasuetan, espresuki aipatuko dira jarrera hori izan duten administrazio publikoko agintari edo langileen izenak.

Halaber, aipatutako Foru Legeko 16 e) artikulua arabera, Arartekoak egindako lan, ikerketa eta urteko txostenen berri eman behar da, oro har, Arartekoaren beraren bitartekoen bidez eta, bereziki, komunikabide publikoen bidez.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 9ko 43/2007 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Arartekoari laguntzen ez dioten administrazio eta erakundearen erregistroa sortu zuen erakundeak. 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, erregistro horretan argitaratuko dira, batetik, Arartekoaren ikerketa eta ikuskapenentarako eskatutako informazioa bidaltzen ez duten administrazio eta erakundeak; bestetik, Arartekoak egindako oharpen, gomendio, lege-betebeharren gogorarazpen eta iradokizunei erantzuten ez dioten administrazio eta erakundeak; eta, azkenik, Arartekoak hartutako erabakia ez onartzeaz gain, hori

egiteko arrazoi egokiak ematen ez dituzten administrazio eta erakundeak.

08.2. LAGUNTZEKO BETEBEHARRAREN BETETZE-MAILA 2007AN

Oro har, 2007an, Nafarroako administrazio publikoek Nafarroako Arartekoari emandako laguntza oso positibotzat har daiteke. Izan ere, administrazio gehienek ikerketa-txostenetan eskatutako informazioa bidali zuten eta Arartekoak egindako gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorazpenak onartu zituzten.

Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan laguntza emateko betebeharra urratu zen , eta, kasu horietan, kexa-espedienteak ebazteko zailtasunak izan ziren.

191

2007an laguntza emateko betebeharra bete ez zuten erakundeen kasuak 2006ko ekitaldikoekin alderatuta, esan behar da 2007an laguntza eman ez zuten erakundeen kasu gutxiago izan zirela (2006an 24 eta 2007an 22). Gainera, kontuan izan behar da 2007an 2006an baino kexa gehiago kudeatu zituela Arartekoak.

Hala, ekitaldi bakoitzean kudeatutako kexa kopurua kontuan izanda, 2007an erakundeen % 3,3k urratu zuten laguntzeko betebeharra, eta 2006an, berriz, % 4k.

Datu horietatik bi ondorio ateratzen ditugu:

Batetik, 2007an administrazioek laguntza gehiago eman zuten 2006an baino.

Bigarrenik, laguntza emateko betebeharra urratu zuten administrazioen kopurua oso txikia da. Hala ere, 2008an ehuneko hori are gehiago murrizten saiatu behar dugu.

Urteko txostenari kapitulu hori gaineratuz, Nafarroako Parlamentuari eta, beraz, iritzi publikoari, jakinarazi nahi zaio zer erakundek jokatu duten zabarkeriaz Arartekoaren erakundearekin, eta, ondorioz, Arartekoaren jardura galarazi edo atzeratu duten eta herritarrek egindako kekek dagokion epean konpontzea oztopatu duten zaio.

Hain da handia ordenamendu juridikoak administrazioen laguntza-betebehar horri ematen dion garrantzia, non obligazio horren muturreko ez-betetzeak ondorio penalak baititu. Hala, batere laguntzarik ez ematea Estatuaren erakundearen eta boterebanaketaren aurkako delitutzat jotzen da Zigor Kodeko 502.2 artikuluan. Artikulu horren arabera, enplegua edo kargu publikoa sei hilabetetik bi urtera bitarteko epean kentzeko zigorra ezar dakieke "Arartekoaren, kontu-auzitegiaren edo autonomia-erkidegoetako erakunde baliokideen ikerketak" oztopatzen dituzten agintari edo funtzionarioei, "erakunde horiek eskatutako informazioa bidaltzea ukatuz, informazio hori bidaltzeko denbora bidezkoa ez den moduan luzatuz edo ikerketa horiek egiteko behar diren espedienteak edo administrazio-agiriak lortzeko zailtasunak jarritz".

Bistan denez, muturreko egoeretan bakarrik jotzen da Zigor Koderak; alegia, gainerako aukera guztiek porrot egin dutenean eta egoerak benetan hala eskatzen duenean. Egiaz, zaila da egoera horretara iristea.

Kasu batzuetan, gomendio edo iradokizun jakin bat ez onartzeko arrazoiak ematen dituzte administrazio publikoek. Horrelakoetan, ebazpena ez dela onartu aipatzen da III. kapituluan, baina horrek ez du esan nahi administrazio hori ez-laguntzaitzat hartzen denik.

08.2.1. Ikerketa-fasean Arartekoaren eskakizunei erantzun ez dieten administrazioak eta oztopoztat hartzen direnak

Atal honetan, Arartekoak ikerketetarako informazioa emateko eskakizunei erantzun ez dieten administrazioen organo eta unitateak (4) zerrendatzen dira.

Artaxoako Udala

Espedientea: 06/417

Txarrerako aipamen berezia egungo alkateak Arartekoaren kontra izandako jarrerari.

Arloa: Gizarte Ongizatea

Gaia: Minusbaliotasuna duen pertsona bati garraio egokitua edo, haren ordeztu, diru-laguntza ekonomikoa ukatzea

193

Andosillako Udala

Espedientea: 05/54

Arloa: Herri Lanak

Gaia: Oinezkoen pasabide goratuak eragindako kalteak eta bibrazioak

Barañaingo Udala

Espedientea: 07/270

Arloa: Ingurumena

Gaia: Lokal bat ibilgailuen udal-gordailu gisa erabiltzeagatik sortutako eragozpenak

Burlatako Udala

Espedientea: 07/185

Arloa: Hirigintza

Gaia: Udal-plangintza orokorraren aldaketa

08.2.2. Gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorazpenei erantzun ez dieten administrazioak edo arrazoia egoki justifikatu gabe baztertu dituztenak

Arartekoa arautzen duen Foru Legeko 34.2 artikulua aplikatuz, herritarren keak direla-eta Arartekoak egindako oharpen, gomendio, lege-betebeharren gogorazpen edo iradokizunak bete ez dituzten unitate eta administrazioen kasuak (18) agertzen dira ondoren, bi taldetan banatuta:

Lehenengo taldean, gomendio, iradokizun edo lege-betebeharraren gogorazpena azaltzeko lehenengo idatziari zehaztutako epean erantzun ez dieten administrazioen bost kasu daude.

Bigarren taldean dauden administrazioek, berriz, erantzun diete gomendio, iradokizun edo gogorazpenei, baina emandako erantzunean ondorioztatzen da ez dituztela onartzen neurri horiek.

*08.2.2.1. Gomendio, iradokizun edo lege-betebeharraren gogorazpenei erantzun ez dieten administrazioak***Lizarrako Udala**

Espedientea: 06/106

Arloa: Herri Lanak eta Zerbitzuak

Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena

Gaia: Kaleen egoera txarrak eragindako kalteak

Leitzako Udala

Espedientea: 06/323
Arloa: Kultura, Kirola, Gazteria eta Elebitasuna
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Udalak bizilagunekin dituen harremanetan gaztelania erabiltzeari uko egitea

Atarrabiako Udala

Espedientea: 02/280
Arloa: Hezkuntza
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Atarrabiako Artagi ikastetxe publikoko instalazioen arazoak

195

Montejurrako Mankomunitatea

Espedientea: 06/178
Arloa: Herri Lanak eta Zerbitzuak
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Aldi baterako okupazioa dela-eta adostasunez egindako agiri bat ez betetzea

Izuko Kontzejua

Espedientea: 06/190
Arloa: Ogasuna
Mota: Gomendioa
Gaia: Finka katastrala aldatu eta partzela horretako bidea berritzea

08.2.2.2. Gomendio, iradokizun edo lege-betebeharren gogorarazpenak onartu ez dituzten administrazioak

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua

Espedientea: 02/224
 Arloa: Ingurumena
 Mota: Iradokizuna
 Gaia: Abeltzaintzako ustiategiak bizilagunei eragindako kutsadura

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua

Espedientea: 07/193
 Arloa: Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
 Mota: Lege-betebeharraren gogorarazpena
 Gaia: Abeltzaintzako ustiategi baten ikuskapenaren eta saneamenduaren emaitzarekiko desadostasuna. Erabilitako teknikarekin ados ez egotea eta administrazioak kontraesan- frogari uko egitea.

Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzua (hiru kasu)

Espedientea: 06/79
 Arloa: Osasuna
 Mota: Gomendioa
 Gaia: Osasun-garraioaren gastuak itzultzea.

Espedientea: 06/261
 Arloa: Osasuna
 Mota: Gomendioa
 Gaia: Tuterako Reina Sofia Ospitalean Pediatriako guardiako txandak egiteko modua.

Espedientea: 06/390
Arloa: Osasuna
Mota: Gomendioa
Gaia: Funtzioen bikoiztasuna Lizarrako García Orcoyen
Ospitaleko larrialdi-zerbitzuetako alboko
sendagileen eta SAMUren artean

Artaxoako Udala

Espedientea: 06/417

Txarrerako aipamen berezia alkateak izandako jarrerari

Arloa: Gizarte Ongizatea
Gaia: Minusbaliotasuna duen pertsona bati garraio
egokitua edo, haren ordeztu, diru-laguntza
ekonomikoa ukatzea.

197

Barañaingo Udala

Espedientea: 06/245
Arloa: Ingurumena
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Etxabe bateko zaratak eta usainak sortutako
eragozpenak.

Zizur Nagusiko Udala

Espedientea: 06/344
Arloa: Funtzio Publikoa
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Teknikari bat aukera-berdintasunean aukeratzeko
prozesuan izandako irregulartasunak

Esprontzedako Udala

Espedientea: 07/203
Arloa: Hirigintza eta Etxebizitza
Mota: Gomendioa
Gaia: Obra-lizentzia baten emakidarekin ados ez egotea

Goizuetako Udala

Espedientea: 05/317
Arloa: Ingurumena
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Etxebizitza batetik gertu dagoen tabernak sortutako eragozpenak

Iruñeko Udala (bi kasu)

Espedientea: 06/436
Arloa: Trafikoa eta Barne Saila
Mota: Gomendioa
Gaia: Aparkatzeko multa bat baliogabetzea frogarik ezagatik

Espedientea: 07/186
Arloa: Gizarte Ongizatea
Mota: Gomendioa
Gaia: Minusbaliatuentzako aparkaleku-txartela ukatzea

Tulebrasko Udala

Espedientea: 05/389
Arloa: Hirigintza eta Etxebizitza
Mota: Lege-betebeharraren gogorazpena
Gaia: Aisialdirako landa-etxeak eraikitzea

08.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKO NAGUSIEN ONARPEN-MAILA

2007an administrazio publikoek onarpen oso handia adierazi zuten Arartekoaren erabakien aurrean. Hala eta guztiz ere, administrazio publikoek ematen duten laguntza areagotu beharra azpimarratzen jarraitu behar da.

Ondorengo taulan ageri diren ehunekoak dira esandakoaren adibiderik argiena. Foru Komunitateko administrazio departamentuen datuak ageri dira taulan. Departamentu horietako bakoitzean 2007an itxitako hiru kexa-espediente edo gehiago —errekamaziogileari arrazoia ematen ziotenak— ikuskatu zituen Arartekoak.

2007 ekitaldean 3 kexa-espediente edo gehiago izan dituzten administrazioak	Jasotako kexax	Onartutako kexax	Onartu ez diren kexax		
NAFARROAKO GOBERNUA					
Hezkuntza	17	17	100,00%	0	0,00%
Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kirola	12	12	100,00%	0	0,00%
Erri Lanak, Garraioa eta Komunikazioak	5	5	100,00%	0	0,00%
Ekonomia eta ogasuna	4	4	100,00%	0	0,00%
Etxebizitza eta Lurralde					
Antolamendua	10	9	90,00%	1	10,00%
Osasuna	26	22	84,62%	4	15,38%
lehendakaritza, Justizia eta Barnea					
Landa Garapena eta Ingurumena	3	1	33,33%	2	66,67%
TOKI ADMINISTRAZIOA					
Tuterako Udala	4	4	100,00%	0	0,00%
Iruñeko Udala	25	23	92,00%	2	8,00%

Taulan ikusten den bezala, aukeratutako hamar administrazioetatik bostek Arartekoak emandako ebazpenen % 100 onartu zituzten. Beste lauk ebazpenen % 80 baino gehiago onartu zituzten, % 100era iritsi gabe. Eta administrazio bakar batek bakarrik —Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak— agertu du ebazpen horien onarpen eskasa.

09 _ txosten bereziak

2007

09 _ txosten bereziak



2007

VII. KAPITULUA TXOSTEN BEREZIAK

09.1. SARRERA

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legoko 36.2 artikulua arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ahalmena du Nafarroako Parlamentuaren aurrean txosten berezi edo monografikoak aurkezteko, gertakarien larritasun, garrantzia edo premiak hala eskatzen dutenean.

Hala, 2007an txosten berezi bat amaitu zuen Arartekoak, "Adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik" izeneko, eta 2007ko abenduaren 20an aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordearen aurrean. 2007ko abenduaren 10eko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean (36 zk.) argitaratu zen txosten hori.

203

Halaber, 2007an amaitu zen "Nafarroako administrazio publikoek adingabeen babesari buruz egin beharreko jardueri buruzko txosten berezia". Txosten hori 2008ko otsailaren 12ko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean (13 zk.) argitaratu zen, eta 2008ko otsailaren 21ean aurkeztu zen Foru Araubideko Batzordearen aurrean.

Bestalde, urte horretan bertan, beste lau txosten berezi egiten hasi ziren, gai hauei buruzkoak:

1. Osasun-administrazioako langileen kontrako indarkeria prebenitu, tratatu eta murrizteko proposamenak.
2. Hirigintza-jarduerako administrazio-isiltasuna (bereziki, plangintzak isiltasun bidez onartzea).
3. Nafarroako zerga-sistemari buruzko txosten berezia.

4. Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txostena.

Lehenengo bi txostenen behin betiko idazketa 2007an amaitu zen. Nafarroako Parlamentuari bidali zizkioten 2008ko otsailean, eta Foru Araubideko Batzordearen aurrean aurkezteko zain daude.

Nafarroako zerga-sistemari buruzko txosten berezia 2008ko martxoan amaitu zen, eta datozen hilabeteetan Nafarroako Parlamentuari aurkeztea espero da. Azkenik, Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txostena idazten ari dira.

09.2. "ADIN GUZTIENDAKO GIZARTEA. ZAHARREK ERE BADUTE ZERESANIK" TXOSTEN BEREZIA"

2006an ekin zioten txosten berezi horri, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte-ongizateak adineko pertsoneri aplikatzen dien sistemari buruzko zenbait gomendio eta hobekuntza proposatzeko Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari.

Espainiako eta Nafarroako adinekoen eskubideak, adinekoen eskubide eta betebeharrei buruzko kartak eta adinekoen errealitate soziala aztertu ondoren, gomendio eta iradokizun hauek jasotzen ditu txostenak:

- 1º Nafarroako administrazio publikoek orain arte adinekoei eskaini dieten arreta integralari buruzko politika publikoaren ebaluazioa bultzatzea dezan gomendatzea Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuari.
- 2º Ebaluazio hori egin ondoren, Nafarroako Gobernuari gomendatzea bi neurri hauek hartzeko dauden aukerak azter eta balioets ditzan: adinekoei buruzko

foru-lege bat aldarrikatzea edo, bestela, adinekoei buruzko plan bat bultzatzea. Aukeratutako neurriak gizartearen parte-hartze zabala izan behar du —haren eskubideak indartu eta finkatuko dituen—, eta adinekoen babes eta arretarako eta zahartzaro aktiboa sustatzeko politika integralen esparru orokorra definitu behar du.

3º Nafarroako Gobernuak bultzatzea, aurreikusita dagoen bezala, “Nafarroako gerontologia-plangintza” berria egin eta onar dezan. Plangintza horrek integrala izan beharko luke eta erantzuna eman beharko lieke adinekoen arloko estrategia eta nazioko zein nazioarteko plangintzei —helburu, xede eta aurrekontu jakinen bidez—, kontuan izanik adinekoek ez dutela talde homogeen bat osatzen eta guztiek ez diotela estereotipo jakin bati erantzuten. Beraz, eskaintzen diren zerbitzu eta ekimenek ere askotarikoak eta pluralak izan behar dute.

4º Botere publiko eskudunak bultzatzea Konstituzioko 50. artikuluan aitortutako eskubidea modu eraginkor eta errealean bermatu dezaten. Artikulu horren arabera, hirugarren adineko pertsonen eskubidea dute aldizkako pentsio publikoa eta egokia jasotzeko. Horretaz gainera, Nafarroako Gobernuak, egoki iritziz gero, Nafarroako aurrekontu orokorren kontura osa ditzake hirugarren adineko kolektibo batzuen diru-sarrera apalak (emakume alargunak, SOVI zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko sorospenaren onuradunak...).

5º Nafarroako Gobernuak gizarte-zerbitzuen sorta onartzea, Gizarte Zerbitzuen Foru Lege berriaren eta gainerako araudi aplikagarriaren arabera, eta, zerbitzu horien artean, adinekoei bermatutako prestazioak zehaztea eta adinekoak bere etxean edo ingurunean jarraitzeko politikak indartzea: etxeko laguntza, eguneko

zentroak, komunitate-zerbitzuak, familiari eta zaintzaile nagusiari emandako laguntzak, etab. Adinekoak bere borondatez erabaki behar du zahar-etxera joatea, edo, bestela, etxeko laguntza nahikoa ez denean hartu beharreko irtenbidea izan behar du.

6º Gizarte-zerbitzuei buruzko Foru Lege berriaren bidez, abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatuz —autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretari buruzkoa— autonomia-erkidegoetan lortzen den babes-maila berdindu eta, ahal izanez gero, hobetu egin behar da —baita adinekoen eremutik kanpoko gaietan ere—, horretarako egokitzat jotzen den formula erabiliz.

7º Nafarroako Adinekoen Kontseiluak adinekoen ikuspegia sektore-politiketan txertatzen parte har dezan sustatzea (gutxienez, osasunean, gizarte-ongizatean, hezkuntzan, hirigintzan, etxebizitzan, garraioan eta komunikazioan) .

8º Aztertzea ea komeni den Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan, Gizarte Gaietako Departamentuan, hainbat diziplinako profesionalak osatutako adituen batzorde bat sortzea. Batzorde horren lana izango litzateke, gizarteko egoeraren arabera, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko neurriak eta ekimenak aztertu, eztabaidatu eta proposatzea (osasuna, gizarte-laguntza, garraio publikoa, pentsioen osagarritasuna, zuzenbide zibila, ikerketa, komunikazioa...), administrazio-jardueraren egunerokotasunetik kanpo eta jarduera horrek baldintzatu gabe.

9 Nafarroako administrazio publikoetan organo eta administrazio-egitura egokiak sortzea, adinekoen babes eta arretarako politika integralak koordinatu eta bultzatzeko eta zahartzaro aktiboa sustatzeko.

10º Osasun Departamentuak arreta geriatrikoaren arloko osasun-zerbitzuak indartzea, zerbitzu horiek arlo horretan dauden beharrak bete arte zabaltzea eta “Mendekotasunaren prebentzio integralerako programa” bultzatzen jarraitzea. Adinekoen gaixotasun espezifikoagoen eta horien ondorioen prebentzio, sendaketa, errehabilitazio eta arretarako giza baliabide, baliabide ekonomiko eta material gehiago bideratzeko beharra aztertzea. Adinekoek adierazitako beharrak nagusienetakoak dira, batetik, geriatrek arreta espezializatua eskaintzea —haurrentzako pediatrek eskaintzen dutenaren antzekoa— eta, bestetik, adineko asko dauden zentroetan (zahar-etxeak...) geriatrak izatea..

11º Osasun-zerbitzu eta ospitaleen arteko artikulazioa edo, beharrezkoa denean, koordinazio eraginkorra bultzatzea —batez ere, oinarrizko zerbitzuen edo lehen mailako arreta eskaintzen dutenen artekoa—, gaixotasun kronikoak dituzten adinekoei gizarte- eta osasun-arreta bermatzeko. Gizarte- eta osasun-arreta gisa ulertzen dira osasun- eta gizarte-zerbitzuen jarduera bateratuaren bidez adinekoei emandako laguntzak, autonomia handiagoa izan dezaten, dituzten mugak edo sufrimenduak arindu ditzaten, errazago integra daitezten eta bizitza sozialean parte har dezaten.

Horrekin batera, Osasun Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean lan-talde bat sor dadin bultzatzea. Lan-talde horren lana izango da adinekoen —eta arreta mota hori jasotzen duten beste kolektibo batzuen— “osasun- eta gizarte-arretari” eta “arreta integralari” buruzko eredu bat aztertu eta proposatzea Nafarroarako, horretarako dauden aukera guztiak aztertuz. Gaur egun, bi eredu hauek ari dira probatzen autonomia-erkidego batzuetan: a) osasun-

eta gizarte-zerbitzuen antolaketa-ereduen koordinazioan oinarritutako eredia, adinekoen arreta integralerako beharrei erantzun globala emateko. Horretarako, berariazko koordinazio-egiturak sortzen dira (adibidez, “eskualdeko osasun- eta gizarte-batzordeak”, “gizarte- eta osasun-arretarako koordinatzailea”, gizarte- eta osasun-zerbitzuetako oinarritzko lan-taldeen arteko harremanetarako mekanismo formalizatuak...), edo, bestela, parte hartzen duten zentro eta profesionalak zuzenean koordinatzen dira, gizarte- eta osasun-kudeaketarako unitateen bidez edo bestelako egituren bidez; b) osasun-egituren eta gizarte-zerbitzuen integrazio organiko eta funtzionala (baliabide materialak eta giza baliabideak). Zerbitzu horiek gizarte- eta osasun-arretari aplikatzen zaizkio zuzenean, zuzendaritza beraren azpian.

12º Nafarroan adinekoen gaixotasunak ikertzeko erreferentziarako zentro bat bultzatu behar den aztertzea. Horretarako, aukera bat izan daiteke Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Administrazioak sustatutako fundazio bat sortzea, beste zenbait erakunderen parte-hartzearekin: Unibertsitate Klinika, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, espezialitate horretako beste unibertsitate batzuk, Nafarroako Aurrezki Kutxa... Fundazio horretatik abiatuta —edo aldi berean—, osasun-arloko profesionalak adinekoen arretan espezializatzeko aukera azter daiteke (medikuak, OLTak, erizaintzako laguntzaileak...).

13º Adinekoei babesa eta aholkua emateko mekanismoak indartzea, bizitzan hartu nahi dituzten erabakiak hartzeko eta beren ondasunekin zer egin askatasunez aukeratzeko duten eskubidea babesteko. Adinekoen

eskubideak Nafarroako administrazio publikoen aurrean babesteko Nafarroako Arartekoa bitarteko egokia izan daitekeen arren, gomendagarria da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak adinekoen arretarako bulego bat sortzea. Hasieran, bulego horren lana izango da, batetik, adinekoei arlo pribatuan jasaten dituzten abusu edo tratu txarren gaineko aholkua eta laguntza ematea, eta, bestetik, kanpaina orokorrak edo zehatzak egitea zenbait egoeratan adinekoek dituzten eskubideak defendatzeko —urratzen direlako edo ezagutzen ez direlako—.

14º Adinekoen kontseilu sektorialak sor daitezen bultzatzea, gutxienez, 5.000 biztanletik gorako udaletan. Iruñeko Udalak dagoeneko eman du pauso garrantzitsu hori, eta beste udalentzako eredu eta adibide bihurtu da erakutsitako gizarte-kontzientziagatik.

15º Adinekoak ordezkaritza-organo publikoetan (Nafarroako Parlamentua, udalbatzak...) egon daitezen bultzatzea, eta alderdi politikoei eta mota guztietako talde, elkarte, klub eta erakundeei eskatzea erabakitze-, ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan adinekoak sar ditzaten.

16º Traba fisiko eta sensorialak kentzeari buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea modu integralean aplika dadin sustatzea, eta, hala, adinekoen arazoak kontuan hartu eta arazo horiei irtenbide tekniko eraginkorrak ematea. Adibidez, autobus batzuetako plataformek ez dute funtzionatzen, eta antzeko beste arazo batzuk ere antzeman dira. Alde horretatik, Etxebizitza eta Lurralde Antolamendurako Departamentuari

aholkatzen zaio foru-lege hori edo legearen araugarapena berrikus dezan eta berariazko neurri eraginkorrek har ditzan adinekoen mugikortasuna errazteko eta bitzta sozialean integratzeko, traba fisiko eta sentsorial horiek kenduz.

17º Nafarroako adinekoen errealitate sozialari buruzko azterketa eta ikerketa enpirikoak egitea, hartu beharreko neurrien oinarri gisa erabiltzeko (adibidez, adinekoentzako gizarte-zerbitzuen sortako prestazioak zehazteko). Oraindik egiten ez bada, zenbait urtean behin, adinekoei buruzko inkesta egiteko eska dakiok Nafarroako Estatistika Institutuari. Inkesta horretan, populazioari buruzko datuak, adinekoen ezaugarriak, banaketa geografikoa eta ezkutuko kezka jaso beharko liriateke. Halaber, komeni litzateke aldi behin foroak eta kongresuak antolatzea adinekoen kezka sozialei buruz..

18º Adinekoentzako prestakuntza eskaintzen eta hobetzen jarraitzea —batez ere, esperientzia-gelak eta komunikazio-teknologia berriak—, adinekoak teknologiatik aparte ez egoteko eta komunikazio globalaren gizarte berrian parte har dezaten bermatzeko. Horrez gain, erretirorako prestatzen laguntzeko ikastaroak egitea, edo bultzatzea, funtzionarioentzat (Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak egiten duen bezala) eta sektore pribatuko langileentzat..

19º Egokitzat jotzen diren bitartekoen bidez (erakundeek prentsan egiten duten publizitatea da eraginkorrena, irratia...), adinekoek Nafarroako Gobernuak emandako laguntza publikoen berri gehiago izan dezaten lortzea (nora jo, laguntzak nola eskatu, informazio-bulegoak...).

20° Foru Komunitateko administrazioak adinekoek elkartetan parte har dezaten sustatzea, bizitza sozialean parte hartzeko, beren eskubideak babesteko etab.

21° Foru Komunitateko administrazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeei ematen dizkien diru-laguntzak mantentzea, eta, beharrezko edo posible den neurrian, handitzea —adinekoen arreta, laguntza eta zainketarako jarduerak egiten dituztenei emandakoak, eta, bereziki, babesgabe edo bakartuta daudenekin, baliabide ekonomiko gutxiago dituztenekin edo arazo edo gaixotasun larriagoak dituztenekin lan egiten dutenei emandakoak—. Hala, ekimen sozialen sare zabal eta eraginkor bat sortzea, kasurik larrienez arduratzeko edo baliabide ekonomiko txikiak edo senide gutxi dituztenei laguntzeko, kontuan izanik, batez ere, biztanleria gero eta zaharragoa izatea espero dela.

22° Bereziki, adinekoek hiri- zein landa-inguruneetan duten bakardadea aztertzea eta, egoki irudituz gero, horren aurkako programak bultzatzea, neurri egokien bidez eta boluntarioen elkarteen bidez.

23° Nafarroako Gobernuak eredu bat prestatzea etorkizunerako, Nafarroako 65 urtetik gorako biztanleentzat gizarte horrek izango dituen eskaerak eta beharko dituen azpiegiturak eta zerbitzuak aztertuko dituen. Urte batzuen buruan, adin horretatik aurrerako pertsonen kopurua % 16tik % 31ra pasatuko da. Beraz, komeni da aztertzea nolako izango den gizarte hori eta zer zerbitzu eskaini beharko dituen zahartutako biztanleriaren beharrei erantzuteko.

24° Gizarte Gaietako Departamentuak epe laburreko eta luzeko plangintza egitea Nafarroako zahar-etxeetako

plaza kopuruari buruz, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak biztanleriaren sektore horretan dituen ondorioak kontuan izanda. Plangintza horren bidez, ekimen publikoa (forala eta udaletakoa) eta ekimen pribatua (irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo irabazi-asmokoak) koordinatu beharko lirateke, bien artean plaza nahikoak eskainiko dituen sare bat osatzeko. Besteak beste, sare horrek kontuan izan beharko ditu irizpide hauek: eskatzailearen diru-sarrerak eta ondasunak —eta, hala dagokionean, senideenak— eta eskatzailearen egoera fisikoa eta psikikoa (laguntza behar duten pertsonak).

25° Kalitateko zahar-etxe ertain eta txikien ereduaren alde egitea, adinekoak hobeto integra daitezen.

26° Zahar-etxeetako plazen esleipenari dagokionez, Nafarroako Arartekoaren ebazpen batek gomendio hauek eman zituen: batetik, sartzeko eskaeraren prozedura eta baremo orokor aplikagarria arautzea, Nafarroako aldizkari ofizialean argitaratutako foru-agindu edo foru-dekretu baten bidez, eta, bestetik, interesatuari jakinaraztea atal bakoitzean lortutako puntuazioa, eta, administrazioaren erabakiarekin ados egon ezean, zer helegite erabil ditzakeen eta helegite horiek zer organoren aurrean jarri behar dituen adieraztea.

27° Gizarte Gaietako Departamentuak “adinekoentzako telefonoa” sor daitekeen aztertzea (edo, bestela, horretarako laguntza ekonomikoa ematea edo ekimen sozial kontzentratu baten bidez sortzea). Adineko guztiek —batez ere, bakarrik daudenek— erabil lezakete zerbitzu hori, doakoa eta unibertsala, beren kezka azaltzeko, iradokizunak eta ekarpenak egiteko, emozioak eta arazoak kanporatzeko...

28º Gainerako sektoreei zuzendutako kanpaina instituzional bat bultzatzea, adinekoen eskubideak, kezkak eta arazo nagusiak landuko dituen, paternalismoan erori gabe. Urtean behin, Gure Adinekoen Eguna ospatzea edo hurrengo urtea Adinekoen Urte izendatzea baliagarriak izan daitezke gure adinekoen balioen gaineko kontzientzia handiagoa izateko eta merezi duten aitorpen soziala emateko.

29º Zuzenbide publikoaren alorrean, adinagatik egindako diskriminazio oro lege-mailako arau batean jaso behar da (ez da nahikoa legean ezer ere esan gabe — “zurian”— arauetara igortzea). Edonola ere, arrazoi objektiboetan eta Konstituzioaren balioetan oinarritueta justifikatutako jarrera izan behar du. Adinagatik diskriminatzea saihestu egin behar da inondik ahal dela. Adinak ez du eraginik izan behar osasun- eta gizarte-baliabideen banaketan. Ez da etikoa adinagatik goi-mailako teknologiako osasun-prestazioak mugatzea.

30º Goi-mailako instantzietatik adierazi da beharrezkoa dela gizartean eztabaida sortzea "heriotza duinari" edo "eutanasiari" buruz —deitu nahi zaion moduan deituta—. Horrelako eztabaidekin oso kontuz ibili behar da. Behar-beharrezkoa da oso ongi bereiztea funtsean osasun-arlokoa den eztabaida baten subjektuak —beren egoeraz jabetzeko erabateko gaitasuna duten eriak; erabateko minusbaliotasuna duten gazteak gehienbat— eta bestelako alor eta subjektuak; batez ere, beharrezkoa da eztabaida hori ez nahastea bestelako eztabaida, zifra edo egoerekin, pentsa baliteke adinekoen ingurukoak direla, are gehiago minusbaliatu edo lagunduen ingurukoak. Pertsona horiek ez dute eztabaida horren eraginpean egon edo sentitu behar, inolaz ere, ez zuzenean ez zeharka.

Adinekoak ez dira zama bat, ez familia arrunt batentzat, ez zahar-etxe arduratsu eta profesional batentzat, ez gizarte demokratiko aurreratu batentzat, ez zuzenbidezko estatu sozial batentzat eta haren gastu publikoarentzat. Adinekoak herritarrak dira, beti, eta gizartearen parte dira gainerako pertsonak bezala, beren eskubideak eta betebeharrak dituztela; horien artean, bizitzeko eskubidea (etorkizun-proiektu bat izatea eta autonomiarako gogoia, batzuetan ezinezkoa gertatu arren) eta duintasunerako eskubidea.

31° Nafarroan ez da detektatu oinarrizko eskubideen urraketa nabarmenik (Konstituzioko 14-29 artikulua) zahar-etxeetan dauden adinekoei dagokienez, baina, gaur egun halako kasurik egon ez arren, horrek ez du esan nahi noizbait gerta ez daitezkeenik. Zahar-etxeetako eskubide-urraketen kasu puntualak —are gehiago, egiturazkoak— prebenitzeko, gomendio hauek ematen zaizkio Gizarte Gaietako Departamentuari:

- a) Berariatzko ikuskapen-plan eraginkor bat egitea urtean behin, aipatutako oinarrizko eskubideen urraketak gertatzeko arrisku handiena duten kasuak detektatzeko. Horrez gain, plan horretan, egin beharreko ikuskapenen kopurua zehaztu beharko litzateke. Arrisku eta leku guztiak ikuskatzea ezinezkoa gertatzen bada, gutxienez, kasurik larrienak aztertu beharko dira, eta gainerakoan lagin adierazgarri bat ere bai. Plangintza betetzeko bitartekoak eta egutegia ere zehaztu behar dira. Garrantzitsua da, batez ere, zahar-etxean beharbada beren borondatearen kontra dauden adinekoen kasuei arreta berezia jartzea. Planak bermatu behar du adinekoek beren eskubideak ezagutzen dituztela, ahalik eta modurik

zabalenean balia ditzaketela —beren kabuz edo ordezkatzan dituen hirugarren baten bidez— eta haien ustez kalte egiten dieten erabaki guztien aurka modu eraginkorrean erreklama dezaketela —ez modu formal hutsean—.

- b) Bitarteko egokiak lortzea ikuskapen eraginkorrek egiteko.
- c) Ikuskapenak egiten dituzten langileei prestakuntza egokia ematea.
- d) Ikuskapenak modu eraginkorrean egitea eta emaitzak aktetan jasotzea, ikuskapen-plana kontrolatzeaz arduratzen diren administrazio-organoek emaitza horiek ikusteko modua izan dezaten.
- e) Zuzenean edo zeharka adinekoen —edo dagokien titularren— eskubideak urratzen dituzten ekintza edo ez-egiteen erantzuleei dagozkien zigorrak ezartzea, eskubide-urratzearen larritasunaren arabera. Larritasun txikieneko kasuetan, zigor horiek ohar edo jakinarazpen modukoak ere izan daitezke, zigortzeko baino gehiago kontzientziatzeko asmoa dutenak.

Txosten hau Nafarroako Parlamentuaren aurrean aurkeztu ondoren, 2007ko abenduaren 27an egindako batzarrean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen sozialisten talde parlamentarioaren mozio bat, zeinaren bidez eskatzen zaion Nafarroako Gobernuari administrazio publikoek adinekoei eskaintzen dieten arreta integralari buruzko politika publikoaren ebaluazioa egin dezala.

Bestalde, 2008ko otsailaren 14an egindako batzarrean, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak aho batez

onartu zuen Nafarroako adinekoen eskubide eta betebeharrei buruzko deklarazioa —Nafarroako Parlamentuko sozialisten talde parlamentarioak aurkeztua—, eta, ondoren, Parlamentuak berretsi zuen.

Joan den otsailaren 12an Arartekoarekin egindako bilera batean, Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kiroletako kontseilariak publikoki onartu zituen aipatutako zenbait gomendio eta iradokizun; horien artean, hauek: adinekoen arretarako bulegoa eta adinekoen bakardadearen aurkako programa martxan jartzea, adinekoen arretarako politika publikoei buruzko ebaluazioa egitea, adinekoei buruzko adituen batzorde bat sortzeko aukera aztertzea, gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa aldatzea lan-talde baten bidez, adinekoei buruzko inkesta egitea eta prentsan adinekoei zuzendutako iragarki instituzionalen kanpainak indartzea.

Halaber, konpromisoa hartu zuen adinekoen arretaren eta zahar-etxeen berrantolaketaren arloan etorkizunean sortuko diren beharrak aztertzeko, zahar-etxeetan sartzeko baremoak forugindu bidez onartzeko, adinekoen telefonoa sortzeko aukera baloratzeko, adinekoen eguna edo urtea ezartzeko eta ikuskatzaileentzako prestakuntza-programa bat egiteko.

10 _ arartekoak herritarrekin eta
gizarte zibilarekin duen
harreman zuzena

2007

10 _ arartekoak herritarrekin eta
gizarte zibilarekin duen
harreman zuzena



2007

VIII. KAPITULUA


ARARTEKOAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN DUEN HARREMAN ZUZENA

10.1. INFORMAZIO-BULEGOA

Arartekoaren helburu nagusienetako bat da herritarrei informazio zehatz, labur eta argia ematea, batetik, beren eskubide subjektiboak hobeto eta gehiago erabiltzeko moduei buruz eta, bestetik, eskubide horiek defendatzeko edo lehengoratzeko erakundeak egin ditzakeen jardueri buruz. Hori dela eta, Informazio Bulegoa da Arartekoaren lan-arlorik garrantzitsuenetakoa; izan ere, bulego horretan, herritarrek beren eskubideei buruz dituzten zalantzen gaineko aholkua ematen da, kasuak konpontzen dira eta, beharrezkoa denean, bideratu ere bai.

2007an, 990 kontsulta egin ziren, guztira, Informazio Bulegoan. Horietatik 745etan nahikoa izan zen herritarrari aholkua ematea. Gainerako 245 kasuetan, Nafarroako administrazio publikoren baten jardueraren aurkako kexa aurkeztu zen. Kontsulta motei dagokienez, % 97,5 banakoen kontsultak izan ziren eta % 2,5 taldeenak.

Bestalde, kontsulten % 50,6 bulegoan bertan egin ziren, % 48 telefonoz eta gainerako % 1,4 Internet bidez.



Gai hauei buruzko kontsultak izan ziren:

Arloak	Aholkularitza bidez		Kexa bidez
	kontsultak	kontsultak	
Hirigintza eta etxebizitza	105	45	150
Gizarte-ongizatea	87	26	113
Osasuna	57	19	76
Funtzio publikoa	38	35	73
Barne-saila eta zirkulazioa	44	22	66
Ingurumena	38	16	54
Lan publikoak eta zerbitzuak	33	14	47
Lana, gizarte segurantzaren eta atzerriartasuna	30	17	47
Justizia	33	10	43
Hezkuntza	32	8	40
Ogasuna	25	7	32
Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa	15	9	24
Administrazioaren aurreko eskubideak	8	13	21
Kultura, kirola eta elebitasuna	5	2	7
Askotarikoak	195	2	197
Guztira	745	245	990

2006an bezala, hirigintza eta etxebizitza arloan egin zen kontsulta gehien (zehazki, % 15,15), eta, ondoren, gizarte-ongizatearen (%11) eta osasunaren arloan (% 7,68). Ugari izan ziren, halaber, funtzio publikoari buruzko kontsultak (% 7,37) eta barne-sailari eta zirkulazioari buruzkoak (% 6,67).

Zehazki, hauek izan ziren kontsulta horien eduki nagusiak:

Etxebizitzaren arloan, nagusiki, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozesuei eta etxebizitza horien kontratuen ikus-onespenari buruzkoak izan ziren kontsultak.

Hirigintzaren arloan, plangintza gauzatzeari eta eraikuntza, erabilera eta hirigintza-diziplinaren arloko jarduerari buruzko informazioa eskatu zuten herritarrek, batez ere.

Gizarte-ongizatearen arloan, kontsulta gehienak adinekoei buruzkoak izan ziren, eta, bereziki, zahar-etxeetan sartzeko baldintzei, etxez etxeko laguntzei eta laguntza publikoei buruzkoak. Horien ondoren, minusbaliotasunei buruzko kontsultak aipatu behar dira, eta, horien artean, osasun mentalaren gizarte- eta osasun-arretari buruzkoak.

Osasunaren alorrean, gehienek osasun-laguntzari buruzko kontsultak egin zituzten, oro har, eta, ondoren, buru-osasunaren arretari eta prestazio osagarriari buruzkoak.

Zirkulazioaren eta Barne-sailaren arloan, zirkulazio-zigorrei eta zigor-prozedurei buruzko kontsultak dira nagusi.

Funtzio publikoaren arloan, funtzio publikoan sartzeari eta lanpostuak hornitzeari buruzko kontsultak nabarmendu behar dira. Hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten herritarrek, prozedurak irauten duen bitartean ez ezik, prozedura amaitzean ere egiten dituzte kontsultak. Funtzionarioen ordainketa-erregimenari eta eskubide eta betebeharrei buruzko kontsultak ere egin zituzten.

Ingurumenean, zaratari buruzko kontsultak nabarmendu ziren, eta, bereziki, zaratari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoak. Halaber, jarduera sailkatuei eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenei buruzko kontsultak egin ziren.

Herri-lanak eta zerbitzuen prestazioa dela-eta egindako kontsultak ere ugari izan ziren. Zehazki, azpiegiturei eta gutxieneko zerbitzuak emateari buruzko kontsultak egin zituzten.

Lanaren, gizarte-segurantzaren eta atzerriartasunaren arloan, kontsulta gehienak gizarte-segurantzari buruz egin ziren. Horien artean, pentsiodunek gutxieneko pentsioa txikiegia delako kexatuz egin zituztenak nabarmendu behar dira, baita prestazio-eskubidea aitortu edo ukatzeari buruzkoak ere.

Hezkuntzari dagokionez, ikasleak onartzeko eta ikastetxeetan matrikulatzeko irizpideei buruzko kontsultak egin ziren nagusiki. Ikastetxeen funtzionamenduari eta instalazioen kontserbazioari eta segurtasunari buruzkoak ere badaude.

Justiziaren alorrean, abokatu eta prokuradoreen jarduera profesionalari eta elkargo profesionaleri buruzko kontsultak egin ziren, batez ere.

Ogasunari dagokionez, tokiko zergei eta erregistro fiskalei buruzko kontsultak egin ziren.

Nekazaritzan, lursailak bateratzeari, herri-ustiapenei eta laguntza ekonomikoei buruzko kontsultak egin ziren gehienbat.

Halaber, administrazio publikoei zuzendutako idatzi eta eskaerei erantzuteko obligazioari buruzko kontsultak egin zituzten herritarrek, eta, zehazki, administrazio publikoek erantzuteko duten epeari eta epe horiek ez betetzeak dituen ondorioei buruz galdetu zuten.

10.2. GIZARTE ZIBILAREKIN IZANDAKO HARREMANA

Elkarte bidezko parte-hartzeak herritarren eskubideak defendatzea eta babestea bultzatzen du; batez ere, gizartean gehien baztertzen diren sektoreak ordezkatu, babestu eta laguntzen dituzten elkarteak direnean. Horregatik, gizartearen interesak ordezkatzeko dituzten elkarteekin elkarlanean aritzea eta elkarte horien kezkak bertatik bertara ezagutzea bultzatzen du Nafarroako Arartekoak.

Hala, 2007ko apirilaz geroztik, interes sozial eta profesionalak ordezkatzeko dituzten hamazazpi erakunderekin bildu da Nafarroako Arartekoa; hain zuzen, elkarte hauekin:

- SARAY, Bularreko Minbizia duten Emakumeen Nafarroako Elkarte.
- BEHATOKIA Fundazioa. Hizkuntza Eskubideen Behatokia.
- Nafarroako GURELUR Elkarte Ekologista.
- Adinekoen Nafarroako Behatokia.
- Iruñeko Haur Eskola Publikoen Erakundea.
- Nafarroako SOS Arrazakeria.
- Colombia Ritmo y Cultura elkarte.
- Ilundaingo baserri-eskola.
- Nafarroako eskualde-etxeak.
- Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkarte – Alde Zaharra.
- Etxerat elkarte.
- Nafarroako Espeleologia Elkarte.
- Euskara Kultur Elkargoa.
- Nafarroako Erizaintza Elkargoa.
- Erizainen sindikatua (SATSE).
- Erizainen karrera profesionalaren aldeko plataforma.
- Droga-mendekotasunean direnen familien elkarte (ADEFA).

11 _ kalitatea ebaluatzea eta hobetzea

2007

11 _ kalitatea ebaluatzea eta hobetzea



2007

IX. KAPITULUA

KALITATEA EBALUATZEA ETA HOBETZEA

11.1. HERRITARREN ARRETAKO HOBEKUNTZAK. HERRITARRENTZAKO ZERBITZUEN GUTUNA

Azaroaren 8ko 42/2007 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Arartekoak erakundearen zerbitzuen gutuna onartu zuen. Gutun hori Nafarroako Parlamentuaren 2007ko azaroaren 13ko aldizkari ofizialeko 27. zenbakian argitaratuta dago, eta www.defensornavarra.com web gunean osorik kontsulta daiteke.

Zerbitzuen gutunak sei kapitulu ditu. Lehenengoan, erakundearen helburuak adierazten dira. Bigarrenean, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak, herritarrek erakundearekiko harremanetan dituzten eskubideak eta erakundearekiko lankidetzaz eta partaidetza-moduak aipatzen dira. Hirugarren kapituluan kalitateari loturiko konpromisoak azaltzen dira eta, horiekin bat, eskaintako kalitatearen maila, kalitatea bermatzeko sistemak eta kalitatearen adierazleak.

227

Laugarren kapituluan, erreklamazio eta iradokizunetarako gutunontzia sortzen da. Gutunontzi horretan, herritarrek erreklamazioak, iradokizunak eta egokitzeak jotzen dituzten ekimenak aurkez ditzakete, erakundearen zerbitzuen funtzionamenduari loturik.

Erreklamazioak eta iradokizunak erakundearen web gunearen bitartez aurkez daitezke, eta horrek nabarmen errazten du prozesua.

Bosgarren kapitulua gutunaren jarraipenari eta gutuna aldatzeari dagokio, eta seigarrena, berriz, informazio osagarriari eta publizitateari.

11.2. HERRITARREK ERAKUNDEAREN BALIAGARRITASUNARI ETA ERAGINKORTASUNARI BURUZ DUTEN IRITZIA.

2007 urtean zehar herritarrei bi inkesta-mota egiten jarraitu zen, biak ere anonimoak, etengabeko hobekuntza-prozesuak osatze aldera.

- Informazio-bulegora bertara joaten direnentzako inkesta. Inkesta hori eskura emandako galdetegi baten bitartez egiten zaie, herritar guztiei, behin informazio-bulegoan arreta jaso dutenean.
- Administrazioaren aurrean kexa aurkeztu duten pertsonentzako inkesta. Kasu horretan, inkesta postaz bidaltzen zaie herritarrei, behin kexaren espedientea amaitu denean, hau da, behin Arartekoak kasuari dagokion ebazpena onartu duenean, edota behin interesdunari jakinarazi zaionean Administrazioak onartu duen edo ez, Arartekoaren ebazpena.

228

1. Honako hauek dira bi inkestetan ageri ziren galderak:

- *Nola jakin duzu Nafarroako Arartekoaren berri?*
 - *Inkestatutako pertsona gehienek (% 40k), adierazi zuen prentsaren, irratia eta telebistaren bitartez jakin zuela Arartekoaren berri.*
 - *% 15ek adierazi zuen senide eta ezagunen bitartez jakin zuela.*
 - *% 15ek Administrazioaren baten bitartez jakin zuen.*
 - *Inkestatutakoen % 20k beste bide batzuen bitartez jakin zuen (Internet edo beste bat).*
 - *Gainerako % 10ek lehendik zekien Arartekoaren berri, harekin kontaktua izateagatik.*

- *Zer iritzi duzu Nafarroako Arartekoaren bulegoan eskainitako arretaz?*

- *Inkestatutakoen % 71,22k “oso ona” zela esan zuen.*
- *Inkestatutakoen % 22k “ona” zela esan zuen.*
- *% 5ek, berriz, “halamoduzkoa” zela esan zuen.*
- *Eta % 2k, berriz, “txarra” edo “oso txarra” zela esan zuen.*

Ikus daitekeenez, inkestatutako 10 pertsonatik 9k oso balorazio positiboa egiten dute bulegoan eskainitako arretari buruz, bai kontsulten eta informazioaren esparruan eta bai kexen esparruan.

- *Beste pertsona batzuei gomendatuko zenieke Nafarroako Arartekora jotzea?*

- *Inkestatutakoen % 77,28k baietz adierazi zuen.*
- *Inkestatutakoen % 9,6k ezetz adierazi zuen.*
- *Inkestatutakoen % 0,5ek adierazi zuen azken aukera gisa soilik joko lukeela Arartekora.*
- *Inkestatutakoen % 0,5 ek “oraingoz ez” erantzun zuen.*
- *Inkestatutakoen % 12,2k ez zuen erantzun.*

Ikus daitekeenez, 10 herritarretik 8k gomendatuko liokete beste pertsona bati Arartekora jotzea.

2. Informazio-bulegoaren jarduerari buruzko galdera espezifikoak

- *Informazioa modu argi eta ulergarrian eskaini dizutela uste duzu?*

- *% 73,73k “oso modu argian” esan zuen.*
- *% 21,21ek “modu argian” esan zuen.*
- *% 6k “modu ulergarrian” esan zuen.*

- *Eskainitako informazioa baliagarria dela uste duzu?*

- % 50ek “oso baliagarritzat” jotzen du.
- % 50ek “baliagarritzat” jotzen du.

Hartutako erabakia edozein dela ere, 0 eta 10 bitarteko eskalan nola baloratuko zenuke informazio-bulegoak zure arazoaren gainean izan duen esku-hartze globala?

0	% 0
1	% 0
2	% 0
3	% 3,03
4	% 0
5	% 0
6	% 3,03
7	% 3,03
8	% 12,12
9	% 27,27
NC	% 24,24

Beraz, inkestatutako hiru pertsonatik biren puntuazioa zortzi edo zortzi baino gehiago da, informazio-bulegoaren esku-hartzeari dagokionez.

3. Kexak izapidetzeari buruzko galdera espezifikoak

- Nola baloratzen duzu Nafarroako Arartekoaren bulegoan jasotako informazioa?
 - Inkestatutakoen % 45,45ek “oso ona” zela esan zuen.
 - Inkestatutakoen % 33,33k “ona” zela esan zuen.
 - Inkestatutakoen % 8,08k “halamoduzkoa” zela esan zuen.

- Inkestatutakoen % 3,03k “txarra” zela esan zuen.
- Inkestatutakoen % 8,08k “oso txarra” zela esan zuen.
- % 2,02k ez zuen erantzun.

Ikus daitekeen moduan, inkestatutako 10 pertsonatik ia 9k jotzen dute jasotako informazioa ona edo oso ona dela.

- Nola baloratzen duzu kexa aurkeztu zenuenetik prozesua amaitu arte igarotako denbora?
 - Oso luzea: % 9
 - Luzea: % 12,12
 - Arrazoizkoa: % 54,55
 - Laburra: % 13,13
 - Oso laburra: % 10,10
 - Ez du erantzun: % 1,01

Ikus daitekeenez, 4 herritarretik 3k jotzen dute kexa izapidetzen emandako denbora arrazoizkoa edo laburra izan dela.

231

- Uste duzu Arartekoak bidalitako idatziak argiak eta ulergarriak direla?
 - Oso argiak: % 38,38.
 - Argiak: % 28,28.
 - Ulergarriak: % 18,18.
 - Ez dira oso argiak: % 6,06.
 - Ez dira batere argiak: % 2,02.
 - Argiak eta ulergarriak: % 2,02.
 - Ez du erantzun: % 5,5.

Beraz, inkestatutako 10 pertsonatik 8k baino gehiagok jotzen dute jasotako idatziak argiak eta ulergarriak izan direla.

- Uste duzu Nafarroako Arartekoa baliagarria izan dela arazoa konpontzeko?

- Bai, oso baliagarria izan da: % 33,33.
- Bai, nahiko baliagarria izan da: % 30,30.
- Ez, ez da oso baliagarria izan: % 7,07.
- Ez, ez da baliagarria izan: % 20,20.
- Ez da batere baliagarria izan : % 1,01.
- Ez du erantzun: % 8,08

Inkestatutako 3 pertsonatik 2k Arartekoa baliagarritzat edo oso baliagarritzat jo dute pairatzen duten arazoa ebazteko orduan. Emaiza oso positiboa da, kontuan hartuta planteatutako kexa gehienetan Arartekoaren arabera herritarraren eskubideak ez direla urratu.

Bestalde, Arartekoa “ez oso baliagarria” edo “batere baliagarria ez” dela jotzen duten pertsonen ehunekoak adierazten du, batzuetan, herritarrak harritu egiten direla jakiten dutenean Arartekoaren ebazpenak ez direla lotesleak Administrazioarentzako; alegia, gomendioak edo iradokizunak direla.

- Arartekoak zure kexari buruz hartutako erabakiarekin ados zaude?

- Erabat ados: % 34,34.
- Ados: % 20,20.
- Ados, neurri batean: % 12,12.
- Ez nago ados: % 9,09.
- Ez nago batere ados: % 17,17.
- Ez du erantzun: % 7,07.

Inkestatutako hiru pertsonatik bik adierazi dute hartutako erabakiarekin guztiz edo neurri batean ados daudela. Erlazio zuzena dago datu horren eta Arartekoak kexa aurkeztutako pertsonari arrazoia eman dion kasuen ehunekoaren artean. Bestalde, inkestatutako lau pertsonatik bat ez dago ados erabaki horrekin.


Hartutako erabakia edozein dela era, 0 eta 10 bitarteko eskalan nola baloratuko zenuke Arartekoak zure arazoaren gainean izan duen esku hartze globala?

0	% 5,05
1	% 8,08
2	% 2,02
3	% 2,02
4	% 2,02
5	% 4,04
6	% 5,05
7	% 8,08
8	% 17,17
9	% 16,16
10	% 24,24
NC	% 6,06


233

Ikus daitekeenez, 10 herritarretik 6k Arartekoak beren arazoa ebazteko egindako esku-hartzeari 8 puntu edo gehiago ematen dizkio.

Balioespen globala, Otik 10era



Balioespen globala, Otik 10era



Laburbilduz, datuek adierazten dute asebetetze maila 2006koa baino pixka bat hobea dela, eta ikusten da herritarrek, orokorrean, balorazio positiboa egiten dutela Arartekoaren lanaren gainean. Dena den, horrek ez du esan nahi Arartekoak etengabeko hobekuntzan eta eskaintzen diren zerbitzuen kalitate-prozesuak ezartzen lanean jarraitu behar ez duenik.

11.3. KEXAK IZAPIDETZEKO BATEZ BESTEKO EPEAK

2007. urtean kudeatutako kexak izapidetzeko batez besteko epeak % 45 murriztu dira 2006. urtekoen aldean, nahiz eta kudeatutako kexa kopurua handiagoa izan den.

IZAPIDETZE-DENBORAK (egunak)	2004	2005	2006	2007
Kudeatutako kexen kopurua	564	508	595	656
HASIERATIK herritarrari JASO IZANAREN				
ADIERAZPENA bidali arte	7,7	3,3	3,2	2,2
HASIERATIK kexa IZAPIDETZEKO				
onartzen den arte	21,6	21,6	43,5	22,4
Administrazioaren TXOSTENA				
jasotzen denetik BUKAERARA arte	41,9	18,3	52,4	30
ERAKUNDEAREN DENBOREN BATURA	71,2	43,2	99,1	54,6

Nolanahi ere, kexa aurkezten den unetik espedientea behin betikoz ixten den arte igarotako batez besteko denbora handitu egin da 2007an aurreko urtearekin konparatuta: 130 egunetik 137 egunera pasatu da. Horren arrazoia da Administrazioak denbora gehiago behar izan duela Arartekoak eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaltzen.

12_ eranskina

2007

12_ eranskina



2007

ERANSKINA

12.1. ERAKUNDEAREN 2007KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3 artikulua honela xedatzen du:

“Txostenak eranskin bat ere izanen du. Eranskinaren hartzaila Nafarroako Parlamentua izanen da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da”.

Beraz, 2007ko ekitaldiko Nafarroako Arartekoaren aurrekontuaren likidazioari dagokionez, hau adierazi behar da:

1. 2007ko hasierako kredituak 1.247.358,19 €-koak ziren. Kopuru horri aurrekontu-aldaketak gehitu behar zaizkio (2006ko ekitaldiko kreditu-soberakinen gehikuntzak): 103.121,58 €. Hala, behin betiko aurrekontua edo aurrekontu bateratua 1.350.479,77 €-koa zen.
2. Gehitutako kreditu-soberakinen % 27,7 ekitaldiko gastu arruntak finantzatzeko erabili zen, eta % 72,3 kapital-operazioak finantzatzeko (zehazki, erakundearen egoitzako beheko solairuko klimatizazio-sistemaren berrikuntzarako).
3. Gastuen aurrekontuaren likidazio-egoerak erakusten duenez, onartutako obligazio garbiak 1.149.066,30 € izan dira. Horrek esan nahi du betetze-maila % 85,09koa izan dela.
4. Sarreren aurrekontuaren likidazio-egoerari dagokionez, onartutako eskubide garbiak 1.244.592,26 €-koak izan dira. Kasu horretan, betetze-maila % 92,16koa izan da.

5. Hala, 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-egoerak 198.647,54 €-ko finantziazio-superabita adierazten du.

Hauek izan dira 2007ko ekitaldiko gastuak, eragiketa arrunten (1-5 kapituluak) eta kapital-eragiketen (6-9 kapituluak) arabera sailkatuta:

Eragiketa-mota	Behin betiko kredituak	Onartutako obligazioak	Egikaritzaren %
Eragiketa arruntak	1.092.912,76	891.499,29	81,57%
Kapital-eragiketak	257.567,01	257.567,01	100,00%
GUZTIRA	1.350.479,77	1.149.066,30	85,09%

Eragiketa arruntei dagokienez, aurrekontuaren betetze-maila % 81,57koa izan da eta kapital-eragiketen betetze-maila % 100ekoa.

Kreditu konprometituek behin betiko kredituei dagokienez duten ehunekoa % 81,75ekoa izan da eragiketa arruntetan eta % 100ekoa kapital-eragiketetan.

240

Eragiketa-mota	Behin betiko (1) kredituak	Kreditu (2) hitzartuak	(1)/(2)
Eragiketa arruntak	1.092.912,76	893.470,30	81,75%
Kapital-eragiketak	257.567,01	257.567,01	100,00%
GUZTIRA	1.350.479,77	1.151.037,31	85,23%

Ondoren, aurrekontuaren gauzatzeko-egoera aztertzen da kapitulu ekonomikoen arabera:

A) GASTUAK

1. KAPITULUA. Langileen gastuak

Finkatutako aurrekontua 700.525,45 eurokoa da, hau da, gastuen % 51,87. Bestalde, onartutako obligazioak 541.085,38 eurokoak dira. Beraz, 1. kapituluko aurrekontuaren betetze- edo gauzatze-maila % 77,24koa izan da finkatutako aurrekontuari dagokionez.

Berrikuntza gisa, kapitulu honetan adierazi behar da 2007ko martxoan, M^a Jesús Aranda Lasheras-en kargu-aldia amaitu zenean, Francisco Javier Enériz Olaechea jaunak hartu zuela Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren kargua. Aldaketa hori dela eta, kapitulu honetan partida berri bat jasotzen da —“ararteko ohien ordainsariak” izenekoa—, kargua utzitakoan lehengo titularrari dagozkion prestazioei aurre egiteko.

2. KAPITULUA. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntan behin-betiko aurrekontua 365.054,55 eurokoa da, gastuen aurrekontuaren % 27,03. Onartutako obligazio garbien —327.380,63 euro— gauzatze-maila % 89,68koa da.

Kapitulu horren barruan daude erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak (adibidez, bulegoko materiala, eraikin, makina eta ekipamenduen mantentze-lanak, komunikazioak, aseguruak, jarduera orokorrak, zabalkunde-jarduerak, liburuak argitaratzea eta bestelako argitalpenak, beste enpresa batzuk egindako lanak, hornidurak...).

4. KAPITULUA. Transferentzia arruntak

Behin-betiko kredituak 27.332,76 eurokoak dira, hau da, gastuen aurrekontuaren % 2,02. Gauzatze-maila, berriz, % 84,27koa da. Kapitulu horren barruan daude praktiketan dauden ikasleei egindako esleipenak, Nafarroako Unibertsitateko Praktika Juridikoko Eskolarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioarekin egindako hitzarmenen ondorioz. 2007ko ekainean, hirugarren bekadun bat hasi zen lanean erakundearen, euskarazko arreta eskaintzeko.

6. KAPITULUA. Inbertsio errealak

Kapitulu honen aurrekontu finkatua 71.239,62 eurokoa da, eta gastuen aurrekontuaren % 5,28 egiten du. Gauzatze-maila, berriz, % 100ekoa da.

Kapitulu honetako kreditu gehienak eraikinerako lanetarako erabili dira (adibidez, sarrerako atea eta beheko solairuko leihateak aldatzea, bulegoko azpiegitura teknologikoa hobetzea eta eraikineko beheko solairuko klimatizazio-sistema berritzeko elektrizitate-lanak). Halaber, altzariak, informazio-prozesuetarako ekipamenduak, liburuak eta argitalpenak erosteko erabili dira kreditu horiek.

7. KAPITULUA. Kapital-transferentziak

Kapitulu honetako aurrekontu finkatua partida bakarrean zehazten da —“Jabekideen komunitatearentzako kapital-transferentziak” izenekoa—, eta 186.327,39 eurokoa da, hau da, 2007ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren % 13,80. Aurrekontu horren gauzatze-maila % 100ekoa izan da.

Toki Administrazioaren Departamentuarekin bi erakundearen egoitzetako klimatizazio-sistemak berritzeko sinatutako

hitzarmenari esker, erakundearen beheko solairuko lanak egin dira 2007ko ekitaldian. Lan horiek 186.327,39 euroko kostua izan dute, eta honela finantzatu dira:

- % 40,00, 2006ko ekitalditik gehitutako soberakinekin (74.522,21 euro).
- % 37,04 (69.019,37 euro), 2007ko ekitaldian lan horiek egiteko gordetako zenbatekoarekin.
- Gainerakoa (42.785,81 euro) beste kapituluetakoa partiden kreditu-transferentzien bidez.

Toki Administrazioaren Departamentuarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, 2005eko ekitaldiko aurrekontuetan 7000 partida sortu behar izan zen, "Jabekideen komunitatearentzako kapital-transferentziak" izenekoa. Hain zuzen, partida horretara bideratu dira aipatutako zenbatekoak.

Gastuen aurrekontuaren likidazioa 2007ko ekitaldia

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
1 Langileen gastuak	700.525,45	700.525,45	541.085,38
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	361.345,80	365.054,55	327.380,63
4 Transferentzia arruntak	27.332,76	27.332,76	23.033,28
6 Inbertsio errealak	70.684,73	71.239,62	71.239,62
7 Kapital-transferentziak	69.019,37	186.327,39	186.327,39
8 Finantza-aktiboak	6.000,00	0,00	0,00
9 Finantza-pasiboak	12.450,08	0,00	0,00
GUZTIZKO OROKORRA	1.247.358,19	1.350.479,77	1.149.066,30

B) SARRERAK

Aurrekontuaren likidazioak erakusten duenez, sarrera gehienak Foru Ogasunetik jasotako transferentzietatik datoz. Izan ere, ekitaldian izandako sarreraren % 99,99 osatzen dute.

Sarrera-aurrekontuaren likidazioa 2007ko ekitaldia

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
3 Tasak eta bestelako sarrerak	100,00	100,00	53,78
4 Transferentzia arruntak	1.088.954,01	1.088.954,01	1.088.954,01
5 Ondareengatiko sarrerak	150,00	150,00	28,48
7 Kapital-transferentziak	155.556,18	155.556,18	155.555,99
8 Finantza-aktiboak	2.498,00	105.619,58	0,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	100,00	0,00
GUZTIZKO OROKORRAK	1.247.358,19	1.350.479,77	1.244.592,26

244

Gastuen aurrekontu-likidazioaren xehetasunak 2006ko ekitaldia

1. Kapitulua: langileen gastuak	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Arartekoaren ordainsariak	73.971,24	74.502,54	74.502,54
Ararteko ohien ordainsariak	47.549,55	49.796,24	15.789,05
Aldi baterako langileen ordainsariak	246.581,27	246.814,47	210.903,20
Funtzionarioen ordainsariak	162.540,53	170.644,34	169.719,16
Kontratutako langileen ordainsariak	16.096,51	16.112,14	2.698,66
Gizarte Segurantza	134.741,06	134.758,48	67.472,77
1. kapituluaren funtsa	19.045,29	7.897,24	0,00

2. kapitulua: Gastu arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Hari musikala	515,00	515,00	492,70
Eraikina konpondu, kontserbatu eta mantentzea	17.548,69	21.871,75	26.628,18
Instalazioetako makinak eta tresnak konpondu eta kontserbatzea	6.137,82	6.137,82	4.426,65
Prozesu informatikoetarako ekipamenduak konpondu eta kontserbatzea	7.000,00	8.666,39	6.621,13
Bestelako ibilgetu materiala konpondu eta kontserbatzea	1.000,00	1.000,00	0,00
Bulegoko material inbertariaezina edo arrunta	18.000,00	18.000,00	28.662,49
Bulegoko ekipamenduetarako materiala	1.600,00	1.600,00	0,00
Prentsa, aldizkariak eta aldian behingo argitalpenak	4.850,00	4.850,00	2.552,38
Telefono bidezko komunikazioak	13.634,53	14.541,34	14.541,34
Posta bidezko komunikazioak	11.193,56	11.193,56	10.601,55
Aseguru-primak	6.500,00	6.500,00	4.978,17
Arartekoa	4.000,00	4.000,00	1.250,52
Arreta sozialak eta protokoloa	6.600,00	10.423,22	10.423,22
Arartekoaren bidiaia ofizialak	9.200,00	9.200,00	8.053,85
Jarduera orokorrak eta hedapenekoak	36.225,00	50.164,90	48.939,75
Bilerak eta hitzaldiak antolatzea	31.050,00	0,00	0,00
Liburuen argitalpenen eta bestelako argitalpenen gastuak	37.311,75	41.411,12	29.378,83
Informazio-agentziak	1.000,00	1.000,00	0,00
Oposaketak eta autatze probak	1.034,16	1.034,16	0,00
Garbiketa-zerbitzuak eta komunak	13.500,00	13.500,00	12.426,70
Prestakuntza ikastaroak	3.000,00	3.000,00	1.310,01
Euskarazko itzulpenak PAOrako	32.085,00	32.085,00	29.532,70
Bestekalo lanak	71.159,05	77.159,05	70.614,04
Horniketak	10.000,00	10.000,00	9.878,38
Ordezkoak	500,00	500,00	0,00
Garbiketarako eta komunetarako materiala	1.900,00	1.900,00	1.181,13
Jantziak	750,00	750,00	0,00
Bestelako gastuak	1.500,00	1.500,00	287,99

Dietak, lokomozioa			
eta bidaiia-gastuak	11.000,00	11.000,00	4.598,92
Egindako lanen kalte-ordainak	1.551,24	1.551,24	0,00
2. kapitulua guztira	361.345,80	365.054,55	327.380,63

4. kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Partikularren kalte-ordainak eta gastuak	1.000,00	1.000,00	0,00
Beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenak	25.832,76	25.832,76	23.033,28
Irabazi asmorik gabeko erakundeetara egindako transferentziak	500,00	500,00	0,00
4. kapitulua guztira	27.332,76	27.332,76	23.033,28

6. kapitulua:	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
inbertsio errealak			
Eraikinak	31.198,69	21.487,37	33.097,46
Instalazioak eta makinak	1.000,00	1.000,00	418,00
Bulegoko altzariak	3.000,00	4.976,40	4.840,00
Informazio-rpozesuetarako ekipamenduak	20.986,04	23.304,75	15.120,62
Liburuak eta bestelako argitalpenak erostea	8.500,00	14.471,10	15.716,14
Aplikazio informatikoak	6.000,00	6.000,00	2.047,40
6. kapitulua guztira	70.684,73	71.239,62	71.239,62

7. kapitulua:	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
kapital-transferentziak			
Kabekideen komunitatearentzako kapital-transferentziak	69.019,37	186.327,39	186.327,39
7. kapitulua guztira	69.019,37	186.327,39	186.327,39

8. kapitulua: finantza-aktiboak	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Etxebizitza-maileguak	3.000,00	0,00	0,00
Soldata-aurrerapenak	3.000,00	0,00	0,00
8. kapitulua guztira	6.000,00	0,00	0,00

9. kapitulua: finantza-pasiboak	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Jasotako fidantzak eta gordailuak	100,00	0,00	0,00
Ustekabeko gastuak	12.350,08	0,00	0,00
9. kapituluko guztizkoa	12.450,08	0,00	0,00
GUZTIZKO OROKORRA	1.247.358,19	1.350.479,77	1.149.066,30

2001 - 2007KO AURREKONTU-BILAKAERA

BEHIN BETIKO KREDITUAUK

KAPITULUAUK	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
1. Langileria-gastuak	215.498,90	415.686,90	452.286,00	537.200,00	528.955,63	574.658,73	700.525,45
2 Ondasun arrunt eta zerbitzuetakoko gastuak	123.207,48	258.948,52	261.948,00	312.698,96	333.039,75	384.962,24	365.054,55
4 Transferentzia arruntak	12.020,24	25.398,24	25.200,22	32.000,00	22.577,15	20.596,36	27.332,76
6 Inbertsio errealak	84.141,69	62.076,11	112.173,92	64.095,02	54.820,58	60.953,09	71.239,62
7 Kapital-transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	64.710,14	199.325,30	186.327,39
8 Finantza-aktiboak	0,00	0,00	8.907,00	9.247,63	0,00	0,00	0,00
9 Finantza-pasiboak	0,00	0,00	100,00	852,37	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	434.868,31	762.109,77	860.615,14	956.093,98	1.004.103,25	1.240.495,72	1.350.479,77

12.2. NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEKO LAN-TALDE ORGANIKOA ETA LANGILEAK

Urtarrilaren 15eko 06/07 Ebazpenaren bidez, 2007rako Nafarroako Foru Erkidegoko Arartekoaren lan-talde organiko hau onar zezan eskatu zion Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Lanpostua	Kopurua	Erregimen		Izendapen		Lan postua	Mailako osag.	Osag. espezifikoak
		juridikoa	Maila	librea	Batera-ezintasuna			
Esparruko arduradunaren laguntzailea	2	C	-	X	-	-	-	-
Aholkulari teknikoa	2	C	-	X	-	-	-	-
Arartekoaren idazkaria	1	G	-	X	-	-	-	-
Goi-teknikaria	1	F	A	-	35	28	-	-
Kudeaketa administratiboko teknikaria	1	F	B	-	35	28	-	-
Administrariak	2	F	C	-	-	41,68	12	20 (*)
Atezaina	1	F	D	-	-	32	15	-

(*) Kontu-hartzailearen funtzioa ere betetzeagatik

F: Funtzionarioa

C: Arartekoaren bulegoko behin-behineko lanpostua - izendapen librea

G: Kabineteko behin-behinekoa - izendapen librea

2007ko urtarrilaren 29an eta apirilaren 19an egindako bilkuretan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposatutako lan-taldea onartu zuen hitzarmen bidez, ohar honekin: administrazio-kudeaketako teknikariari berriazko osagarri bat esleitzea "ikuskatzaile eta bulegoko kudeaketa-arduradun gisa egin beharreko funtzio gehigarriengatik". Aldaketa horrez gain, 2007ko lan-talde organikoak aurreko urteetako antolaketari eutsi zion.

2007ko abenduaren 31n, hamar pertsonak egiten zuten lan Nafarroako Arartekoaren bulegoan:

Jarduneko funtzionarioak	3
-Bitarteko lan-kontratua duten administrazioko langileak	2
-Aldi baterako langileak	5

Hauek dira lanpostu horiek dituzten pertsonen izenak:

Esparruko arduradunaren laguntzailea	Juan Luis Beltrán Aguirre
Idazkari orokorra Aholkulari teknikoa	Pilar Álvarez Asiáin
Aholkulari teknikoak	José Ignacio Echeverría Carlos Sarasíbar Marco
Arartekoaren idazkaria	Laura Léibar Aldama
Goi-teknikaria	Inés Monreal Azcárate
Kudeaketa administratiboko teknikaria	Jorge Balduz Gil
Administrariak	Celina Echeverría Uhalte Mar Laínez Gil
Atezaina	Javier Larraya Reta



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

0

7



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa